


# EUSKAL AURREZKI

## KUTXAK:

gizartearen eta ingurumenaren  
gaineko eraginen analisia



*Setem*

**Koordinatzailea:**

Jesús Carrión; Albert Sales

**Egilea eta idazlea:**

Jesús Carrión; Albert Sales; Júlia Martí; Inés Marco Lafuente; Raúl Sánchez; Marta Serra

**Hauen ekarpenarekin:**

Edurne Pujana; Iratxe Arteagoitia; Norma Vázquez; Martín Mantxo

**Argitalpena:**

SETEM Hego Haizea – [www.setem.org/euskadi](http://www.setem.org/euskadi)

**Setem**

**Ilustrazioak:**

Ander Arenas

**Diseinua eta maketazioa:**

Frinée Moreno

**Inprimatzailea:**

EPS

Ikerketa hau formatu digitalean aurki dezakezu hemen: [www.setem.org/euskadi](http://www.setem.org/euskadi)

Lan hau Creative Commons-en Errekonozimendua-Ez Komertziala-Berdin Partekatu 3.0 Espainia lizentzian dago.



Argitalpen hau Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren, Arabako Foru Aldundiaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren diru-laguntzarekin egin da. Dokumentu honen edukia SETEMen erantzukizuneko da bakarrik.

Hauen laguntzarekin:





# EUSKAL AURREZKI KUTXAK:

gizartearen eta ingurumenaren  
gaineko eraginen analisia

*Setem*



# Edukien **aurkibidea**



› <b>AURKEZPENA</b>	05 orr.
› <b>SARRERA</b>	06 orr.
› <b>01. ANTOLAMENDU EGITURA</b>	07 orr.
01.1 <i>Kutzak: BBK, Kutxa eta Vital Kutxa</i>	08 orr.
01.2 <i>Funtzionamendu irizpideak eta politikak</i>	10 orr.
1 <i>Antolamendu egitura</i>	10 orr.
2 <i>Genero-politikak</i>	12 orr.
01.3 <i>Gizarte Ekintza</i>	16 orr.
› <b>02. MERKATUAREN EGOERA ETA KRISIAREN EGOERA</b>	19 orr.
› <b>03. NAZIOARTEKO HITZARMENAK ETA EGE</b>	21 orr.
03.1 <i>Munduko Ituna</i>	22 orr.
1 <i>Giza Eskubideak</i>	22 orr.
2 <i>Lan-arloko Estandarrak</i>	25 orr.
3 <i>Ingurumena</i>	26 orr.
4 <i>Ustelkeriaren kontra</i>	27 orr.
› <b>04. BEREN JARDUEREN KANPOKO POLITIKAK ETA PROIEKZIOA</b>	31 orr.
04.1 <i>Hirugarren enpresen bidez gizartearen eta ingurumenaren gainean dituzten eraginak</i>	32 orr.
04.2 <i>Armamentuaren industriarekiko harremanak</i>	44 orr.
04.3 <i>Beste arduragabetasun eta kontraesan batzuk</i>	47 orr.
1 <i>Paradisu fiskalekiko harremanak</i>	53 orr.
2 <i>Higiezinen betearazpena</i>	50 orr.
04.4 <i>Alderdi politikoen finantzaketa irregularra</i>	53 orr.
04.5 <i>Publizitatea</i>	56 orr.
04.6 <i>Monopolizazio-praktikak</i>	58 orr.
› <b>05. ONDORIOAK</b>	59 orr.
› <b>06. FINANTZA ETIKOAK: ALTERNATIBA BAT</b>	63 orr.
› <b>07. FINANTZA-MUNDUKO ERAGILEENTZAKO ESKAERAK</b>	67 orr.





## Aurkezpena

Setem Hego Haizea Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakunde bat da eta Nazioarteko Elkartasuna sustatzen du. SETEM Frederazioaren bitartez, FINANTZA ETIKOAK kanpaina koordinatzen du Europako beste herrialde batzuetan dauzkan erakundekideekin. Kanpaina horren xedea da finantza-sistematik garapen iraunkorra lortzen laguntzea justizia sozialaren eta gure baliabide naturalen babesaren aldeko ekimenak babestuz, esaterako Bidezko Merkataritza, laneratzea, nekazaritza ekologikoa... Azken urteotan kanpainaren ekintza ugari zalantzazko inbertsioak salatu dituzte, eta, horri esker, banku handiek beren politika onartu eta berbideratu behar izan dute<sup>1</sup>.

Aurrezki kutxen inbertsioak ez direla gardenak susmatzen genuenez, eta gaur egun banku bihurtzeko joera dutela ikusirik, SETEM Hego Haizeak erabaki zuen euskal kutxen (BBK, Kutxa eta Vital Kutxa) inbertsio-politikei eta -jarduerei buruz eskuragarri dagoen informazioa nolakoa den ikustea, eta, horretarako, Globalizazioko Zorraren Behatokia (ODG) elkarte espezializatuarekin harremanetan jarri ginen.

ODGren lanaren emaitza gisa —haren ikuskapen eta erantzukizunpean— lan hau argitaratu da, eragile sozialei nahiz euskal kutxen bezeroei ezagutzera emateko. Txosten honen oinarria kutxek argitaratutako informazioa da, baita ODGk eskaturik eman duten beste informazio pixka bat ere.

SETEM Hego Haizeak, jarduera-lerro horrekin, ikertutako kutxekin hitz egiteko bide bat hasi nahi du, bezeroek gardentasunez jakin dezaten beren dirua non eta zertarako erabiltzen den eta erabaki horietan parte har dezaten. Lan honen lehenengo urrats gisa, eskuragarri dagoen informazio publikoa aurkeztuko dugu, kutxekin eta haien bezeroekin alderatzeko.

Horrekin lortu nahi duguna da “finantzen sektoreko produktuak kontsumitzen” dituzten pertsonak kontzienteago izatea eta gehiago inplikatzeko, kontsumitzaile arduratsu gisa jokatuz —ala ez jokatuz— Euskadin nahiz herrialde txirotu askotan garapen sozial jasagarri eta ekologikoagoa lortzen lagun dezaketelako.

*Argitalpen hau laburpen bat da. Dokumentu osoa hemen: [http://www.setem.org/media/pdfs/EuskalAurrezkiKutxak\\_luzea.pdf](http://www.setem.org/media/pdfs/EuskalAurrezkiKutxak_luzea.pdf)*

1. Informazio gehiago hemen: [www.finanzaseticas.com](http://www.finanzaseticas.com)



## Sarrera



Banketxeek pertsonen eta erakunde aurreztaileen kapitala kanalizatzen dute eta inbertsioak egiteko behar dutenei helarazten diete. Argi dago finantza-erakundeek gure aurrezkiekin orotariko jarduerak gauzaten dituztela, baina nekez aurkituko dugu bere bankuak edo kutzak bere dirua nola erabiltzen duen dakien aurreztailearik. Bankuen eta aurrezki kutxen jardueraren alderik garrantzitsuena da enpresei eta partikularrei kreditu-lerroak ematen dizkietela pertsona eta erakunde aurreztaileen ekarpenen kapitala kanalizatuz. Gure diruari ahalik eta etekinik handiena ateratzeko beharraren ondorioz, finantza-erakundeek errentagarritasunik altuena bermatzen dieten enpresa eta proiektuetan egiten dituzte inbertsioak, eta horrek era guztietako jarduera espekulatiboak barne hartzen ditu. Azken jarduera horiek jada ez dira aurrezkiaren eta inbertsioaren arteko artekaritza huts gisa ikusten, eta finantza-erakundeen ohiko jarduera bihurtu dira bankuaren sektorearen liberalizazioari esker (Espainian hirurogeiko hamarkadan hasi zen). Bankuek sustatu zuten prozesuak, azkenean, aurrezki kutxetan eragina izan zuen, eta kutxek jarduerekin eta lurralde-hedapenarekin lotutako gaitasun berriak bereganatu zituzten, banku pribatuarekin lehiatzeko presioagatik<sup>2</sup>.

Aurrezki Kutzak irabazi-asmorik gabeko fundazio gisa sortu ziren, finantza-bitartekari gisa jarduteko, eta, sarritan, beren eraketa-dokumentuetan jaso dute banku-zerbitzuak eskuratzeko zailtasun handiagoak dituzten pertsoneri laguntzeko borondate politikoa dutela; baina, denbora joan ahala, ohiko bankuarekin parekatuz joan dira. Azken urteotan, Justicia i Pau, Centre Delàs, ODG, SETEM eta beste erakunde batzuek bultzatutako kanpainen bankuek eta kutxek industria militarrekin, komunitate indigenen eskubideak edota erreserba naturalak kaltetzen dituzten azpiegituren finantzaketarekin eta oinarritzko produktuen prezioen igoerarako erabakigarriak diren inbertsio espekulatiboekin dituzten harremanez ohartarazi dute.

Ondorengo txosten honetan, BSI (Babes-sistema Instituzional) batean bateratze-prozesuan egon berri diren hiru euskal kutxen —alegia, BBK, Vital Kutxa eta Kutxa— jardueren eraginaren analisi bat aurkezten dugu<sup>3</sup>. Hiru aurrezki-erakundeen egitura eta ezaugarri nagusiak modu ulergarrian deskribatzeaz gain, beren kudeaketarekin lotutako barne-politiken eta egiten dituzten inbertsioen nahiz finantza-jardueren eraginetan jarriko dugu gure arreta. ■

2. Rodríguez, Luis; Calvo, Antonio; Parejo, José Alberto; Cuervo, Álvaro (2008, 21. edizioa) Manual de sistema financiero español.

3. BSI batean —“bat-egite hotz” ere esaten zaio—, erakunde bat baino gehiago elkartu egiten dira, bakoitzak bere marka mantentzen du, baita bere forma juridikoa, erabakitze gaitasun indibiduala eta bere independentzia ekonomikoa ere. BSIa lehenengoz 2006an Europako zuzentarau batean agertu zen figura juridiko bat da, eta honela definitzen da: “kontratuzko edo legezko erantzukizun-akordio bat da, kreditu-erakundea eta kontrako alderdia barne hartzen ditu, erakundeak babes ten ditu, eta, zehazki, haien kaudimena eta likidezia bermatzen du porrot egitea ekiditeko, behar izanez gero”.



# 01

Antolamendu  
egitura



# Antolamendu egitura



## 01.1 Kutxak: BBK, Kutxa eta Vital Kutxa



Gaur egun, Aurrezki Kutxak honela definitzen dira: irabazi-asmorik gabeko fundazio pribatuak edo publikoak, aurrezki inbertsio produktibora mobilizatzen dute, eta beren eginkizuna da finantza-bazterkeria ekiditea eta etekinak gizarte-ekintzara bideratzea, hau da, guztion ongizatera. Garrantzitsua da azpimarratzea oraindik familien baliabideak kudeatzen dituzten erakunde nagusiak direla. Azken urteotan, nabarmen aldendu dira bide horretatik. Batetik, aurrezki kutxek gizarte-ekintzara bideratzen zuten etekinaren ehunekoak murriztuz joan da, eta, bestetik, higiezinaren negozioan jolastu dute, epe laburrean errentagarritasun handiak lortzeko bilaketan inbertitzaile handienetako bat izan dira, eta ez zuten inola ere espero etxebizitzaren prezioaren igoera jarraitua jaitsiko zenik. “Higiezinaren burbuila” delakoan parte hartu dute; are gehiago, haren eragile erabakigarri eta arduragabeak izan dira. Halaber, Burtsan inbertitu dute, eta enpresetan akzioen bidez parte hartu dute. Burtsako espekulazioarekin batera, jarduera horiek guztiek beren eraketa-printzipioetatik urrundu dituzte.

Bestalde, barruan izan duten aldaketarik garrantzitsuena beren “modus operandi”an geratu da; izan ere, oro har, azkenean beren inguru ekonomikoaren garapenaren zerbitzura lan egiten duen irabazi-as-

morik gabeko erakunde sozial izaera galtzen dute, eta banku pribatuaren prozedurak eta jarrerak imitatzen dituzte.



**BBK**

BBK 1990eko otsailaren 16an eratu zen, Bilboko Aurrezki Kutxak (1907an eratuak) eta Bizkaiko Aurrezki Kutxak (1921ean sortua) bat egin zutenean.

Erakunde horien sorreraren helburua zen aurrezte bultzatzea, herri xehearen artean aurreikuspena sustatzea eta lukurreriaren kontra borrokatzea. Izatez, Bilboko Aurrezki Kutxa bahietxeari funtsak helarazteko helburuarekin sortu zen, batik bat. Hala ere, 1977an Fuentes Quintana Errege-dekretuak (2290/1977) aurrezki kutxak eta banku pribatuak parekatu egin zituen, eta horrek kutxak pixkanaka liberalizatzea eragin zuen. Bizkaiko aurrezki kutxen helburua erabat aldendu zen beren helburu soziale-tik eta errentagarritasunera zuzendu zen, eta, ondorioz, kutxek gizarte-ekintzarako funtsa egindako ekarpenak murriztuz joan ziren<sup>4</sup>.



## KUTXA

Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa, Kutxa izenekoa, 1990eko abenduaren 1ean sortu zen, Donostiako Udal Aurrezki Kutxak (1879ko apirilean sortua) eta Gipuzkoako Probintziako Aurrezki Kutxak (1896ko uztailean eratua) bat egin zutenean. Bi Kutxen hasierako helburua aurreztea sustatzea eta herritarren bizitza-maila hobetzea izan zen. 70eko hamarkadan, krisi ekonomikoko garaiaren erdian, beheratutako industria-sekto-reetan inbertitzen hasi ziren<sup>4</sup>. Aurrezkiaren eta bi erakundeen etekinak areagotu zirenez, gizarte-ekintzara bideratutako gastuak areagotuz joan ziren<sup>5</sup>. 1990ean, hedapen ekonomiko handiko garai batean bizi zen gizarte batean finantza- eta gizarte-zerbitzuen eskaerari erantzuteko, bat egin zuten eta Kutxa eratu zen, eta, gero, Kutxa Taldea osatzen duten enpresen multzoa eratu da eta Gipuzkoatik kanpo hedatu da<sup>7</sup>.

## CAJA VITAL KUTXA

Vital Kutxa 1990eko ekainean sortu zen, Gasteizko Udal Aurrezki Kutxa (Udalak 1850ean eratua) eta Arabako Probintziako Aurrezki Kutxa (Aldundiak 1918an eratua) elkartu zirenean. Kutxa horiek arabar apalek (eta nekazariei lehen-tasuna emanez) aurreztea errazteko sortu ziren. 50-70 hamarkadetakoz hazkuntza ekonomikoak aurrezki-indizeak areagotzea ekarri zuen, beren diru-sarrerak asko areagotu ziren eta sukurtsal berriak ireki ziren. Kutxek lurzoru industrialak erosi zuten eta hiriaren eta probintziaren ekonomia-aren garapenari lagundu zioten, etxebizitzak eraikitzen lagunduz eta hipoteka-kredituak emanez. 70eko hamarkadan, krisi ekonomikoaren ondorioz, Kutxek egokitzapenak egin behar izan zituzten. Hala ere, aurrezkiaren harreraren bilakaerak goranzko erritmoarekin jarraitu zuen. Haatik, bere gizarte-ekintza atala, denbora joa ahala, ongintzako alderdia baztertuz joan zen eta interes handiagoa eman zien kulturari, osun-arloari eta hezkuntzari. Vital Kutxa 1990ean sortu zen, eta bere merkatu-kuota Arabaren barruan nahiz kanpoan hedatu du, 5 fundazio dauzka eta horietatik bideratzen du bere gizarte-ekintza<sup>8</sup>.

4. Valdaliso, Jesús M<sup>a</sup> [2007] Txostena: BBK (1907-2007) Cien años de compromiso con el desarrollo económico y el bienestar de Bizkaia. <https://portal.BBK.es/internet/banners/centenario/libro/BBK100.pdf> Visitada el 10 de junio de 2011.

5. Kutxa Korporazioaren Ataria. Kutxa honelakoa da: Historia laburra: [https://www.kutxa.net/cs/Satellite/KU\\_Portal/Layout\\_corp/1215166732471/es](https://www.kutxa.net/cs/Satellite/KU_Portal/Layout_corp/1215166732471/es). 2011ko ekainaren 15ean bisitatu.

6. Caja de ahorros y Monte de Piedad Municipal de San Sebastián (1879-1990). 1940-1990 Gizarte Ekintza. <http://www.euskomedia.org/aunamendi/48491/115382>. 2011ko ekainaren 15ean bisitatu.

7. Kutxa Korporazioaren Ataria. Kutxa honelakoa da: Historia laburra: [https://www.kutxa.net/cs/Satellite/KU\\_Portal/Layout\\_corp/1215166732471/es](https://www.kutxa.net/cs/Satellite/KU_Portal/Layout_corp/1215166732471/es). 2011ko ekainaren 15ean bisitatu.

8. Gasteizko Udal Aurrezki Kutxa eta Arabako Probintziako Aurrezki Kutxa. <http://www.euskomedia.org/aunamendi/48492?q=caja+vital&partialfields=fondo%3Aau%25F1amendi&numreg=1&start=0> 2011ko ekainaren 17an bisitatu.

# Antolamendu egitura

## 01.2 Funtzionamendu irizpideak eta politikak



Merkatuan nolabaiteko garrantzia duen banketxe orok dauka Enpresaren Gizarte Erantzukizuneko (EGE) politika bat. Berez, politika horrek kutzaren edo bankuaren jarduerak gidatu behar ditu bere finantza- eta enpresa-jardueren eragin negatiboak minimizatzeko. EGEaren printzipioek erakundeen barruko dinamiketan (barruko lan-harremanak eta gobernu korporatiboa) itxuraz dute garrantzia, antza denez, ez da kontuan hartzen inbertsioen eragina baloratzean. Produktu jakin batzuen kasuan izan ezik (adibidez, BBKren “Mailegu Berdea” edo “BBK solidarioa”, Kutzaren “Gordailu Iraunkorrak”, etab.), ez da gizarte erantzukizunaren inolako erreferentziarik aurkitzen kutzaren inbertsio politikak bideratzen dituzten agirietan.

### 1. Antolamendu-egitura

Hiru euskal erakundeek antzeko egitura dute beren ordezkari-organoren dagokienez. Jarraian, beren ezaugarriak laburbilduko ditugu:

#### › BATZAR NAGUSIA

**Egitura:** Batzar Nagusia 100 kidek osatzen dute eta erakundearen organo goren gisa jarduteko ahalmen orokorra dauka. Kutzek bulegoak dituzten lurralde-

tako Udalbatzen ordezkari izango diren kontseilari orokorrak Udalbatzek izendatzen dituzte zuzenean, udalaren osoko bilkuraren erabakiaren bitartez. Kutzako langilearen ordezkariak sistema proportzionalaren bitartez aukeratzen dituzte langileen legezko ordezkariak. Erakunde Fundatzaileen ordezkariak zuzenean izendatzen dituzte Erakundeek. Ezarleen ordezkariak<sup>9</sup>, eta ordezekoak, beren artean hautatzen dituzte Konpromisarioek, hau da, Batzarreko kide guztiek beren artean. Administrazio Kontseiluak kutzak bulegoak irekita eta lanean dauzkan Autonomia erkidego bakoitzari kontseilari orokor kopuru bat egotziko dio, legearen arabera ezarritako prozedurekin bat etorriz.

**Erabakiak hartzea:** Erabakiak gehiago soilaren bidez hartzen dira eta kontseilari nagusi bakoitzak boto bat dauka.

**Eskumenak:** Beren egitekoak orokorrak dira, eta beren zeregin nagusietako batzuk dira Erakundearen Estatutuak eta Estatutuak aplikatzeko beharrezkoak diren Araudi Orokorrak onetsi eta aldatzea, Erakundearen jardura-planaren ildo orokorrak urtero definitzea, Administrazio Kontseiluaren kudeaketa-lana, Memoria, Urteko Balantzea eta Eraitzen Kontua onestea, egokia bada.



**Interes-taldeen araberako banaketa:** Batzarreko kideen banaketa, beren taldearen arabera, ondorengo da eta hiru Aurrezki Kutxen (BBK, Kutxa eta Vital Kutxa) egituraren adierazgarri da. *Taula 1 begiratu*

**Jarduera-maila:** BBKren Batzar Nagusiak eta Kutzarenak hiru bilera egin zituzten 2010ean, eta Vital Kutzarenak bi. Ondorioz, Batzar Nagusiaren zereginak, egiatan, kudeaketa orokorrarekin lotuago daudela esan daiteke.

## ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

**Egitura:** Administrazio Kontseilua 17 kidek osatzen dute eta Erakundearen ordezkaria da bere helburuak betetzearekin lotutako gai guztietan, baita haren aldaketa eta trafikoekin lotutakoetan ere. Administrazio Kontseiluko kide guztiak Batzar Nagusiko talde bakoitzaren ordezkariak izendatzen dituzte, beren artean, ezarleen ordezkariak izan ezik, horiek Batzar Nagusiko kide guztiak hautatzen baitituzte beren artean.

**Erabakiak hartzea:** Erabakiak gehiengo soilaren bidez hartzen dira.

**Eskumenak:** Beren funtzioak betearazpena bideratuago daude, Erakundeak berak Kontseiluaren eskumenei buruz egiten duen definizioan ikus daitezkeen bezala, eta horien artean hauek gailen daitezke:

Agintaritzen Kutxa edo Estatuko beste Organo batzuek ordezkatzeko, presidentearekin batera Batzorde Betearazlea osatu behar duten kideak izendatzea, Zuzendaritza izendatzea, Erakundearen barneko egitura eta administrazioaren arloko antolamendua zehaztu eta aldatzea eta sukurtsalak eta agentziak sortu eta desagerraraztea, hedapen geografiko eta funtzionalerako politikak zehaztea, langile-egitura onetsi eta aldatzea, karguak sortu eta desagerraraztea, dauzkaten gaitasunak eta zereginak zehaztea eta beren soldatak eta sariak adieraztea, baita barne-araubidea landu eta onestea, deskontu- edota mailegu-baldintza orokorrak eta berme-gordailuak zehaztea, egokitzat jotzen dituen arrisku-eragiketarak onestea eta Kutzaren jardueran azaltzen diren arazoak ebaztea, erabakiak hartzea, zehazpenak egitea, besteen baliabideen eta funts propioen inbertsioak egin eta zaintzea, Ongintzako Lana eta Soziala sustatu, zuzendu, kudeatu eta administratzea ere.

**Interes-taldeen araberako banaketa:** Hona hemen Administrazio Kontseiluaren kideen banaketa, beren taldearen arabera (berrito ere, bat dator analizatu diren hiru erakunde kasuan). *Taula 2 begiratu*

**Jarduera-maila:** Korporazioaren Gobernuaren 2010eko Txostenean ikusten dugun bezala, BBKren Administrazio Kontseilua 2010ean 13 aldiz batzartu da, Kutzarena 14 aldiz eta Vital Kutzarena 16 aldiz.

>>

### 1. Taula Batzar Nagusiaren banaketa

Taldea	Kontseiluko kideen kopurua	Guztizkoaren %
Udalbatzak	30	30,000
Ezarleak	43	43,000
Pertsona edo erakunde fundatzaileak	20	20,000
Langileak	7	7,000
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100,000</b>

Iturria: Korporazioaren Gobernuaren 2010eko Txostena (BBK, Kutxa eta Vital Kutxa)

### 1. Taula Administrazio Kontseiluaren banaketa

Taldea	Kontseiluko kideen kopurua	Guztizkoaren %
Udalbatzak	5	29,412
Ezarleak	8	47,059
Pertsona edo erakunde fundatzaileak	3	17,647
Langileak	1	5,882
<b>GUZTIRA</b>	<b>17</b>	<b>100,000</b>

Iturria: Korporazioaren Gobernuaren 2010eko Txostena (BBK, Kutxa eta Vital Kutxa)

9. Los impositores son seleccionados por sorteo a través del censo de clientes de la caja de ahorros. Una vez seleccionados, los impositores votan en función de las candidaturas presentadas a sus representantes.



## ➤ BATZORDE BETEARAZLEA

Batzorde Betearazlea Erakunde iraunkor bat da, eta dagozkion Kutzaren atalak kudeatzen eta administrazioan ditu, adibidez, besteen baliabideen eta funts propioen inbertsioak erabaki, zehaztu, egin eta zaintzea, berme pertsonala, hipoteka gisakoa edo beste edozein motatakoa duten maileguak eta kredituak onestea, kontu-korronteak eta kreditu-kontuak irekitzea Erakundearen izenean Banku Ofizial edo Pribatuan, baita Espainiako Bankuan ere, gizarte ekin-tzako lan guztiak kudeatu eta administratzea, etab.

## 2. Genero-politikak

Hiru erakundeen genero-politikak islatzen dituzten dokumentuetara sartzen ahalegintzeko muga garrantzitsuak aurkitu ditugu. Berdintasun-planak ez daude eskuragarri korporazioen web orrietan, eta hartutako neurrien eta adierazleen informazioa Gizarte Erantzukizunaren memorietatik lortu da. Hiru kasuetan, berdintasun-planetan lortutako neurrien berezko helburua da zuzendaritza-karguak dituzten eta erabakiak hartzen dituzten organoetan dauden emakumeen kopurua areagotzea, gizonen eta emakumeen arteko kontratu-baldintzak berdintzea (azken horien behin-behinekotasuna murriztuz) eta lanpostuak sortzean emakumeek betetzea sustatzea.

Helburu horiek genero-berdintasun handiagoa lortzen laguntzen dutela uler daitekeen arren, kasu honetan ez da hori ondorioztatu behar; izan ere, adierazleak oso partzialak dira eta ez dituzte neurtzen gizonen eta emakumeen lan-arlotik kanpo dituzten paper desberdinen arteko desorekak. Erabaki-organotako emakumeen kopurua areagotzeak ez du esan nahi, berez, desorekak automatikoki murrizten direnik. Erakundeek eta inguru sozialak ez dituzte emakumeak emakume izateagatik “bakarrik” baztertzen, goi-karguak lortzeko eta erabaki-organotara iristeko oztopoak jartzen dizkiote laneko eta familiarako bizitza benetan bateratu nahi duen nornahiri. Gizonak nahiz emakumeak izan, lanaldiak seme-alabak edo menpeko pertsonak zaintzeko mugatzen edo laburtzen dituzten edo lana, modu sekundarioan, beren bizitzaren gainerako alderdiak artikulatzeko ardatz nagusi gisa hartzen ez duten pertsonen nekez lortzen dute erabaki-organotako karguak izatea.

Rolen banaketa tradizionala dela eta, diskriminazio hori pairatzen duten gehienak emakumezkoak dira. Baina ez da ulertu behar langileen eguneroko bizitza erraztera eta zaintza-lanak gauzatera bideratutako ekintzak emakumeentzat soilik mesedegarriak direla; izan ere, zeharkako politikak dira, eta langile guztiei eskaintzen diete laneko bizitza eta bizitza pertsonal hobea eta ibilbide profesionalen garapenean berdintasun handiagoa barne hartzen dute.

Berdintasun planetan kontuan hartzen zailagoa den beste gune bat gizonetzkoen lidergo-ereduen nagusitasuna da. Askotan, enpresa handien gobernu-organotara iristen diren emakumeek gizonetzkoen buruzagitza-ezaugarri argiekin jarduten dute. Bestelako buruzagitza-eredurik garatu ez denez eta logika enpresarialak ikuspegi horri eskaini dion arreta urriaren ondorioz, zaildu egin da berdintasun-neurriak eta, batez ere, monitorizazio-adierazleak barne hartzea.



BBKren bigarren Berdintasun Planak, 2008a eta 2012a bitartean aplikatzen ari denak, 12 jarduera-leerro aurreikusten ditu, eta, horiek erakundea konprometitzen du hainbat arlotan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioak indartzen jarraitzea, hala nola, hautaketa, prestakuntza eta garapen profesionalerako politikan edo hizkuntzaren erabileran, eta sexu-jazarpen kasuetarako jarduera-protokolo bat garatzea barne hartzen du.

BBKk adierazle batzuk ezarri ditu berdintasun-politika lortu diren emaitzen eta ezarritako helburuen arabera ebaluatzeko. Planteatutako adierazleak erdietsitaz jotzen dira, baina harrigarria da 2006 eta 2007ko EGE Memoriek ez dutela Aginte-taularik barne hartzen. 2008ra arte, “Helburu eta Erronka”<sup>10</sup> orokor batzuk besterik ez da zehazten.

Genero-berdintasuneko politiken aplikazioaren garapena ebaluatzeko, BBKk oinarritzko adierazle gisa hartzen ditu langilerian emakumeen ehunekoak duen bilakaera, zuzendaritza-karguak dituzten emakumeen kopurua eta sortutako lanpostu

10. BBK 2006ren eta 2007ko Memoria: Estrategia eta analisi atala: Eragin, arrisku eta aukera nagusiak: BBKk EGE arloan erdietsi dituen lorpen eta helburuen laburpena.



guztien artean emakumeek betetako kopurua. Langileria emakumeen proportzioa 2006tik ehuneko 50 ingurukoa da, sortutako lanpostu-kopuru osoari dagokionez emakumeek betetakoak 2009an %86 izatera iritsi ziren, eta, 2010ean atzera egin zuen arren, beti egon da %75etik gora, eta horixe da erakundeak ezarritako muga. Zuzendaritza-karguetan emakumeen kopurua areagotu egin zen 2008ra arte, 2009an atzera egin zuen, baina 190etik gora izaten jarraitu zuten (hori da helburu gisa ezarritako kopuru absolutua).

Baina helburu horiek betetzeak oso harreman txikia du genero-berdintasunarekin. Baliteke negatiboa izatea langilerian emakumeen proportzioa %50ekoa izaten jarraitzea eta sortutako lanpostuetan emakumeek hartutako lanpostuak gehiago izatea. Datu horiek ikusirik ulertzen baita emakumezko langileen errotazioa gizonetakoena baino handiagoa dela. Horrek ez du zertan negatiboa izan, baina faltan botatzen dira lanaren egonkortasunarekin, kontratazio-modalitateekin edo lanaldimotekin lotutako adierazleak, berdintasun-plan bat edo genero-berdintasunerako plan bat gauzatzeko nahiz eraginaren jarraipen bat egiteko.

Aldi berean, emakumeak zuzendaritza-karguetara iristearekin lotutako zifra absolutuen azterketa erakundearen kategorian profesionaletan gizonen eta emakumeen duten ehunekoaren deskripzio xeheago bat eginez osatu beharko litzateke. Datu horien arabera, dirudienez, 2008tik 2009ra irizpide-aldaketa bat egon da langileria tekniko eta administratibotzat jotzen denari dagokionez; izan ere, langile-kopuru osoa ez da ia aldatu, baina langile teknikoaren kopuruak behera egin du eta administratiboarenak gora egin du proportzio berean. Hori dela eta, 2008ko datuak salbuetsi egin dira taulen irakurketa egiteko.

Emakumeek Arlo Finantzarioko Langilerian duten ordezkariartze dagokionez, emakumeen ehunekoak behera egin du pixkanaka erantzukizun txikieneko lanpostuetan (Administraria) eta erantzukizun handiagoa dutenetara (Zuzendariak) aldatuz doa.

Goi-zuzendaritzako Organoen dagokionez, emakumeen ehunekoak oso baxua izaten jarraitzen du.

Genero-politikak paritatearen ikuspuntutik planteatzeko muga handiak daude enpresa edo erakunde baten barruko berdintasunaren bilakaera baloratzerakoan. Zuzendaritza-karguak dituzten emakumeen eta gizonen proportzioak ez du islatzen zein genero-rol exijitzen duen erakundeak kargu horietara iristeko. Ondorioz, kategorian profesional desberdinetan emakumeen proportzioa hazteak ez du esan nahi desoreka-egoerak mantentzen ez direnik. Ez da aurreikusten laneko eta familiarako bizitza bateratzeko aukerak baloratzea ahalbidetzen duen inolako adierazlerik, eta ez da kontuan hartzen emakumeek eta gizonen zuzendaritza-karguak lortzeko onartu behar duten kostu pertsonala.

## ➔ KUTXA

Kutxak Berdintasun Plan bat ezarri zuen<sup>11</sup> 2010ean, langilerian emakume eta gizonen arteko osaketa orekatua lortzeko, hau da, sexu bakoitzeko pertsonen kopuruak %60a ez gainditzeko eta %40a baino gutxiagokoa ere ez izateko. Gainera, neurri zehatzen bitartez, langileen hautaketan, kontratazioan, sustapenean eta soldaten banaketan sexuaren ondoriozko inolako prozedura edo politika diskriminatzailearik ez egotea lortu nahi du, baita familiarako bizitza, bizitza pertsonala eta lanekoa bateratzea ere. Harrigarria da Enpresako Gizarte Erantzukizuneko Memoretan Plana ez aipatzea.

Kutxaren Enpresako Gizarte Erantzukizuneko Kodea<sup>12</sup> langileria gauzatzeko gehiegikeria edo jazarpen kasuetan arreta eskaintzeko printzipioan oinarritzen da, baina ez du espezifikoki adierazten emakumei zuzenduta dagoenik. Langileen aukera-berdintasuneko printzipioan oinarritzen da, era berean, generoaren arabera diskriminaziorik gabeko eta berdintasuneko tratuan oinarrituz.

Enpresaren Gizarte Erantzukizunari buruzko 2008ko<sup>13</sup> eta 2009ko<sup>14</sup> Memoretan ez dute Planaren >>

11. Kutxa implanta su 'Plan de Igualdad' vinculante para todos sus empleados'. El Economista argitaratutako artikulua. 2010eko uztailaren 1a. <http://www.economista.es/economia/noticias/2277661/07/10/Economia-Finanzas-Kutxa-implanta-su-Plan-de-Igualdad-vinculante-para-todos-sus-empleados.html>

12. Kutxa. Enpresaren Gizarte Erantzukizuneko Kodea. 4. orr. <https://www.kutxa.net/cs/>

13. 2008ko EGE Memoria. [https://www.kutxa.net/wkn\\_corporativo/2009/memoria\\_RSE/es/equipo\\_humano.htm](https://www.kutxa.net/wkn_corporativo/2009/memoria_RSE/es/equipo_humano.htm)

14. 2009ko EGE Memoria. [https://www.kutxa.net/wkn\\_corporativo/2010/memoria\\_RSE/es/equipo\\_humano.htm](https://www.kutxa.net/wkn_corporativo/2010/memoria_RSE/es/equipo_humano.htm)



helburuak asetzeko edo EGE Kodeko irizpideak betetzeko neurri zehatzik barne hartu. Bi taulatan aipatzen da generoa; lehenengoan, Kutxan lan egiten duten gizonen eta emakumeen ehunekoa ikusten da, eta bigarrenean, Goi-zuzendaritzako Organoetako kide diren emakumeen kopurua azaltzen da.

Kutxaren informazio publikoaren arabera, langilerian osaketa orekatu bat lortzeko helburua beti bete da. Ez dirudi oso anbiziotsua helburu horretan kontzentratzea alde aurretik jakinda beti betetzen dela. Oso datu gutxi daude emakumeek Kutxan duten ordezkari buruz. Giza taldea multzo bat bezala tratatzen da; alegia, gizonen eta emakumeen arteko bereizketarik egin gabe, eta, ondorioz, ezinezkoa da jakitea bien artean aukera-berdintasunik dagoen ala ez. Ez dago emakumeen ehunekoaren inguruko daturik kategoriaka. Kutxak dio dauden kategoria profesionaletan, gizonen eta emakumeen soldaten artean berdintasuna dagoela<sup>15</sup>, baina ez dago soldaten daturik kategorien arabera. Horrez gain, ez dago daturik kontratu finkoa eta behin-behinekoa duten emakumeen ehunekoari buruz, ezta sortutako lan osoarekin alderatuta emakumeentzat denari buruz ere. Kutxaren EGE politika martxan jartzeaz Jasangarritasun Batzordea arduratzen da<sup>16</sup>, Batzordea Kutxako zenbait sailtako 7 zuzendarik osatzen dute eta horietako bakarra da emakumezkoa<sup>17</sup>. Horrek erakusten du emakumezkoen egoera desorekatua ez dela goi-zuzendaritzan soilik ikusten, arloko zuzendaritza-mailan ere baitago, maila horretan 10 zuzendaritik 2 bakarrik baitira emakumezkoak.

Gizarte Ekintzari dagokionez, ez dago emakumeen aukera-berdintasuna sustatzen duen jarduera edo esparrurik. Ez da generoaren araberako bereizketarik egiten gastuaren banaketari dagokionez, eta jarduera sozialen onuradunen kopurua orokorrean aipatzen da, sexuen araberako bereizketarik egin gabe. Horrez gain, ez dago emakumeentzako laguntzen inguruko informaziorik<sup>18</sup>.



## CAJA VITAL KUTXA

Vital Kutxak 2010erako hartu zuen hobekuntza-konpromisoetako bat langileentzat aukera-berdintasuna lortzea izan zen<sup>19</sup>. Helburu hori erdiesteko, Vital Kutxak Berdintasun Plan<sup>20</sup> bat landu zuen, baina ez dago eskuragarri erakundearen web orrian. Vital Kutxaren langilerian emakume gutxi daude, eta denbora joan ahala presentzia hori konstantea izan da. Emakumezkoen ehunekoa %35ekoa da, gutxi gorabehera, langileria egonkorrean, eta %15etik beherakoa da zuzendaritza-karguen artean. Gobernu-organotatik emakumeen presentzia %26tik beherakoa da. Vital Kutxak langileria osaketari buruz argitaratzen dituen datuetan ez da jaso erakundearen langileria-taldea osatzen duten emakumeen kopurua. Soldata-kategoria bakoitzeko langileen datuak ez daude sexuaren arabera xehakaturik.

Eta kutxak EGE memorian gizonen eta emakumeen soldatak guztiz berdinezkoak direla adierazten duen arren<sup>21</sup>, ez dira publikoki ezagutzera ematen kategoria-profesional bakoitzeko batez besteko soldaten zenbatekoak. Memorian, era berean, ez da adierazten zenbat emakumeek duten behin-behineko kontratua, ezta lanaldi partzialeko lanpostuak sexuen arabera nola dauden banatuta ere.

Bere Gizarte Ekintzari dagokionez, Vital Kutxa ez da askoz anbiziotsuagoa bere helburuei dagokionez. Sozietatearen Memoriako 12. Helburua da “aukera-berdintasuna sustatzea”. Konpromiso hori betetzeko, Vital Kutxak bi kanpaina ditu. “Lanbide heziketari buruzko dibulgazio kanpaina”k emakumeak lanbide heziketako zentroetan espezialitate teknikoetara gehiago sartzea lortzeko. Eta “Ideia eta jokabide sexistak desagerraraztera eta horrela genero-indarkeria prebenitzera bideratutako eskola-kanpainak” izeneko kanpaina ikastetxeetan egiten da, eta genero-indarkeria prebenitzea du he-

15. 2009ko EGE Memoria.5.7. Zer eskaintzen die Kutxak bere langileei. A. Soldata politika.

16. 2009ko EGE Memoria. EGEn kudeaketa Kutxan. 3.4. atala.

17. Organigrama ikusi.

18. 2009ko EGE Memoria. Sozietatea. [https://www.kutxa.net/wkn\\_corporativo/2010/memoria\\_RSE/es/sociedad.htm](https://www.kutxa.net/wkn_corporativo/2010/memoria_RSE/es/sociedad.htm)

19. 2010eko EGE Memoria. Konpromisoak, xedeak eta langileriarekin hobetzeko arloak. 57. orrialdea.

20. 2010eko EGE Memoria. C atala. Berdintasuna sustatzeko programak. 49. orrialdea.

21. 2010eko EGE Memoria. 5. Konpromisoa: Langileria osatzen duten pertsonentzako aukera-berdintasuna. 47. orrialdea.





lburu. Vital Kutxaren 2010eko Gizarte Erantzukizuneko Memorian emandako informazioan, kanpaina bakoitzaren deskripzio labur bat jaso da, baina ez dago kanpaina horiek 12. Konpromisoa betetzen nola laguntzen duten adierazten duen daturik, ez kuantitatiborik ez kualitatiborik<sup>22</sup>. Gizarte Ekintzan ez da

aurkitu genero-berdintasunarekin lotutako inolako jarduera-lerrorik, ezta kudeatutako funtsekin lotutako genero-adierazlerik ere<sup>23</sup>.

22. Vital Kutxa Gizarlean. 12. Konpromisoa. Aukera-berdintasuna sustatzea. 76. orrialdea.

23. Vital Kutxa Gizarlean. Gizarte Ekintzek eta Vital Kutxa Fundazioak kudeatutako 2010eko funtsen xehetasunak. 64. orrialdea. [http://www3.cajavital.es/pdf/inversores/mem\\_rs\\_10\\_c\\_10.pdf](http://www3.cajavital.es/pdf/inversores/mem_rs_10_c_10.pdf)

# Antolamendu egitura

## 01.3 Gizarte Ekintza



Hiru kutzak beren etekinaren %25 baino gehiago ari dira gizarte-ekintzara bideratzen. Azterlan honen helburua ez da erakunde bakoitzaren gizarte-ekintzaren kalitatea ebaluatzea, baina erakunde bakoitzak ezagutzera eman duen informazioak ikusiz ondoriozta daiteke BBK dela gizarte-ekintzarekin lotutako alderdiak azaltzerakoan gardentasuna eta gizartearen parte-hartzea lortzeko ahalegin handienak egin dituen erakundea. Hala ere, esan daiteke finantza-erakundeek beren Gizarte Ekintzaren birtatez gizarte-eragileren ahaleginaren zati bat itzultzeko egin dituzten ahalegin guztiak lausotzen ari direla, eratu zirenean zuten zereginetik aldenduz joan baitira. Erakunde horiek herrialde txiroetako nahiz gure herrialdeko giza eskubideetan edo ingurumenean eragina duten enpresetan dituzten parte-hartzeak, paradisu fiskaletan sozietateak izateak, armamentuaren industriaren dituzten parte-hartzeak edo alderdi politikoen finantzaketa posibleak eragin negatiboak dituzte, eta eragin negatibo horiek beren gizarte-ekintzaren eragin positiboak baino handiagoak dira.

### BBK

BBKren 2010eko EGE Memoriaren arabera gizarte-ekintza da bere existentziaren arrazoi nagusia. BBKk 2009ko ekitaldian 288,7 milioi euro irabazi zituen<sup>24</sup>. 2010ean 2009ko emaitzaren %28,9 bideratu zuen gizarte-ekintzara, 83,5 milioi euro guztira. Gainerakoa erreserba boluntarioetarako izan zen. Gizarte-ekintzaren banaketari dagokionez, 'Gizarte Laguntza' izan zen baliabide gehien jaso zituena (%52). Ondoren, 'Kultura' eta 'Aisia' izan ziren gehien jaso zutenak (bakoitzak %18), 'Hezkuntzak' %8 jaso zuen, 'Ikerketa eta Garapenak' %3, 'Ingurumenak' %1 eta 'Osasun-arloak' %0,2<sup>25</sup>.

BBKk bere gizarte-ekintza zein esparrutara bideratu eta aurrekontua nola banatu erabakitzeko irizpideak barrukoak dira. Ez du bezeroek edo gizarteak parte hartzeko mekanismorik barne hartzen.

>>


24. Enpresaren Gizarte Erantzukizuneko 2010eko Memoria. Informazio ekonomiko eta finantzarioa. Emaitzen analisia. <https://portal.bbk.es/bbkportal/memoriabbk2010/es/financiero/infor.html> 2011ko uztailaren 11n bisitatutako orrialdea

25. Enpresaren Gizarte Erantzukizuneko 2010eko Memoria. Gizarte Ekintza. Daturik garrantzitsuenak. Balantze ekonomikoa. <https://portal.bbk.es/bbkportal/memoriabbk2010/es/obra/datos.html> 2011ko uztailaren 11n bisitatutako orrialdea




1. grafikoa BBKren 2010eko Gizarte Ekintzaren banaketa

**BBK**




2. grafikoa Kutxaren 2010eko Gizarte Ekintzaren banaketa

**KUTXA**



3. grafikoa Vital Kutxaren 2010eko Gizarte Ekintzaren banaketa

**CAJA VITAL KUTXA**



## KUTXA

2009ko EGE Memoriaren arabera, Kutxak 103,2 milioi euro irabazi zituen<sup>26</sup>, eta mozkin horien 29,9 milioi euro bideratu zituen<sup>27</sup> 2010eko gizarte-ekintzara, %28,9, hain zuzen. ‘Sanitate-arloa’ izan zen baliabide gehien jaso zituen arloetako bat (%45). Ondoren, ‘Kultura’ (%14) eta ‘Hezkuntza’ (%11) izan ziren gehien jaso zutenak, ‘Ikerketak’ %10 jaso zuen, ‘Ingurumenak’ %6 eta ‘Gizarte-laguntzak’ gainerako %5a<sup>28</sup>.

2007ko EGE Memoriaren arabera, Kutxak Gipuzkoako gizarte-erakundearen gizarte-ekintzaren gaineko erabakiak hartzeko boterea ematen dio. Herritarrei Kutxaren gizarte-ekintzari buruz duten iritzien inguruko azterlan baten bidez kontsultatzen zaie: “Gizartearen Ahotsa” azterlanak 2000. urtean herritarren egungo eta etorkizuneko beharrei eta itxaropenei buruzko informazioa jaso zuen. Prozesua modu zabalean gauzatzen da, hirurtekoka, eta modu sinplifikatuan urtero, gizarte-ekintzaren arloko epe luzerako plangintza- eta kudeaketa-prozesurako informazioa emateko. Gizarte-ekintzaren epe luzerako plangintzarekin bat etorritik, gizarte-ekintza bakoitzak bere urteko kudeaketa-plan propioa egiten du, eta, funtsean, erabiltzaileen edota onuradunen gogobetetasunaren emaitzak kontuan hartzen ditu hobekuntza-helburuak ezartzeko<sup>29</sup>. Azkeneko “Gizartearen Ahotsa” azterlanak 2010eko ekainean egin zen, 1.200 gipuzkoar lagin gisa hartuz (bezeroak eta bezeroak ez diren pertsonak)<sup>30</sup>. Iraunkortasun Batzordea da interes-taldeekiko elkarrikeria- eta informazio-bideen eraginkortasuna zaintzeaz arduratzen den erakundea, Gizarte Ekintza eta EGE, Giza Baliabideak, Jarduera, Marketina, Inbertsio Korporatiboa eta Kalitatea ataletako zuzendariek eta Idazkaritza Nagusiak osatzen dute<sup>31</sup>.

Ikerketa honen helburua ez zen erakundearen Gizarte Ekintza zalantzan jartzea, baina egokitzat jo da Gizarte Ekintzek txirotasunaren kontra borrokatzeko egiten duten lana analizatzea. Horri buruzko informazioa hemen aurki daiteke: [http://www.setem.org/media/pdfs/EuskalAurrezkiKutxak\\_luzea.pdf](http://www.setem.org/media/pdfs/EuskalAurrezkiKutxak_luzea.pdf)

26. 2009ko EGE Memoria. Gizarte. Kutxako Gizarte Ekintzaren zeregina. [https://www.kutxa.net/wkn\\_corporativo/2010/memoria\\_RSE/es/sociedad.htm](https://www.kutxa.net/wkn_corporativo/2010/memoria_RSE/es/sociedad.htm).

27. 2010eko EGE Memoria. 7.2. Kutxaren Gizarte Ekintza zifratan. 47. orrialdea.

28. 2010eko EGE Memoria. 7.2. Kutxaren Gizarte Ekintza zifratan. 48. orrialdea.

29. 2007ko EGE Memoria. Gizarte. [https://www.kutxa.net/wkn\\_entidadfinanciera\\_new/es/responsabilidad\\_social/responsabilidad\\_sociedad01.htm](https://www.kutxa.net/wkn_entidadfinanciera_new/es/responsabilidad_social/responsabilidad_sociedad01.htm).

30. 2010eko EGE Memoria. 7.4. Jarduera herritarrengana bideratzea. 50. orrialdea.

31. EGEn kudeaketa Kutxan. 3.4. EGEn egitura Kutxan. 4. orrialdea [https://www.kutxa.net/wkn\\_entidadfinanciera\\_new/es/responsabilidad\\_social/pdf/gee\\_kudeaketa.pdf](https://www.kutxa.net/wkn_entidadfinanciera_new/es/responsabilidad_social/pdf/gee_kudeaketa.pdf)

32. 2009ko urteko kontuen txostena. [http://www3.cajavital.es/pdf/inversores/cuentas\\_09.pdf](http://www3.cajavital.es/pdf/inversores/cuentas_09.pdf) 4. orrialdea

33. Enpresaren Gizarte Erantzukizuneko 2010eko Memoria. Vital Kutxaren profila. [http://www3.cajavital.es/pdf/inversores/mem\\_rs\\_10\\_c\\_5.pdf](http://www3.cajavital.es/pdf/inversores/mem_rs_10_c_5.pdf) 2. orrialdea

34. Enpresaren Gizarte Erantzukizuneko 2010eko Memoria. Vital Kutxa Gizartearen. [http://www3.cajavital.es/pdf/inversores/mem\\_rs\\_10\\_c\\_10.pdf](http://www3.cajavital.es/pdf/inversores/mem_rs_10_c_10.pdf) 65. orrialdea

35. Vital Kutxa Fundazioa <http://www2.cajavital.es/fundaciones.asp>

36. [http://www.cotizalia.com/cache/2008/03/24/76\\_agujero\\_cajas\\_llega\\_resultados\\_deterioro\\_activos.html](http://www.cotizalia.com/cache/2008/03/24/76_agujero_cajas_llega_resultados_deterioro_activos.html) 2011ko abuztuaren 2an ikusitako orrialdea.

## CAJA VITAL KUTXA

2009ko Urteko Kontuen txostenaren arabera, Vital Kutxak 66,9 milioi euro<sup>32</sup> irabazi zituen urte hartan, eta mozkin horien 18,4 milioi euro bideratu zituen<sup>33</sup> 2010eko Gizarte Ekintzara, %27,5, hain zuzen. ‘Gizarte- eta Osasun-laguntza’ izan zen baliabide gehien jaso zituen arloa (%34). Ondoren, ‘Kultura eta Aisia’ izan ziren gehien jaso zutenak (%30), ‘Ondare Historikoa eta Ingurumena’ arloak %19 jaso zuen, eta ‘Hezkuntza eta Ikerketa’ arloak gainerako %17a jaso zuen<sup>34</sup>.

Gizarte Ekintzaren arloko agintaritzak eta administrazioa Erakundearen Gizarte Ekintza Batzordeari dagokio. Erakunde hori da baliabideen esleipenaz arduratzen dena eta Kutxaren Administrazio Kontseiluko kideek osatzen dute<sup>35</sup>. 2010eko EGE Memoriaren arabera, gizartearen eskaerak ezagutzeko eta behar horiei Gizarte Ekintzaren bitartez erantzuteko, Vital Kutxak kontsultak egiten dizkie bezeroei, erabiltzaileei, Gizarte Ekintzaren barruko elkarte eta kolektiboetako kideei eta kutxaren interes-taldearen ordezkariari. Horrez gain, bulegoetako langileek eskaeretako asko Gizarte Ekintza sailera bideratze dituzte. Horrez gain, Marketin unitatek kutxaren bezeroei kontsultak egiten zaizkie, eta erakundearen konpromisoa sozietatearen beharrek baloratzen da. Ez da zehazten nola gauzatzen diren kontsultak horiek, ezta baliabideak lortutako emaitzen arabera esleitzeko erabilitako metodologia ere<sup>36</sup>. ■





# 02

Merkatuaren  
egoera eta  
krisiaren  
egoera





# Merkatuaren egoera eta krisiaren egoera



Hiru kutxetan lortu diren emaitzak ikusirik ondoriozta daiteke beren mozkinetan BBKk %10eko eta Vital Kutxak %40tik gorako beherakada jasan dutela aurreko urtearekin alderatuta, Murrizketa horiek Aktibo Finantzarioak, gainerako aktiboak eta hornidurak hondatu direlako gertatu dira. Kasu honetan, BBKk 251,2 milioi, Kutxak 204,7 milioi eta Vital Kutxak 49,3 milioi euro galdu dituzte. 2010ean hiru erakundeek galera horiek ordaindu behar izan ez balituzte lortuko zuketzen irabaziaren kopuru osoa ikusirik, aplikazio horrek BBKren kasuan irabaziak erdira murriztea eragin duela ikusiko dugu. Kutxari hiru laurden murriztu zaizkio eta Vital Kutxari %60. Kutxek eman duten informazioaren arabera, zuzkidura horiek exijitutakoa baino gehiago dira, eta egungo krisia kudeatzeko zuhurtasunarekin dago

lotuta. Hala ere, garrantzitsua da argi eta garbi definitzea zer esan nahi duten aktibo finantzarioak hondatzearen ondoriozko Galerak aipatzen ari garen kopuruetan aplikatzeak. Espainiako Bankuaren 4/2004 Zirkularraren arabera, galera horiek aplikatzen dira “zor-instrumentuak hondatu diren froga objektiboak daudenean, zorra ordezkatzeko kredituak eta baloreak direla ulertuta, hasieran antzeman ondoren, gertakizun bat edo gehiago gertatzen direnean eta horrek eragin negatiboa daukanean haien etorkizuneko diru-fluxuetan”<sup>37</sup>. ■

37. [http://www.cotizalia.com/cache/2008/03/24/76\\_agujero\\_cajas\\_llega\\_resultados\\_deterioro\\_activos.html](http://www.cotizalia.com/cache/2008/03/24/76_agujero_cajas_llega_resultados_deterioro_activos.html) 2011ko abuztuaren 2an ikusitako orrialdea.



# 03

Nazioarteko  
hitzarmenak  
eta EGE

# Nazioarteko hitzarmenak eta EGE

## 03.1 Munduko Ituna



EGEaren definizio formala kontuan hartuz, euskal aurrezki kutxek nazioarteko jokabide-koderik garrantzitsuenetatik eratorritako printzipioen aplikazio maila altua dute. Hirurak Munduko Itunera atxiki dira, eta beren urteroko aurrerapenen txostenak egiten dituzte.

Munduko Itunaren Bilakaerari buruzko Txostenetan urtero jasotzen dira enpresa bakoitzak printzipio bakoitzarekin lotuta sortzen dituen eraginak, diagnostikoa, politikak eta ekintzak. Ondoren, azterlan honen xede izan diren kutxek beren Garapen Txostenen arabera printzipio bakoitza sustatzeko erabiltzen dituzten mekanismo batzuk jaso dira.

### 1. Giza Eskubideak



BBKk Kudeaketa Etikoko eta Gizarte Erantzukizuneko politika bat dauka, baita Enpresako Gizarte Erantzukizuneko kode bat ere. Gainera, bere jarduerak Europar Batasunaren EGE21 arauan oinarritutako Gizarte Kudeaketa Erantzulerako Sistemari oinarri-

tuz kudeatzen ditu. Horrez gain, Global Reporting Initiative-ren (GRI) estandarren arabera Iraunkortasun Memoria bat aurkezten du urtero, eta AENOR erakundeak ziurtatzen du. Aipatutako memorian, enpresako gizarte erantzukizunaren (EGE) arloan gauzatu diren ekintza guztiak zerrendatu dira, baita beren kudeaketa sistemaren ziurtagiriak ere; horiek honakoak barne hartzen dituzte: Kalitate ziurtagiriak BBK Gazte Lanbidearen autoenplegu, laneratze eta prestakuntza zerbitzuetarako eta ingurumenaren kudeaketa sistemarako (eraikin batzuetan) ISO 9001 arauaren arabera eta EMAS ziurtagiri europarra. Gai horretan, ondorengo ziurtagiri hauek dauzkate Finantza Jarduerarako: Foretika EGE 21 Ziurtapena, Gizarte Erantzukizunari eta Etikari buruzko Arauarena, UNE 165001 "Tresna Etikoa" Ziurtagiria BBKren Garapen Solidariorako, Laneko Arriskuen eta Prebentzioaren Ziurtagiria, OHSAS 18001 Finantza Jarduerarako eta Gizarte Ekintzako zentro guztietarako.

Hala ere, ziurtagiri horien guztien eraginkortasuna eta fidagarritasuna mugatuak dira; izan ere, BBKren memoriak nazioarteko estandarren arabera egiten direla bermatzeaz arduratzen dira, besterik gabe, eta, gehienez jota, horien edukiak egiazkoak direla ziurtatzen du. Baina kanpoan uzten dute beren parte-hartzea duten enpresek edo enpresa bezeroei finan-



## MUNDUKO ITUNAREN HAMAR PRINTZIPIOAK

### Giza Eskubideak:

1. Enpresek unibertaski baliozkotzat jotzen diren giza eskubideak babestu eta errespetatu behar dituzte beren eragin-esparruaren barruan.
2. Enpresek ziurtatu behar dute beren enpresak ez direla giza eskubideen urraketa konplize.

### Lan-arloko Estandarrak:

3. Enpresek Elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiborako eskubidearen aintzatespena babestu behar dituzte.
4. Enpresek derrigorrezko lan oro edo behartuta gauzatutako lana desagerraraztea babestu behar dute.
5. Enpresek haurren lana desagerraraztea babestu behar dute.
6. Enpresek laneko diskriminazio-jarduerak ezeztatzea babestu behar dute.

### Ingurumena:

7. Enpresek ingurumenerako mesedegarria den ikuspegi prebentiboa izan beharko dute.
8. Enpresek ingurumen-erantzukizun handiagoa bultzatzen duten ekimenak sustatu beharko dituzte.
9. Enpresek ingurumena babesten duten teknologiak garatu eta hedatzea sustatu behar dute.

### Ustelkeriaren kontra:

10. Enpresek ustelkeria ororen kontra lan egin behar dute, baita estortsioaren eta eroskeriaren aurka ere.

tzatutako proiektuek giza eskubideak eta ingurumena errespetatzea, eta horiek, agian, beren gizarte erantzukizuna ebaluatzeko gairik garrantzitsuenak dira.

Gai horien harira, BBKk bere erosketen barne-araudia bere hornitzaile guztiei aplikatzen die<sup>38</sup>, hau da, indarrean dagoen legeria betetzea exijitzen du, baita gizarte- eta ingurumen-baldintza batzuk ere. Baldintza horiek betetzen direla bermatzeko, hornitzaileak ebaluatu eta hautatzeko prozedura bat ezarri eta orokortu du, eta BBKren EGE Kodean jasotako alderdiak barne hartzen ditu. Gainera, "Hornitzaileen Urteroko Ebaluazioa" egiten du, hornitzaile nagusiei bidalitako galdetegi baten bitartez (bertan egiaztatzen da, adibidez, hornitzaileen %14,5ek soilik dute la ingurumenaren arloko ziurtagiria). Eta Konpromiso Etiko bat barne hartzen du kontratazioetan; hori dela eta, kasuan kasuko hornitzaileak adierazi behar du "badakiela zein diren Munduko Itunaren Printzipioak eta indarrean dagoen eta bere jarduerari aplikatzen zaien legeria betetzen duela adierazten du, eragina baitauka BBKri hornitzen dion produktu edo zerbitzuan. Horren adierazle gisa, BBKri gai-

tasuna ematen dio egokia bada dokumentuen bidez ziurtatzeko baldintza horiek betetzen dituela".

BBKk ez du zehazten zein mekanismo dauden Kode Etikoa betetzen dela ziurtatzeko, hornitzaileek galdetegiari ematen dioten erantzunaz gain. Hori dela eta, beren fidagarritasuna zalantzan geratzen da, ez baita diseinatu inolako kontrol- eta egiaztapen-mekanismorik.

Bere Garapen Txostenean Hirugarren Sektorereko eta Ekonomia Sozialeko enpresei egindako erosketak areagotu nahi dituela aipatzen du, baina momentuz ekonomia sozialeko hornitzaileen %4,75ekoa da.

### ➔ KUTXA

Kutzaren EGE memoriak ez dauka Garapenaren Txostenen formatu espezifikorik, baina GRI (Global Reporting Initiative) metodologian oinarritzen da, 2006ko G3 bertsioan, erabilitako adierazleei dagokienez. Memoria horretan jasotzen da erakundeak >>

38. Enpresa hornitzaile bat da beste enpresa bati produktuak edo zerbitzuak hornitzen dizkiona.



balore korporatibo batzuetan oinarrituz jardun nahi duela; horien artean, besteak beste aipatzekoak dira etikaren aldeko konpromisoa eta kudeaketa zuhurra, derrigorrezko konpromisoen eta konpromiso boluntarioen (adibidez, EGEa) aplikazioan gauzatzen dena.

Eta gainera, Iraunkortasun Batzorde bat dauka, EGEari zeharkakotasun handiagoa emateko. Batzordea Atal edo Departamentu hauetako zuzendariak osatzen dute: Atal Soziala eta Komunikazioa, Marketinga, Giza Baliabideak, Eragiketak, Kalitatea, Inbertsio Korporatiboak eta Idazkaritza Nagusia, eta EGE-ren arduradunak koordinatzen du. Batzorde hori Zuzendaritzaren kontsulta-organoa da, eta Gizarte Erantzukizuneko Politikarekin eta EGE Kodearekin lotutako zereginak betetzea du helburu. Egiteko hauek ditu, besteak beste: Kudeaketa Etikarako Sistema zehaztu, ezarri eta mantentzea behartzea; kutzaren EGE Kudeaketa Sistema plan estrategikoetan eta urteko kudeaketa-planetan barne hartzea; hornitzaileek kudeaketa-sisteman kutzaren konpromisoa eta baloreetarako atxikipen-politikak barne hartzea; eta iraunkortasunarekin lotutako finantza-zerbitzuak eta -produktuak mantendu eta sustatzea.

Kutxa da enfasi handienarekin zehazten duena “Kudeaketa Etikaren Sistemaren irismenak erakundeak Aurrezki Kutxa gisa gauzatzen duen finantza-jardura barne hartzen duela”. Gainera, barneko kontroleko planak bere parte-hartzea duten sozietateak barne hartzen dituela ohartarazten du, eta Erakundearen oinarritzko helburuak eta ikuspegia lortzeko eta elkarren garapenerako mesedegarriak diren enpresa-proiektuetan parte hartzea baloratzen da.

Enpresa hornitzaileek Giza Eskubideak errespetatzeari dagokionez, Kutxak horiekiko zaurgarriagoak diren zerbitzu azpikontratatuak gainbegiratzen ditu, adibidez, segurtasuna, baita erosketa-bolumenaren ondorioz garrantzitsuak direnak ere. Gainera, “iraunkortasunaren harira hornitzaileekin lotutako trakzio prozesu” bat martxan dauka, ebaluazio-sistema batean oinarritzen da, hainbat irizpide ditu, adibidez, legezketasuna betetzen dituela eta kanpoko ikuskapenak jasotzeko prest dagoela ziurtatzeko adierazpena sinatzea, ingurumen-alderdiak, alderdi sozialak eta abar, baita EGE memoriak argitaratzea, Munduko Ituna, kodeak, etab. ere. (2009ra arte 180 hornitzaile ebaluatu ziren 225eko lagin batetik). Gainera, hornitzaile guztiek derrigorrez izenpetu behar dute laneko harremanen, gizarte-segurantzaren, zergen, ingurumenaren eta araudi orokorren arloan

indarrean dauden lege-xedapen guztiak betetzen dituztela ziurtatzen duen legezko adierazpen bat.

Zentzu horretan azpimarratzekoa da EGE politika zeharkakoa izateko eta horrela erakundearen jardura orokorra definitzeko ahalegina. Baina aldi berean esan dezakegu, lehen esan dugun bezala, dirudienez giza eskubideak errespetatzea eta produktu etiko batzuk izatea nahasten direla. Beharbada, Kutxak bere buruari galdetu beharko lioke zertarako balio duen kreditu etiko bat izateak aldi berean beste enpresa batzuetan parte hartzen bada eta horiek giza eskubideetan eragin negatiboak badituzte (4. atalean egiaztatu ahal da).

## ➔ CAJA VITAL KUTXA

Vital Kutxak Giza Eskubideen babes GRI estandarrean oinarritutako Erantzukizun Sozial Korporatiboaren (ESK) Kudeaketa Sistemaren bitartez kudeatzen da. Gainera, hainbat esparrutan eraginak eta arriskuak identifikatzeko lana ere egiten du (giza eskubideak barne).

Bestalde, Munduko Ituneko printzipioak zeharka aplikatzen saiatzen dira, arlo eta sail guztiek horien arabera funtzionatzeko. Bere garapenaren Txostenean, Gizarte Ekintzak garatutako programak ere azpimarratzen ditu, adibidez, gazteek etxebizitzak lortzeko programa bat eta finantza-zerbitzuak eskuratzeko zailtasunak dituzten atzerritarrentzako beste zerbitzu berezi batzuk. Aipatu beharra dago proiektu horiek ziurrenik beren onuradunen bizibaldintzak hobetzen ari direla; baina, halere, ematen du kutxak bere ongintzako proiektuetan enfasi handiagoa jarri nahi duelako sartzen dituela Garapenaren Txostenean, baina ez dira aipatzen giza eskubideetarako arriskutsuak izan daitezkeen zuzeneko edo zeharkako jarduerak, hau da, gizarte-ekintzako proiektuak izate hutsagatik giza eskubideak bermatzen dituztela sinetsarazi nahi dute.

Azkenik, azpimarratzekoa da BBK bezala Vital Kutxak ere kanpoko ziurtapen-sistema bat duela —AENOR erakundeak jaulkitzen du GRIren arabera, haren G3 bertsioan—, eta horrela bermatzen du eskaintako informazioa egiazkoa dela eta metodologia bete dela, baina ez du ebaluatzen barne hartutako informazio guztia barne hartu beharko litzakeen guztia den ala ez.



Vital Kutxak ez dauka diagnostikorik bere hornikuntza-kateko arriskuei buruz (hornitzaileak, azpikontratatuak enpresak, etab.). Nolanahi ere, hornitzaileei exijitzen zaion Munduko Itunaren eta LANEren Hitzarmenen printzipioen arabeko kode etiko bat dauka. Kode horrek hainbat gai barne hartzen ditu, hala nola, laneko eta gizarte segurantzaren araudia betetzea, laneko arriskuak prebenitzeko arauak eta ingurumen-osasunekoak errespetatzea, eta arau horiek hautsi izanagatik prozesu judizial edo administratiborik irekita ez izatea.

Era berean, garapenaren txostenean barne hartzen du inbertitzen duen enpresen hautaketa-prozesuan kontuan hartzeko alderdi positibo posibleen eta arrazoi salbuesle potentzialen analisi bat sartu nahi duela. Hori egin nahi duela adierazteak esan nahi du oraindik salbuespen-irizpide horiek ez dituela aplikatzen bere parte-hartzea duten proiektuetan giza eskubideak edo ingurumena errespetatzean eta antzeko alderdietan oinarrituz.

## 2. Lan-arloko Estandarrak:

### ➔ **BBK**

BBK indarrean dagoen legeria aplikatzen du espainiar estatuaren lurraldearen barruan, eta horrek elkartzeko eta sindikatuetan parte hartzeko askatasuna errespetatzea eskatzen du, eta 2008an sinatutako hitzarmen kolektibo bat dauka. Hitzarmen horrek (Finantza Jardueran nahiz Gizarte Ekintzan) lan-baldintzak egokiak bermatzen ditu. Gainera, Berdintasun Batzorde bat dago, arazoak ebazteko eta bizitza pertsonala eta profesionala bateratzeko neurriak sustatzeko. Baina dokumentu bakar batean ere ez da zehazten zein den batzorde horren osaketa, ezta zein funtzio eta zeregin dauzkan ere, eta horrek sinesgarritasuna eta jarduteko gaitasuna kentzen dizkio.

Azkenik, haurren lanari dagokionez, BBK bere jarduera guztiak espainiar estatuko lurraldean gauzatu ditu, eta, ondorioz, laneko eskubideekin lotuta

indarrean dagoen legeria aplikatzen du; beraz, ezin du haurren eskulana ustiatu, lan egiteko legezko adina duten pertsonak soilik kontratatu ahal ditu eta.

### ➔ **KUTXA**

Kutxak<sup>39</sup> bere EGE memorian onartzen du “benetan onartzen duela negoziazio kolektiborako eskubidea, langileen lan-baldintzekin lotutako alderdi nagusiak finkatzeko”. Gainera, Kutxaren langileek sindikatuetan elkartzeko askatasuna dutela bermatzen du eta langileen ordezkariari espazio fisikoak ematen dizkie beren sindikatu-jardueretarako.

Kutxak zentro guztietan lan-baldintza duinak eta osasungarriak dauzkatela ziurtatzen du, baita helburu horrekin Laneko Arriskuen Prebentziorako Sail bat dagoela ere. Gainera, Kutxak langile guztiei laneko hitzarmenaren arabera dagozkien oporrak izateko aukera ematen die, eta egin beharreko lanorduen arrazoizko mugaketa bat ezartzen dute.

Beste kutxen ildo beretik, Kutxak ohartarazten du bere jarduera bereziki espainiar lurraldean gauzatu dela kontuan hartuz kutxak laneko araudia betetzen duela haurren ustiapenari, derrigorrezko lanari edo ez baimenduari dagokionez, eta, ondorioz, “ez dela zuzenean derrigorrezko eskulana edo haurren eskulana erabiltzen ziurtatzen da”. Baina horrek ez du esan nahi eskubide horiek bere hornitzaileetan edo parte hartutako enpresetan eta haien filialetan bermatuta daudenik.

### ➔ **CAJA VITAL KUTXA**

Vital Kutxaren langileen %99,74 Erakundearen Hitzarmen Kolektiboaren eta Estatuaren babespean daude, eta barruko araudiek langileek Erakundearen gobernu-organoetan duten parte-hartzea arautzen dute.

Gainera, Vital Kutxaren enpresa-jarduera eta jarduera soziala Estatuko eta Euskal Autonomia >>

39. Kutxak ez dauka Munduko Itunaren Garapenaren Txosten espezifiko bat, baina EGEn txostenaren atal bat hamar jarduera-oinarriak betetzen dituela frogatzeko erabiltzen du.



Erkidegoko legezko esparruaren barruan gauzatzen da. Hau da, koherentea da unibertsalki onartzen diren eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalarekin eta LANE Hitzarmenekin bat datozen laneko giza eskubideekin lotutako irizpideekin, eta, beraz, eragotzi egiten du derrigorrezko edo behartutako eskulana erabiltzea.

Haurren eskulanari dagokionez, BBKren kasuan bezala, Vital Kutxak jarduera guztiak espainiar estatuan gauzatzen ditu; hortaz, laneko eskubideen esparruan indarrean dagoen legeria aplikatzen zaio, eta, ondorioz, ezin du haurren eskulanik erabili. Nolanahi ere, “hornikuntza-katearen bidez zeharkako balizko arriskua” dagoela onartzen du. Dena den, bere Garapen Txostenean eskubide horren sustapen-jarduera gisa barne hartzen ditu gizarte-ekintzak gauzatzen dituen jarduerak. Vital Kutxaren gizarte-ekintzaren esparru horretan, Gobernu Kanpoko Erakundeekin (GKE) lan egiten da egoerarik txarrean dauden pertsonen kolektiboek laguntzeko, eta, bertan, haurren eskulana desagerrarazteko babesa barne har daiteke.

BBKren kasuan bezala, Vital Kutxak bere bulegoetan laneko estandarrek berma ditzakeela esan daiteke, baina ez du zehazten bere parte-hartzea duten enpresei eta finantzatzen dituen proiektuei eskubide berak errespetatzea exijitzen dien ala ez, ezta zein sistemen bidez egiaztatzen eta kontrolatzen duen ere.

### 3. Ingurumena:

#### BBK

Aipatu dugun bezala, BBKren ingurumen-politika ISO 14.001 arauaren arabera ezarritako Ingurumenaren Kudeaketa Sistemaren oinarritzen da. Zentzu horretan, zenbait neurri hartu ditu, adibidez, uraren eta elektrizitatearen kontsumoa eta hondakinen segregazioa murriztea. Gainera, diru-sarreraren gordinen %1 ingurumenaren arloko sentsibilizazio eta prestakuntza kanpainetara bideratzen da.

Gainera, hainbat konpromiso barne hartzen dira, adibidez, erakundeko kideei prestakuntza eskaintzea ingurumen-arloko kudeaketa sistemei buruz edo sortutako hondakinen behar bezalako kudeaketari buruz,

Ingurumenaren arloko kudeaketaren etengabeko jarraipena egitea eta ingurumena babestea sustatzeko programetan parte hartzea. Eta hornitzaileekin, bezeroekin eta gizarte-eragileekin zentzu horretan lan egiteko beharra barne hartzen du, baina ez du esaten nola egin behar den.

Ingurumenarekin lotutako gastu eta inbertsioen artean, 2009ari dagokionez, ondorengoak gailen daitezke: Inbertsioa hardwarean Aurrezteko Neurrien proiekturako (18.828,54 €), finantza-jardueran ISO 14000 mantentzeko kostua (3.927,67 €), Gizarte Ekintzaren ISO 14001 mantentzeko kostua (1.333,10 €), ingurumeneko ikuskapena eta aholkularitzaren kostua (5.742,00 €), EMAS ziurtagiri europarra mantentzearekin lotutako kostua (980,20 €).

Berriz ere, esan beharra dago neurri horiek bere lan-zentroei soilik eragiten dietela, baina ez dute adierazten finantzatuko diren proiektuekin lotuta Ingurumenaren gaineko Eraginaren Azterlanak egin behar direnik, ezta bere parte-hartzea izango duten enprekin lotuta ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioak egin behar direnik ere.

#### KUTXA

Kuxaren Ingurumen Politika AENOR erakundearen Ingurumenaren Kudeaketa Sistemaren Ziurtagiria lortzeko prozesuko parte-hartzearen bidez definitzen da. Honako jarduera-lerro hauetan oinarritzen da: legezko baldintzak betetzea, ingurumenarekin lotutako lanean hobekuntzak lortzeko helburuak ezartzea, urtero egiaztapen-lanak egitea ezarritako jardunbideak aproposak diren baieztatzeko eta baliabide naturalak eraginkortasunez erabiltzeko, birziklatzeko eta hondakinen kudeaketan murrizketak lortzeko praktikak ezartzea.

Gainera, Kutxak hainbat jarduera gauzatzen ditu gizarte erantzukizuna sustatzeko, adibidez, langileriak ingurumenarekiko jardunbide arduratsuetan aktiboki parte hartzea sustatzea, prestakuntzaren eta sentsibilizazioaren bitartez. Gizarte Ekintzaren bitartez, ingurumenaren arloko sentsibilizazio-programak sustatzea herritarrentzat.

Horrez gain, ingurumena babestea sustatzen duten produktu eta zerbitzu berriak dauzka, eta negozio-



-jardueretan, merkataritzakoetan eta babesarekin lotutakoetan ingurumenaren arloko irizpideak barne hartzeko asmoa dauka. Kutzak instalazioak eta lan egiteko metodoak eguneratzeko lan egiten du, eta, horretarako, aurrerapen teknologikoak barne hartzen ditu. Aldi berean, basoko eremuak babesteko proiektuak, energia berriztagarriak eta energia-eraginkortasunekoak babesten ditu.

Berriz esan dezakegu politikak erakundearen barruko jardueretan kontzentratzen direla, eta ingurumeneko arazoak produktu iraunkor batzuk erabiliz konpondu nahi dituztela. Baina ez dituzte jorratzen iraunkorrak ez diren negozioetako parte-hartzearekin lotutako arazoak.

## CAJA VITAL KUTXA

Vital Kutxa Erakundearen ingurumenaren arloko kudeaketa-lana garrantzitsuak diren parametro nagusien (papera, energia, ura, hondakinak eta isurketa kutsagarriak edo osasunerako kaltegarriak direnak) kontsumoaren neurketan, jarraipenean eta kontrolan oinarritzen da. Gainera, langileak sentsibilizatzea bideratutako ekintzen bidez haien inplikazioa lortzeko lan egiten du.

2009an, ingurumenaren arloko erantzukizun handiago sustatzeko, Vital Kutzak bulegoetako komertzial operatiboen lanpostuak berriz definitzeko, espazio erabilerrazen irizpideetara egokitzeko eta teknologia eraginkor berriekin hornitzeko lantalde bat sortu zuen.

Bestalde, Vital Kutzak inbertsioak egiten ditu bezeroekiko harreman-kanalekin (baliabide elektronikoa, Vitalnet) lotutako garapen teknologikorako, eta bezeroen artean baliabide horiek erabiltzea sustatzen du; horri esker, hainbat jardueratan paper gutxiago kontsumitzea lortzen du. Berriz ere, azpimarratzekoa da gauzatutako ekintzek, ziurrenik, eragin positiboa dutela ingurumenaren babesean, baina arazoa da bulegoetara mugatzen direla, eta ez dutela kontuan hartzen beren lantokietatik kanpoko finantza-jarduerak dutela eragin handiena ingurumenean, hau da, parte hartzen edo finantzatzen diren enpresen bidez gauzatzen dituztenek.

## 4. Ustelkeriaren kontra:

### BBK

Kapitalak zuritzea prebenitzeko, erakundeak neurriak hartzen ditu: printzipio hori babesteko politikak, langileriaren prestakuntza, batzordeak, barruko araudia eta prozedurak. Oro har, BBKk Kapitalak Zuritzea Prebenitzeko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 19/1993 Lege espainiarrean eta 925/1995 Errege-dekretuan aurreikusitako betebeharrak guztiak betetzen ditu.

### KUTXA

Kutzak Barruko Kontroleko eta Ikuskapen sail bat du, eta sail hori arduratzen da kapitalak zuritzea prebenitzeaz. Zehazki, Kutzaren jardura-politika honako alderdi hauetan oinarritzen da: indarrean dauden legeetan ezarritako arauak betetzean, jardura susmagarriak antzemateko prozedura jarraitu batzuetan, eragiketa susmagarriak antzemateko tresna informatiko eraginkor batean, ustelkeriaren kontrako Organismoek jasotako informazio-eskaerak argitzen laguntzean eta Erakundeak bere langileek ustelkeriazko jardueretan parte hartzea ekiditeko eta ustelkeria antzemateko prestakuntza jasotzeko daukan kezkan.

### CAJA VITAL KUTXA

Vital Kutzak Kontrolerako Organoak dauzka jarduerak legeak eta barne-araudia errespetatzen dituztela ziurtatzeko. Gainera, hainbat arau eta prozedura dauzka bere bulegoak kapitalak zuritzeko erabil ez daitezkeen.

Vital Kutzak, era berean, positibotzat jotzen du bere Gobernu Organoetan (Arabako Foru Aldundia eta Gasteizko Udala, baita erakunde fundatzaileak eta Tokiko Erakundeak ere) dauden administrazioekin gai horiei buruz ezarritako elkarrizketa.





**BBKk**, handiena denez eta baliabide gehiago dauzkanez, EBren EGE21 araua jarraitzen du, urtero iraunkortasun-memoria bat egiten du GRI estandarren arabera eta AENOR erakundearen ziurtagapenarekin, bere instalazioetan ingurumenaren arloko kudeaketa-sistema bat dauka, ISO 9001 arauaren araberakoa, eta EMAS ziurtagiri europarra jaso du. Horrez gain, ondorengo ziurtagiri hauek dauzka Finantza Jarduerarako: Gizarte Erantzukizunaren eta Etikaren Forretika EGE 21 Araua, UNE 165001 “Tresna Etikoa” Ziurtagiria BBKren Garapen Solidario-rako, Laneko Arriskuen eta Prebentzioaren Ziurtagiria, OHSAS 18001 Finantza Jarduerako eta Gizarte Ekintzako zentro guztietarako.

Ziurtagiri horien guztien eraginkortasuna eta fidagarritasuna mugatuak dira; izan ere, BBKren memoriak nazioarteko estandarren arabera egiten direla bermatzeaz arduratzen dira, besterik gabe, eta, gehienez jota, horien edukiak egiazkoak direla ziurtatzen du. Baina, aurrekontuarekin lotutako arazoak direla eta, mugatuta daude, ez baitute kontrolatzen giza eskubideak betetzen diren, ezta beren parte-hartzea duten enpresek edo enpresa bezeroei finantzaturako proiektuek giza eskubideak eta ingurumena errespetatzen duten.

Bere EGE memoriaren arabera, **Kutxa** bere EGE politika hornitzaileei eta finantzaturako edo parte hartutako enpresei aplikatzeaz kezkatzen dela eta arlo horretan duen erantzukizuna onartzen duela dirudi. Nolanahi ere, beste kutxetan gertatzen den bezala, ez da zehazten zein diren kutxa giza eskubideen urraketan konplize ez dela ziurtatu beharko luketen mekanismoak.

**Vital Kutxak** Munduko Itunera aurkeztutako Garenaren Txostena ikusirik ondorioztatzen da bere bulegoek laneko eta ingurumenaren arloko estandarrrak betetzen dituztela. Eta, horrez gain, hornikuntza-katearen bidez giza eskubideak urratzeko arriskua barne hartzen du, baita inbertsioak egiterakoan enpresak baztertzeko arrazoi batzuk izateko aukera ere. Baina, asmo on horiek adierazten dituen arren, bere txostenean ez du zehazten galdera-sorta batez gain zein neurri hartzen dituen hornitzaileak fidagarriak direla ziurtatzeko, eta, era berean, ez du zehazten finantzaturako enpresei dagokienez nola barne hartuko den giza eskubideen arriskuen analisisa.



## Nazioarteko hitzarmenak eta EGE

### 03.2 Gizarte- eta Ingurumen-politikei buruzko galdera-sorta



Azterlan honetan, aztertu diren hiru Aurrezki Kutxen lankidetzak izan dugu. Horretarako ad hoc galdera-sorta bat egin dugu, eta, bertan, erakunde horiei beren iritzia eskatzen zaie inbertsioak egitean eta maileguak ematean giza eskubideen kontrol-politiken, gizarte-politiken eta ingurumenaren arlokoen aplikazio-mailari eta existentziari buruz, eta gauzatzen den gizarte ekintzari buruzko xehetasunak ere eskatzen zaizkie. Galdegegia lantzeko, GEK Behatokiak diseinatutakoa erabili dugu oinarri gisa, hau da, “BBVak/Santanderrek Latinoamerikaren garapen iraunkorrerako egindako ekarpena” izenburuko, “Aurrezki Kutxak eta Hegoaldeko garapena” azterlanerako ere egokitu zena.

Galdetegia hiru kutxei bidali zitzaion, eta hirurek erantzun zuten arren, BBK izan da bete duen erakunde bakarra. Erantzunak estekan aurki daitezke. Kutxak eta Vital Kutxak ez dute galdera-sorta erantzun, baina beren EGE memoriak helarazi dizkigute. Hiru erakundeak batu eta Kutxa Bank osatzeko prozesua ebazten ari dela kontuan hartuz, ez dirudi azterlana egiteko unerik aproposena denik, hiru kutxak prozesu horretan murgildurik baitaude. Baina SETEM Hego Haizean uste dugu une egokia dela, azterlan honi esker gogoratuko baitugu zenbat aldendu diren beren eraketako helburuetatik, eta zenbat gehiago urrun daitezkeen bat egitean. Zentzu horretan, harrizkoa da hiru erakundeek beren gizarte-erantzukizun korporatiboari buruzko memorieta gizartearekin duten konpromisoari buruz eta interes-taldekiko elkarriketari

buruz hitz egitea, kontuan hartuz bik ez dietela gure galderei erantzun. Beharbada interes-talde bat zer den definitu behar da?

BBKk erantzun duen galdetegiari dagokionez, berrets dezakegun lehenengo gauza da erakunde gisa partzialki betetzen duela gizartearekin hitz egiteko konpromisoa, ez baitie erantzun gure azterlanerako erabakigarriak diren atalei, adibidez, etxebizitzaren politikaren arloari, eta gai horrek eragin argia dauka euskal gizartean gaur egun. Galdetegiko edukietan sakonduz gero, lehenengo blokean (partikularrentzako eta enpresentzako maileguak eta kredituak), BBKk erantzuten du lan-arloan giza eskubideekin, biodibertsitatearekin, klima-aldaketarekin, gizartearekin eta ingurumena-ekin lotutako irizpideak barne hartzen dituzten politiken bidez ematen direla. Batetik, lan-arloan maileguak emateko politika zehatzak dauzkala adierazten du, eta Hitzarmen Kolektibo propioa aipatzen du, baina Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) Lanaren Nazioarteko Arauek eta LANEren 1998ko Lan-arloko Printzipioen eta Oinarrizko Eskubideen Deklarazioak, besteak beste, arautu beharko lukete lan-arloko maileguak ematea. Galdetegiko edukietan sakonduz gero, lehenengo blokean (partikularrentzako eta enpresentzako maileguak eta kredituak), BBKk erantzuten du lan-arloan giza eskubideekin, biodibertsitatearekin, klima-aldaketarekin, gizartearekin eta ingurumena-ekin lotutako irizpideak barne hartzen dituzten politiken bidez ematen direla. >>



Batetik, lan-arloan maileguak emateko politika zehatzak dauzkala adierazten du, eta Hitzarmen Kolektibo propioa aipatzen du, baina Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) Lanaren Nazioarteko Arauek eta LANEren 1998ko Lan-arloko Printzipioen eta Oinarriko Eskubideen Deklarazioak, besteak beste, arautu beharko lukete lan-arloko maileguak ematea.

Mailegu-eragiketetan giza eskubideak betetzea ez da bermatzen Munduko Itunaren Garapenaren Txostenaren bidez, bertan Enpresaren Gizarte Erantzukizunaren atalera berbideratzen baita (bertan aurki daitezke EGE Politikaren eta EGE Kodearen agirietara, eta deklarazio hutsak dira). Eta Nazio Batuen Munduko Ituna sinatzeak ere ez du bermatzen, printzipio boluntarioen zerrenda bat baita, berriro ere. Zentzu horretan, garrantzitsua da azpimarratzea nobedade gisa 2010eko Iraunkortasun Memorian FS11 “gizarte eta ingurumen screening” bat daukala adierazten duela<sup>40</sup>. Galdetegian kreditu-artekaritzan sartzan duten arren, horrekin lotutako informazioa ikusiz egiaztatzen da bere jardura-irizpide positiboak eta negatiboak sozietateetako parte-hartzeetara bideratuta daudela. Screening horretan, BBKk inbertsioak egiteko enpresak hautatzeko prozesu bat dauka. Prozesu horretan, GEKren alde positiboak nahiz erabakiak hartzerakoan aintzat hartzen diren arrazoi baztertzailerak aplikatzen dira.

Gizarte Erantzukizun korporatiboaren ikuspuntutik positiboki baloratzen diren alderdiak ondorengoak dira: GEKren esparruan ziurtatutako enpresak; ingurumenean eragin positiboak dauzkaten sektoreak (energia berriztagarriak, etab.); garapenerako lagungarriak diren faktoreak (sortzen duen enplegua; enpresak beste enpresa batzuk erakartzeko duen gaitasuna eta trakzio gaitasuna eta eremu narriatu bateko ezarpena).

Parte hartzeko aukera baztertzeko arrazoi gisa honakoak jaso dira: langileen oinarriko eskubideak errespetatzen ez diren seinaleak dituzten enpresak izatea; ingurumenaren arloan indarrean dauden arauak urratzen dituzten jarduerak gauzatzea; Giza Eskubideak errespetatzen ez diren herrialdeetan ekoizitako produktuak inportatzen dituztelako susmoa pizten duten jarduerak gauzatzea eta gerran dauden herrialdeei armamentua edota lehergailuak saltzeko jarduerak espezifikoki gauzatzea.

Zentzu horretan, esan dugun bezala, aurrerapauso bat da screening sistema hori izatea, baina ez dago horrekin lotutako datuen xehetasun gehiago. Eta, ondorioz, printzipio-adierazpen huts bat bezala geratzen da, ez baita zehazten zein aplikazio-protokolo jarraitzen di-

ren eta zenbat kreditu-jarduerak edo enpresatan parte hartzea edo baztertzearabaki den irizpide horiek aplikatzeagatik.

BBK gizartetik baztertua geratzeko arriskuan dauden kolektiboekin politika aktiboa izaten ari da. Etxebizitzaren arloko Politikari dagokionez, ostera, ez du inolako informaziorik eman kudeatutako hipoteka kopuruari, errenta baxuak dauzkaten familientzako hipotekei, berriro negoziatu direnei, betearazi direnei eta egin diren kaleratzeei buruz.

Garrantzitsua da azpimarratzea aktiboen kudeaketan BBKk BBK Solidarioa I.F. Inbertsio Funtserako ideia etikoaren multzo bat daukala garatuta. Funtsak, gainera, lehen aipatutako screening sistema barne hartzen du. Behar bezala aplika dadin, enpresa kudeatzailearen organo independente bat dauka, Etika Batzordea, hain zuzen. Baina horren harira, azpimarratzekoa da irizpide horiek BBK Solidarioa I.F. Inbertsio Funtsean soilik aplikatzen direla, eta gainerako funtsak kanpoan geratzen direla.

Parte hartutako enpresen gaineko politikak, lehen esan dugun bezala, irizpide barne-hartzaileak etab aztertzailerak barne hartzen dituen screening politika dauka. BBKk bere erabaki-ahalmenaren barruan dauden edo neurri handi batean bere eraginpean dauden enpresei aplikatzen dizkie bere erabaki propioei aplikatzen dizkion alderdiak, hau da, EGEaren alde positiboak nahiz baztertzearabakiak eragiten duten alderdiak.

Erakundeak adierazten du dirua zuritzearekin lotuta barneko kontrol- eta prebentzio-sistema bat daukala. Alderdi politikoen ekarpenen edo maileguen kasuan, gobernu korporatiboaren 2010eko txostenera igortzen du. Azpimarratzekoa da babes finantzarioa ematen diela Euzko Alderdi Jeltzaleari (EAJ), Euskadiko Alderdi Sozialistari (PSE) eta Ezker Batuari maileguen, hauteskundeetarako diru-laguntzen eta abalen bidez. BBKren gizarte ekintzak 2010ean 83,5 milioi euroko gastu garbia izan zuen, eta programa sozialetara (%43), hezkuntza-programetara eta programa zientifikoetara (%35) eta kultura- eta kirol-programetara (%22) bideratu zuen.

Kutzak eta Vital Kutzak ez ziotenez galdetegiari erantzun, beren gizarte erantzukizun korporatiboko memoriak aztertuz eta beren web orrietan eskaintzen duten informazioan oinarrituz saiatu gara bi erakundeen jokabidea analizatzen. Ondorengo atalean aztertutako dugu ea BBKk adierazitakoa bat datorren maila errealean giza eskubideetan eta ingurumenean eragin negatiboa duten enpresetan egiten diren inbertsioetan.

40. <https://portal.bbk.es/bbkportal/memoriabk2010/es/sostenibilidad/enfob.html> 2011ko abuztuaren 4an bisitatutako orrialdea



# 04

Beren jardueren  
kanpoko politikak  
eta proiektzioa





# Beren jardueren kanpoko politikak eta proiektzioa



## 04.1

### Hirugarren enpresen bidez gizartearen eta ingurumenaren gainean dituzten eraginak



Euskal aurrezki kutxek enpresa espainiar transnacionalekin duten lotura erakunde horiek hartu duten norabidearen adierazle da, hau da, espainiar kutxek jarraitu duten ildo beretik, eratu zirenean zuten espiriturik aldentzen ari dira. Zentzu horretan, azpimarratu nahi dugu erakunde horiek ere giza eskubideen urraketaren erantzule direla, etikoak ez diren eta giza eskubideak urra ditzaketen proiektuak dauzkaten enpresak finantzatzen dituztelako edo jarduera horietan akzioen bidez parte hartzen dutelako. Jokabide hori bere printzipioetatik urruntzen da eta kontraesankorra da bere gizarte-ekintzak eragin ditzakeen onurekiko. Frogatuta geratu da aurrezkien kudeaketan gardentasuna urria dela; hortaz, geure buruari galdetzen diogu aurreztaile edo inbertitzaile gisa Hegoaldeko herriak kaltetzea ekidin nahi badugu ea kutxek bankuek baino berme handiagoak eskaintzen dizkiguten.

Kapitulu honetan, aurrezki kutxek, finantza-erakunde gisa, eta enpresa transnacionalen eraginek duten lotura analizatu nahi dugu. Globalizazioko Zorraren Behatokiak, Setemek, Latinoamerikako Multinazionalen Behatokiak (OMAL), Transnational Institute-k (TNI) eta beste erakunde batzuek beren ikerketekin

erakutsi duten bezala, herrialde txiroetan presentzia duten enpresa europar handi gehienek inolako zigorrik jaso gabe jarduten dute, eta lan egiten duten eremuetan etekinak utzi beharrean, gizarte- eta ingurumen-eragin handiak uzten dituzte, hau da, komunitateak lekualdatzen dira, ingurumena narriatzen da, biodibertsitatea galtzen da eta herriek beren subiranotasuna galtzen dute, hau da, berdintasunean oinarrituta ez dagoen garapena sustatzen dute, eta, ondorioz, lankidetzaren kontrako eragiletzat jotzen dira.

Ikuspegi horretatik, enpresa transnacionalak Hegoaldeko herrialde txiroetako eragile erabakigarritzat jotzen dira, eta, ondorioz, lankidetzaren kontrako eragileak direla esan daiteke, bizitza duina eta ingurumen osasungarria izateko eskubidean eragina baitute milioika pertsonaren kasuan.

Azken baieztapen hori Anand Grover-ek, Olivier de Schutter-ek eta Okechukwu Ibeau-k berretsiko luke, besteak beste, hau da, Nazio Batuen osasunaren, elikaduraren eta hondakin toxikoen arloetako kontalari bereziek, hurrenez hurren<sup>41</sup>. Bestalde, Herrien Auzitegi Iraunkorrak<sup>42</sup> 2010ko maiatzean eman zuen

41. Grover, A. (2009ko martxoan) NBen Biltzar Nagusirako Txostena [http://www2.ohchr.org/english/bodies/hrcouncil/docs/11session/A.HRC.11.12\\_en.pdf](http://www2.ohchr.org/english/bodies/hrcouncil/docs/11session/A.HRC.11.12_en.pdf)

De Schutter, O. (2010eko abuztua) NBen Biltzar Nagusirako Txostena

[http://www.srfood.org/images/stories/pdf/officialreports/20101021\\_access-to-land-report\\_es.pdf](http://www.srfood.org/images/stories/pdf/officialreports/20101021_access-to-land-report_es.pdf)

Ibeau, O. (2010eko iraila) NBen Biltzar Nagusirako Txostena [http://www2.ohchr.org/english/bodies/hrcouncil/docs/15session/A.HRC.15.22.Add.1\\_EFS.pdf](http://www2.ohchr.org/english/bodies/hrcouncil/docs/15session/A.HRC.15.22.Add.1_EFS.pdf)

Scheinin, M. (2009ko ekaina) Research project on a world human rights court [http://www.udhr60.ch/report/hrCourt\\_scheinin.pdf](http://www.udhr60.ch/report/hrCourt_scheinin.pdf) 2010eko irailaren 25ean bisitatuak





42. El Tribunal Permanente de los Pueblos (TPP), que depende de la Fundación Lelio Basso, ha llevado a cabo tres sesiones, Viena (2006), Lima (2008) y Madrid (2010) es un tribunal moral. En el TPP se han juzgado los casos presentados por la Red Enlazando Alternativas, que reúne organizaciones a nivel europeo y latinoamericano. Las sentencias de este tribunal tienen carácter moral y su función principal es tratar de juzgar aquellas injusticias que no están teniendo cobertura legal ni a escala estatal ni internacional.

epaiak honakoa dio: “Auzitegi honek berretsi du Europako Enpresa Transnasionalek (ETN) Latinoamerikan sistematikoki urratzen dituztela oinarritzko giza eskubideak (...). Bereziki, espainiar enpresen erantzukizuna aztertu da, Latinoamerikan egiten diren inbertsioen %50 hartzen baitute”. Adierazpen horien bidez, arazoa modu zehatzagoan koka daiteke. Enpresa transnasionalek giza eskubideak sistematikoki urratzen dituzte herrialde txiroetan, eta trans-

nazional espainiarrek ordezkari garrantzitsua dute Latinoamerikan. Globalizazioaren logikarekin jarraituz, transnasionalek espainiar mugez haraindi lan egitea lortzen dute bankuen eta aurrezki kutxen babes finantzarioari esker. Logika hori “Aurrezki kutxak eta hegoaldeko garapena” Txostenean analizatu zen. Eta lan honetan analisi horixe egin dugu, baina hiru euskal kutxen kasuetan kontzentratu gara (BBK, Kutxa eta Vital Kutxa).

### BBKk hirugarren enpresen bidez dituen eraginak

Enpresa	Eragina	Lotura
<i>Repsol-YPF</i>	Biodibertsitatea eta komunitate indigenak suntsitzen ditu Perun	BBKk ez dauka parte-hartzerik enpresa horietan, baina Mario Fernández Pelaz zuzendaria Izendapenen eta Sarien Batzordeko kide da eta Repsol YPFren Kanpoko Kontseilari Independentea da
	Komunitate indigenen gaineko eragina Neuquén-en (Argentina)	
<i>Iberdrola SA</i>	Gezurrezko publizitatea eta zentral nuklearrak (espainiar estatua)	BBK Iberdrolaren bigarren erreferentziako akzioduna da, hau da, %6,84ko zuzeneko parte-hartzea dauka
	La Venta Proiektua: komunitateetako giza eskubideak urratzea. Oaxaca, Mexiko.	
	Pará, Brasil (Xingu ibaia): Belo Monteko Presaren Proiektua: komunitateen giza eskubideak urratzea, Amazoniako oihana suntsitzea, berotegi-efektua duten gasak isurtzea.	
<i>Entabán</i>	Palmoren monolaborantza Malasian	BBKk %56arekin parte hartzen du Entabán, S.A. sozietatean
<i>Petronor Biocarburentes</i>	Ingurumenerako eta osasunerako eragin negatiboak Muskizen, Bizkaian	BBKk Petronorren parte-hartzeen %20 dauka. Gainerako %80a Repsolena da.
<i>Itínere</i>	Biodibertsitatearen suntsipena eta klima-aldaketa	BBK Itínere-ren erreferentziako bazkideetako bat da. Itínere-k bere 2010eko kontu bateratuen harira diogenaren arabera, une honetan (2010eko abenduaren 31n) erreferentziako akziodun gisa dauka Arecibo Servicios y Gestiones, S.L. sozietatea, akzioen %54,01ekin. BBKk Areciboren %28,72ko parte-hartzea dauka, eta, ondorioz, Itínere-ren akziodun nagusietako bat da (%15,51).
<i>URAGUA SA</i>	Edateko uraren pribatizazioa Uruguain	Uragua, S.A. Bilbo-Bizkaia Ur Partzuer goko kide da



Galdera horri erantzuteko, ondorengo orrialdeetan hiru euskal aurrezki kutxen parte-hartzea duten enpresak edo finantzatu dituzten proiektuak analizatuko ditugu, giza eskubideen urraketen eta ingurumenaren gaineko kalteen erantzukizuna dagokielako frogatzeko. Garrantzitsua da azpimarratzea hiru erakundeek beren memorien bidez gardentasuna lortzeko egin duten ahalegin handia ez dela ikusten beren parte-hartzea duten enpresen eta beren akzioen ehunekoaren berri ematerakoan. Kutxaren inguruko

informazio xehea erraz aurkitu dugu, baina ez du ematen akzio bidezko parte-hartze mailari buruzko informaziorik. BBKk parte-hartzerik garrantzitsuenen berri eman du, baina gainerakoak kanpoan utzi ditu. Vital Kutxak etengabe aipatzen ditu bere parte-hartzea duten enpresei buruz, baina zaila da haien zerrenda bat aurkitzea (Memoria Ekonomikoan jaso da), eta parte-hartzearen ehuntzekoa zein den argitzen ez duen arren, parte hartutakoak (akzioen %50 baino +) eta bazkideak (%20 baino +) bereizten ditu.

### Kutxak hirugarren enpresen bidez dituen eraginak

Enpresa	Eragina	Lotura
<i>Repsol-YPF</i>	Kutxaren legearen iruzurra, Repsolen dauzkan inbertsioengatik	Kutxak, La Caixa eta Caixa Catalunyaekin batera, 1997ko uztailean Repinves sozietatea osatu zuen. Kutxa bakoitzak Repsol-YPFko parte-hartzeak jaso zituen sozietate horretan. Kutxak Repinves-en akzioen %27,3 zeukan. Sozietate-egitura horrek Kutxari zergatan 22,9 milioi euro aurrezteko aukera eman zion. Kutxak REPSOLen parte hartu zuen zazpi urteetan inbertsio horretatik lortu zituen errendimenduak 94,7 milioi eurokoak izan ziren guztira, eta, ondorioz, beharrezkoa zen zergatan 27,2 milioi euro ordaintzea. Baina Repinves sozietatea artekari gisa erabiliz, kostu fiskala 4,2 milioi eurokoa izateraino murriztu zen.
	Komunitate indigenen gaineko eragina Neuquén-en (Argentina)	
<i>Inverlur</i>	Almenarako Mendilerroan, Murtzian, babestutako eremuak urbanizatzeko saioa	Inverlur Kutxaren menpe dago %100ean.
	Hirigintza-arloko ustelkeria Estepo-nako Haran Erromatarreko eremuan, Malagan	
<i>Natra</i>	Filialak lan egiten du Ekuatore Ginean diktadura-erregimen batean	GK Corporación Kutxa / Kutxa Korporazioa S.L. (Kutxaren %100) sozietateak Natraren akzioen %9,14 dauka
<i>ENCE</i>	Ingurumeneko eskubideen urraketa M'Bopicuáko lantegian. Fraybentos (Uruguai), 2005	ENCE eta Kutxaren arteko harremana da finantza-erakunde horrek lan egiten duela (Caixa Galicia eta Caja Madridekin batera).

### Vital Kutxak hirugarren enpresen bidez dituen eraginak

Enpresa	Eragina	Lotura
Ez da aurkitu Vital Kutxaren zuzeneko parte-hartzea daukan eta giza eskubideak urratzen dituen edo Euskadiko edo lurralde txiroetako ingurumenean eragin negatiboak dauzkan enpresarik.		



## ➤ BBKk hirugarren enpresen bidez dituen eraginak

### 1. REPSOL-YPF (eta bere filialak PERENCO eta PLUSPETROL RESOURCE CORPORATION)

Herrien Auzitegi Iraunkorrek Vienan (2006), Liman (2008) eta Madrilen (2010)<sup>43</sup> egin zituen hiru bileretan epaitu dira Repsol-YPF erakundearen eta bere filialen politikek Bolibia, Peru, Argentina, Ekuador eta Kolonbiako biodibertsitatean eta komunitate indigenetan dauzkaten eraginaren kasuak.

#### > **Peru biodibertsitatea eta komunitate indigenak suntsitzea**

Pluspetrol Resource Corporation enpresak Holandan dauka egoitza eta Repsolen filiala da. Peruko Amazonian Pastaza ibaiaren arroa kutsatzea eta eremu horretan bizi zen Quechua herriaren eskubideen kontra eraso egitea leporatu zioten. Enpresa horrek hamarkadak daramatza petrolio ekoiztean sortzen diren hondakinak isurtzen, Peruko estatuak ezikusiarrena egiten du, eta gaur arte ez ditu eragin dituen kalteak konpondu. Pluspetrolek ez die jaramonik egiten nazioarteko legeei, adibidez, Lanaren Nazioarteko Erakundearen 169. Hitzarmenari eta NBEren herri indigenen eskubideei buruzko Adierazpenari. Lege horiek jatorrizko herriek lurralderako eta determinazio libre-rako eskubidea dutela onartzen dute.

Aldi berean, Perun 1994an onetsitako ingurumen legeria hausten du, baita Peruko nahiz nazioarteko organoek osasunari buruz emandako gomendioak eta ura izateko eskubidea ere.

Herri indigenen habitatak azkar hondatzen dira, eta horrek eremu horietan jatorritik bizi ziren herrien bizi-baldintzak eraldatzen ditu, baita beren harreman sozialak ere. Zoko ekologikoak eta ekonomia tradizionalak suntsitzen direnez, komunitate horiek beren jarduerak derrigorrez aldatu behar izaten dituzte eta kalifikazio profesional baxuko lanpostuak erreserbatzen dizkien lan-merkatu batean sartu behar izaten dute, bizirauteko moduren bat eskaintzen badie. Harreman sozialak oso azkar eta derrigorrean modernizatu dira, eta, horren ondorioz, emakumeek zeregin erabakigarri batez arduratzen

dira, komunitateak elkarrekin mantentzeaz, alegia, gizonak urrun joaten baitira aldi baterako lanpostuetan aritzeko, soldatapeko langile gisa<sup>44</sup>. Emakumeak, egin ohi zituzten lanez gain, tradizioz gizonek egin dituzten lanez arduratzen dira.

Bizimoduaren modernizazioarekin lotutako beharrei aurre egiteko diru-sarrerara ekonomikoen beharrak, batetik, eta emakumeek soldatapeko enplegu bat aurkitu ezin izateak (hezkuntza-baliabideak eskuratu ezin dituztelako eta lan gehiegi egin behar dutelako), bestetik, komunitateak txirotasunera kondenatzen ditu.

#### > **Komunitate indigenen gaineko eragina Neuquén-en (Argentina)**

Repsol YPF enpresa transnazional espainiarrari leporatu diote herriak eta inguruak errespetatu gabe ustiatzen dituela petrolio eta gasa, argentinarrari energia-subiranotasunerako eskubidea ukatzen diela eta bere emakida-kontratuak, legeria nazionala eta nazioartekoa hausten dituela. Konpainiak ingurumenaren gainean eta biztanleen bizitzan eta kulturaren eragin garrantzitsuak izan ditu etengabe, lan egiten duen lurraldeetako komunitate indigenetan, batik bat.

Herri indigenen eskubideak Konstituzio Nazional eta Probintzialen eta NBEren eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen Nazioarteko Akordioaren babespean daude. Repsolek ez ditu errespetatzen “alde aurretik zeuden etniak eta kulturak”, estatuak beren komunitateak aintzatesteko dituzten eskubideak, “tradizionalki okupatzen dituzten lurren” jabari eta jabetza eskubidea, ezta “baliabide naturalekin eta dagozkion gainerako interesekin lotutako kudeaketan parte hartzeko” eskubidea ere. Gainera, Argentinan, transnazionalari leporatzen zaio argentinarrari subiranotasun energetikorako eskubidea ukatu izana, eta bere emakida-kontratuak nahiz legeria nazionala eta nazioartekoa hautsi izana.

43. Herrien Auzitegi Iraunkorren epaia: 3. saioa. Europar Batasuna eta Latinoamerikako enpresa transnazionalak: Herrien eskubideen urraketetan konplize diren eragileak, politikak eta instrumentuak. Madril, espainiar estatua, 2010eko maiatzaren 14tik 17ra (<http://www.enlazandoalternativas.org/spjp.php?rubrique60>) 2011ko ekainaren 27an kontsultatua. Orr. 43-44.

44. Chicaiza, G. (2010) El enclave minero en la cordillera del Cóndor. Acción Ecológica. Quito



BBKk ez dauka parte-hartzerik Repsol YPF enpresan, baina Mario Fernández Pelaz zuzendaria Izendapenen eta Sarien Batzordeko kide da eta Repsol YPFren Kanpoko Kontseilari Independentea da. Ondorioz, egokitzat jotzen da enpresa hori txostenean barne hartzea, berriro ere erakusten

baitu nola kutzak ez dituen bere irizpide etikoak aplikatzen zein negoziotan parte hartu aukeratzen duenean. Zentzu horretan, gainera, garrantzitsua da azpimarratzea Petronorren akzioen %20 BBKk eta gainerako %80a Repsol YPFk daukatela.

## 2. PETRONOR BIOERREGAIK

### > Ingurumenerako eta osasunerako eragin negatiboak Muskizen, Bizkaian

Petronorrek Muskizen (Bizkaia) petrolio-kokea ekoizteko lantegi bat dauka. Findegia Barbadungo estuarioan dago, baina eremu itsas-lehortarreko jabari publikoan, hain zuzen. 30 urterako emakida lortu zuen 1982an (lanean hasi baino 14 urte geroago), eta 2012ko urriaren 25ean iraungiko da<sup>45</sup>. 2009an oso lantegi kutsatzaile bat (petroliozko azpi-produktuak petrolio-koke bihurtzeko lantegi bat) eraikitzeko lanak hasi ziren (810 milioi euroko inbertsioa)<sup>46</sup>. Proiektua gizartearen aldetik gaitzespen handia ari da jasotzen, herritarrak kontra dauzka. Gaur egun itsasora hondakin-urak bidaltzen dira, itsaspeko mandatari baten bidez.

Ekonomia Iraunkorraren Legea indarrean sartu zela eta (2/2011 Legea, 2011ko martxoaren 4koa), Legebiltzarreko EAJ-PNV taldeak PSOerek in un bat egin zuen 899 zuzenketa sartzeko; haren bidez, Hidrokarburoen Sektoreari buruzko 34/1998 Legea aldatu zen, eta hondartzetako lurrak hartzen dituzten findegiek beren emakidak luzatzeko eskubidea izango dutela ezarri zuen<sup>47</sup>.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailaren datuen arabera<sup>48</sup>, gizonen heriotza-tasa, oro har, altuagoa da (%14) emakumeena baino (%12). Lantegiaren kontra ehunka salaketa egin dituzte keak, suteak, zaratak, auri azidoa... direla eta<sup>49</sup>.

BBKk Petronorren parte-hartzeen %20 dauka. Gainerako %80a Repsolena da.

## 3. IBERDROLA SA

### > Gezurrezko publizitatea eta zentral nuklearrak (espainiar estatua)

Iberdrola, S.A. sozietatea egiten duen gezurrezko publizitateagatik salatu dute. Iberdrolak azken urteotan aplikatu duen publizitate- eta marketing-estrategiaren bidez merkatuan elektrizitatearen erabiltzaileen aurrean enpresa berde bat bezala agertu nahi du, eta bere negozioa osoki energia berritzagarrietan eta iraunkortasunean oinarritzen duela pentsarazi nahi du. Berdea izatea, Iberdrola-

rentzat, negozio bat da eta etekin bikoitza lortzen du. Batetik, bere salmentak areagotzeko elementu erakargarri bat da, eta, bestetik, diru-laguntzak jasotzeko balio dio (adibidez, 2010ean 743,8 milioi euro jasotzera iritsi ziren). Irudi hori, ordea, ez dator bat errealitatearekin; izan ere, 2010ean, konpainiak ekoitzi zituen 2/3 kilowattek jatorri fosila edo nuklearra zuten.

Mugimendu ekologisten kritika nagusia lizentziatuz luzapena lortu duten zentral nuklearretara dago

45. Organizaciones ecologistas piden a Medio Ambiente que explique el futuro de la refinería de Muskiz. Greenpeace. <http://www.greenpeace.org/espana/es/news/Organizaciones-ecologistas-piden-a-Medio-Ambiente-que-explique-el-futuro-de-la-refineria-de-Muskiz/>

46. Kaosa kostaldean. Bandera Beltzak 2010. Ecologistas en Acción [http://www.ecologistasenaccion.org/IMG/pdf\\_informe\\_banderas\\_negras\\_2010.pdf](http://www.ecologistasenaccion.org/IMG/pdf_informe_banderas_negras_2010.pdf)

47. Talde ekologisten Ingurumen arloari eskatzen diote Muskizko findegia etorkizuna azaltzeko. Greenpeace. <http://www.greenpeace.org/espana/es/news/Organizaciones-ecologistas-piden-a-Medio-Ambiente-que-explique-el-futuro-de-la-refineria-de-Muskiz/>

48. Heriotza kopurua eta heriotza estandarizatuaren arrazoi arindua (HEAa) Muskiz eta Abanto-Zierbenako oinarritzko osasun-eremuan, 1996-2003 <http://www.parlamento.euskadi.net/irud/09/00/002146.pdf>

49. IBÁÑEZ Sara, Daños colaterales de convivir con Petronor. Con Margen, 23. zk. <https://docs.google.com/fileview?id=0B6NtEV6WYa19Njg5MmZiZmEtMmEzNC00ZDVkLTgzODUtNmIwMzlkNmU2NzYx&hl=es>



zuzenduta: Garoña, Confronts, Ascó eta Almáraz. Oker eta jario ugariren ondoren, zentral nuklearrren bizitza luzatzea segurtasunerako eta ingurumenarako arriskutsua dela frogatu da. Are gehiago Fukushima hondamendiaren ostean.

Garoña (Burgos) Espainiako zentralik zaharrena da, eta Iberdrolak zentral horren akzioen erdia dauka, bere bizitza erabilgarria (40 urtekoa) 2011n bukatu zen, baina jabeek beste 10 urtez luzatzea eskatu zuten. Luzapen hori oraindik ez da onetsi, baina arriskutsua izango litzateke, eta enpresak ez du hori kontuan hartu, Garoñako teknologia gero eta zaharkituago dagoela aditzera ematen duten seinale ugari dauden arren. Lehenengo zentral nuklearren belaunaldikoa da, eta egon beharko lukeen arren ez dago arrisku batzuei aurre egiteko prest, Fukushimakoaren kasuan bezala (zentral horrek antzeko teknologia dauka). Gainera, hutsegite batzuk izan ditu, adibidez, dardara batzuk agertu zirela eta 2011ko maiatzean erreaktore baten programatu gabeko geldialdi bat egin zuen, eta erregai-tanga ia guztiz beteta dauka (aipatutako gainerako lau zentralak egoera berean daude).

Era berean, Cofrentes-ko (Valentzia) zentralak ia 30 urte ditu, eta zentral horiek zein arriskutsuak diren ere erakutsi du, Greenpeace-k frogatu duen bezala<sup>50</sup>; izan ere, 2001a eta 2011ko martxoaren 10a bitartean zentral horrek segurtasunaren arloko 102 gertakizun izan ditu, Segurtasun Nuklearraren Kontseiluak (CSN) jakinarazitakoaren arabera, eta horietako bi 1. Mailakoak izan dira Gertakizun Nuklearren Nazioarteko Eskalaren (INES) arabera, eta zentralak programatu gabeko 25 geldialdi egin ditu. Azken hutsegitea hozgarriaren jario bat izan zen, 4.000 l/egunekoa, eta horrek kutsadura erradioaktiboa eragin zezakeen, baina maila baxukoa.

Almarazko (Caceres) zentral nuklearra Iberdrola, Unión Fenosa eta Endesa enpresen jabetzakoa da, ia 30 urte ditu, eta, bigarren belaunaldikoa den arren, zenbait hutsegite izan ditu, adibidez, 2010eko uztailaren 24an programatu gabeko geldialdi bat egin zuen.

Azkenik, zentral nuklearrak behar baino gehiago ustiatzeak eta beren bizitza erabilgarria luzatzeak eragiten dituzten arriskuak ongien islatzen dituen zentrala Ascó-koa (Tarragona) da, eta dagoeneko 2. mailako gertakizun bat izan duen arren (INES eskalan), funtzionatzen jarraitzen du. Zehazki, 2008ko apirilaren 5ean material erradioaktiboaren jario bat egon zen, eta ez zen tratatu prozedura egokiei jarraituz. Gertakizun horren ondorioz, zentraleko babes erradiologikoko buruak eta zuzendariak kargua galdu zuen eta 15 milioitik gorako isuna ezarri zen, *material erradioaktiboaren kontrol desgokiagatik eta agintaritzaren arautzaileari informazio osatugabea eta urria eman izanagatik*<sup>51</sup> -

#### > **La Venta Proiektua: komunitateetako giza eskubideak urratzea. Oaxaca, Mexiko.**

Ustezko energia berdeak ere salaketak jaso ditu bere eragin ekologikoen ondorioz. Errumanian, Kenyan, AEBn eta Tehuantepec-en urtegiak eta parke eoliko handiak eraikitzeke proiektu erraldoengatik, batik bat, Ekologistak Martxan erakundearen arabera.

Tehuantepec-en kasua Herrien Auzitegi Iraunkorrean epaitu zen Madrilen 2010ean, eta eragin sozial, kultural eta ekologikoekin lotutako megaproiektu eoliko bat da. Tepeyac giza eskubideen Zentroak salatzen duen bezala, 1994an hasi zen eraikitzen, eta harrezkero ez dio eskualdearen garapenari lagundu; aitzitik, herrialdea askoz gehiago zorpetzeko balio izan du bakarrik. Bere eragin nagusietako bi zor ekologikoa<sup>52</sup> eta jatorrizko herrien eskubideen urraketa dira.

Parkea eraikitzeaz arduratzen diren enpresa nagusiek (hala nola, Iberdrola, Unión Fenosa, Eléctrica de Francia, Acciona, Preneal eta Endesa) Jatorrizko Herrien eskubideak urratu dituzte, bereziki “alde aurretiko baimen informatua” hautsi dute, LANEren 169 Hitzarmenak eta Herri Indigenen Eskubideen Adierazpen Unibertsalak jasotzen dutena, alegia. Enpresa horiek iruzurren eta garapena lortzeko promesa faltsuen bidez lortu dute Eskualdeko Herri eta Komunitate Indigenek lurra saltzea; 30 urterako eta automatikoki beste 30 urtez berritu daitezkeen

50. <http://www.greenpeace.org/espana/es/reports/Cofrentes-debe-cerrar/>

51. <http://www.publico.es/70477/la-central-nuclear-de-asco-mintio-al-informar-de-un-escape-en-noviembre>

52. Zor ekologiko gisa definitzen dugu pilatutako zor historikoa eta egungoa. Iparraldeko herriek Hegoaldekoekiko dute, batik bat, haien baliabide naturalak sakeatu, ustiatu, txirotu, suntsitu eta hondatu egin dituztelako.



alokairu-kontratuak sinatzera behartu dituzte, eta beren elikadura-subirantotasuna arriskuan jarri dute.

Bizitzeko baliabide tradizionalak suntsitzearen ondorioz, nekazariak proletario bihurtu behar izaten dute, eta jendea landatik hirietara lekualdatzea dakar. Herri indigenak proletario bihurtzeko prozesuak bereziki dramatikoak dira horren ondorioak jasaten dituzten pertsonen trebetasunak eta gaitasunak ez direlako inola ere baloratzen lan-merkatuan, eta, horregatik, posizioak zaurgarrietan eta negoziatze-ko ahalmen txikiak dutenetan amaitzen dute. Lur baten erabilera aldatzearen ondorioz gertatzen den “desjabetzeagatiko pilaketak” eragin berezia dauka emakumeengan<sup>53</sup>; izan ere, gizonak ez dauden bitartean (soldatapeko langile gisa ari direlako) zaindaria gisa lan egiten jarraitu behar dute, eta, gainera, auke-za izanez gero, familiaren errentak osatzeko ahalegi-ak egiten dituzte, industria arinetan eta tailerretan lan eginez, emakumei kualifikaziorik txikieneko zereginak uzten dizkieten lantegietan<sup>54</sup>.

- > **Pará, Brasil (Xingu ibaia):** Belo Monteko Presaren Proiektua: komunitateen giza eskubideak urratzea, Amazoniako oihana suntsitzea, berotegi-efektua duten gasak isurtzea.

Belo Monte presa Xingu ibaian proiektatzen da, Amazonas ibaiaren arroan. Presa hori munduko hirugarren presarik handiena izango da eta 11.233 MW-ko<sup>55</sup> potentzia izango du.

#### 4. ENTABÁN

- > **Palmaren monolaborantza Malasian**

Entabán, S.A. biodieselak ekoizten duen enpresa bat da. Palma-olioa inportatzen du Indonesiatik<sup>56</sup> eta Malasiatik. Proiektuak dauzka Brasilen eta Argentinan.

Palmaren monolaborantzak deforestazioa, biodiber-

Iberdrolak presaren eraikuntzan parte hartuko du Neonegia sozietatearen bitartez. Enpresa hori presa eraikitzeaz arduratuko diren enpresa brasildarren partzuergora sartu zen 2010ean.

Brasilgo gobernuak defendatzen du proiektua behar-beharrezkoa dela herrialdea garatzeko eta (18.700 lanpostu sortzeaz gain) 23 milioi etxetarako elektrizitatea sortuko lukeela adierazten du.

Gizartearen keak honako alderdi hauetan oinarritzen dira: azpiegiturearako egin beharreko 17 mila milioi dolarreko inbertsioa, Xingu ibaiaren emaria 62 kilometro desbideratzea, oihan tropikalaren 100.000tik gora hektarea urperatzea, 50.000tik gora pertsona lekualdatzea eta haien herriak desagerraraztea eta metano kopuru ikaragarriak sortuko direla (berotegi-efektuko gas bat da, karbono dioxidoa baino 25 aldiz kutsatzaileagoa). Horrez gain, enpresa handien bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa ere zalantzan jartzen da<sup>56</sup>.

Gaur egun, epaile federalak proiektua eten du, Brasilgo Ingurumen Agentziak (IBAMA) proiektua adostutako baldintzak bermatu gabe onartu omen zuelako. Epaile berak garapeneko Banku Nazionalari (BNDES) proiektua finantzatzen jarraitzea debekatu baitzion<sup>57</sup>.

BBK Iberdrolaren bigarren erreferentziako akzioduna da, hau da, %6,84ko zuzeneko parte-hartzea dauka.

tsitatea suntsitzea, giza eskubideak urratzea eta pestizida eta ongarriekin kutsatzea dakar<sup>58</sup>.

BBK participa con un 56% en Entabán, S.A.

53. Harvey, D. (2003) “The ‘new’ imperialism: accumulation by dispossession”. *The Socialist Register*, 63-8

54. Newsome, Kirsty (2003), “The Women Can Be Moved to Fill in the Gaps”: New Production Concepts, Gender and Suppliers’, *Gender, Work and Organization* 10, 320-341.

55. [www.iberdrola.es](http://www.iberdrola.es) 2011ko uztailaren 12an bisitatu

56. Salva la selva. <http://www.salvalaselva.org/pressemitteilungen/3327/una-vez-mas-no-queremos-belo-monte> 2011ko uztailaren 12an bisitatu

57. Iberdrola. <http://iberdrola.blogspot.com/2011/02/brasil-la-mega-represa-por-la-que.html>

58. Llega a Ferrol el primer buque con aceite para biodiésel. *La Voz de Galicia*. 18/08/2008. [http://www.lavozdeg Galicia.es/ferrol/2008/08/18/0003\\_7069616.htm?utm\\_source=buscavoz&utm\\_medium=buscavoz](http://www.lavozdeg Galicia.es/ferrol/2008/08/18/0003_7069616.htm?utm_source=buscavoz&utm_medium=buscavoz)

59. Denuncia del aceite de palma y sus consecuencias ambientales. *Ecologistas en acción*. <http://www.ecologistasenaccion.org/article20061.html>



## 5. ITÍNERE

### > Biodibertsitatearen suntsipena eta klima-aldaketa

Itínere sozietatearen helburuetan adierazten den bezala, bere jarduera garraioarekin lotutako azpiegituren eraikuntza sustatu edo gauzatzeko lanean kontzentratzen da, adibidez, autopistak, errepideak, tunelak... baita horien ustiapenean ere. Eta, besteak beste, mineralen aztarnategi, meategi eta harrobien ustiapenean eta aprobetxamenduan dihardu, baita produktu horien banaketa eta komertzializazioan ere (mineral estrategikoak izan ezik).

Gailentzekoa da BBKk, Enpresaren Gizarte Erantzukizunaren Memorian ingurumenarekiko konprometiturik dagoen kutxa bat izanik, biodibertsitatea galtzen laguntzen duen enpresa batean parte hartzen duela. Biodibertsitatea desagertzea eragiten duten arrazoi nagusietako bat klima-aldaketa

da, eta garraioa (autoak, kamioiak, hegazkinak eta karga-ontziak) CO2aren iturri garrantzitsu bat da. Mundua gero eta globalizatuago dago, eta, ondorioz, salgaiak gero eta distantzia handiagoetan lekualdatu behar dira. Itínere bezalako enpresa horien erantzukizuna erabakigarria da, ez soilik azpiegituraren eraikuntzagatik, azpiegitura mar-txan eta lanean jartzeko presioagatik ere bai<sup>60</sup>.

BBK Itínere-ren erreferentziazko bazkideetako bat da. Itínere-k bere 2010eko kontu bateratuen<sup>61</sup> harira dioenaren arabera, une honetan (2010eko abenduaren 31n) erreferentziazko akziodun gisa dauka Arcibo Servicios y Gestiones, S.L. sozietatea, akziodunen %54,01ekin. BBKk Arciboren %28,72ko parte-hartzea dauka<sup>62</sup>, eta, ondorioz, Itínere-ren akziodun nagusietako bat da (%15,51).

## 6. URAGUA SA

### > Edateko uraren pribatizazioa Uruguaian

Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoak Uruguairen %13 zeukan<sup>63</sup>. Uragua enpresak 2000. urtean Maldonadoko (Uruguai) Departamentuko zati baten emakida jaso zuen. Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoa Uruguaira Aguas de Bilbao-Bizkaia subsidiarioaren bitartez sartu zen, eta BBK horren akzioduna da<sup>64</sup>.

Uraguak, lanean hasi zenean, emakiden plegua urratu zuen, enpresa BEZa eta inportazio-tasak ordaintzeaz salbuesita zegoen arren. Uragua atzeratuta zegoen hodi biltzailea eraikitzeke lanetan, eta, aldi berean, etekin handiak jasotzen zituen kontratuko jatorrizko baldintzak aldatu zirenean, adibidez: kanona ordaintzeko modua, bankuko abala eta diru-bilketaren tasa.

Uraren pribatizazio-prozesua gobernuek egin dute, nazioarteko kreditu-erakunde hauen presiopean: Nazioarteko Diru Funtza, Munduko Bankua eta Garapenerako Banku Inter-amerikarra; izan ere, maileguren esleipenarekin batera, beren ordaintza-planetan herritarrentzako oinarrizko zerbitzu publikoen pribatizatorako joera duten zenbait konpromiso barne hartzen dituzte, baita Iparraldeko herrialdeetako (eta, kasu honetan, Euskadiko) enpresa transnazionalen eskuetan dauden herrialdeen baliabide naturalen ustiapena ere.

Maldonadok, baldintza horietan, esleipena Uraguari emateaz gain, Aguas de la Costa enpresaren (Suez transnazionalaren subsidiarioa) mendebaldeko eremuaren emakida egin zen. Aguas de la Costak erabiltzaileei 2.200 dolarreko kargu finko bat kobratzen zien, kontsumorik gabea<sup>65</sup>.

60. 15 principales culpables de la destrucción de la Biodiversidad durante 2010. Ecologistas en acción. [http://www.ecologistasenaccion.org/IMG/pdf/informe\\_15\\_culpables.pdf](http://www.ecologistasenaccion.org/IMG/pdf/informe_15_culpables.pdf)

61. <http://www.grupoitiner.com/documentos/ITINERE%20CONSOLIDADO%202010%20NEGRO.pdf> documento consultado el 7 de julio de 2011

62. Datua SABI datu-basetik jaso da, 2011ko uztailaren 7an kontsultatua

63. <http://www.larepublica.com.uy/economia/193766-el-fin-de-la-aventura-del-consorcio-de-aguas-bilbao-bizkaia-en-uruguay> 2011ko abuztuaren 4an bisitatutako orrialdea

64. <http://www.lukor.com/not-neg/empresas/0412/21204410.htm> 2011ko abuztuaren 4an bisitatutako orrialdea

65. Uruguay: La hebra que conduce al acuífero Guaraní <http://www.surysur.net/?q=node/404>



2004ko hauteskundeetan, erreferendum bidez, sektore pribatuak edateko uraren sektorean parte hartzea debekatzen zuen zuzenketa bat onartu zen Konstituziorako. Ondorioz, Uruguako gobernuak URAGUAREN emakida urte hartan bertan baliogabetu zuen<sup>66</sup> eta Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoak 183.846 euroko irabaziak lortu zituen.<sup>67</sup>

Uragua, S.A. Bilbo-Bizkaia Ur Partzuergoko kide da haren Aguas de Bilbao filialaren bitartez. Gaur egun, BBKk Aguas de Bilbao S.A. sozietatearen akzioen %24,5<sup>68</sup> dauka, eta gainerako akzioak Partzuergoak dauzka.

## ➔ Kutxak hirugarren enpresen bidez dituen eraginak

### 1. KUTXAREN LEGE-IRUZURRA, REPSOLEN DITUEN INBERTSIOENGATIK

Kutxak 21,5 milioi euro ordaindu beharko dizkio Ogasunari 1997a eta 2004a bitartean REPSOLEN egin zituen inbertsioengatik<sup>69</sup>. 2011ko maiatzaren 2an Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak (EAEJAN) arrazoia eman zion Gipuzkoako Ogasunari, baita Kutxaren kontrako auzi batean Foru Administrazioiko Auzitegi Ekonomikoak (FAAE) eman zuen ebazpenari ere. Epai horren kontra ezin da kasazio-errekurtso arruntik aurkeztu<sup>70</sup> eta kutxa 21,5 milioi euro ordaintzera behartzen du, 2001a eta 2005a bitarteko Sozietateen gaineko Zergaren ordaintzengatik. Kutxak iruzurra egin zuen akzioen bidez REPSOLEN dituen partaidetzak 1997a eta 2004a bitartean, Fernando Spagnolo presidentea zen garaian, tarteko sozietate baten bidez kudeatu zituenean.

Kutxak, La Caixa eta Caixa Catalunyaekin batera, 1997ko uztailean Repinves sozietatea osatu zuen. Kutxa bakoitzak Repsol-YPFko parte-hartzeak jaso zituen sozietate horretan. Kutxak Repinves-en akzioen %27,3 zeukan. Sozietate-egitura horrek Kutxari zergatan 22,9 milioi euro aurrezteko aukera eman zion. Kutxak REPSOLEN parte hartu zuen zazpi urteetan ibertsio horretatik lortu zituen errendimenduak 94,7 milioi eurokoak izan ziren guztira, eta, ondorioz, beharrezkoa zen zergetan 27,2 milioi euro ordaintzea.

Baina Repinves sozietate artekari gisa erabiliz, kostu fiskala 4,2 milioi eurokoa izateraino murriztu zen.

Auzitegiak erakundearen argudio guztiak baztertu zituen, akzioak gehitzeak REPSOLEN kapitalaren %5 osatu eta konpainian kontseilari bat irabazteko eskubidea ematen ziola esaten baitzuen, baina eskubide hori ez zuten sekula gauzatu.

#### > Komunitate indigenen gaineko eragina Neuquén-en (Argentina)

Horrez gain, epaiak dio 1999ko uztailean Repinves-en kapitala areagotu egin zutela hiru akziodunek, REPSOLEN kapital areagotzera jotzeko, YPF enpresa argentinarra eskuratzeko. Horrek erakusten du KUTXAK irizpide etiko falta daukala eta giza eskubideak ez dituela errespetatzen, bere garaian REPSOLEN akzioen bidez parte hartzeaz gain petrolio-enpresa espainiarrak Argentinan YPF enpresa eskuratzeko hedapen-planak babestu baitzituen.

Inbertsio horrek, Herrien Auzitegi Iraunkorrak (HAI) 2010eko maiatzean eman zuen epaiaren arabera, oso eragin negatiboak izan ditu argentinarentzat eta, zehazki, Neuquén-go komunitate maputxeentzat: *“HAIk honakoak egin izanaren sa-*

66. Edateko ura eta saneamendua Uruguain [http://es.wikipedia.org/wiki/Agua\\_potable\\_y\\_saneamiento\\_en\\_Uruguay](http://es.wikipedia.org/wiki/Agua_potable_y_saneamiento_en_Uruguay)

67. <http://www.larepublica.com.uy/economia/193766-el-fin-de-la-aventura-del-consorcio-de-aguas-bilbao-bizkaia-en-uruguay> 2011ko abuztuaren 4an bisitatutako orrialdea

68. Sabi datu-basea, 2011ko abuztuaren 4an kontsultatua

69. Mata, Miguel Ángel. Kutxa deberá pagar 21 millones a Hacienda por sus inversiones en Repsol. Elcorreo.com Bizkaiko edizioa. Donostia, 2011ko maiatzaren 17a. <http://www.elcorreo.com/vizcaya/v/20110517/economia/kutxa-debera-pagar-millones-20110517.html> 2011ko uztailearen 17an bisitatutako orrialdea

70. Europa Press. El TSJPV obliga a Kutxa a pagar 21,4 millones a la Hacienda guipuzcoana por las inversiones realizadas en Repsol. Noticiasdegipuzkoa.com. Donostia, 2011ko maiatzaren 17a. <http://www.noticiasdegipuzkoa.com/2011/05/17/economia/el-tsjpgv-obliga-a-kutxa-a-pagar-214-millones-a-la-hacienda-gipuzcoana-por-las-inversiones-realizadas-en-repsol> 2011ko uztailearen 17an bisitatutako orrialdea



*laketak aintzat hartu ditu: kulturaren kontrako erasoak, lurraldeak inbaditzea eta ingurumena eta baldintza tradizionalak suntsitzea. Peruko Repsol eta Perenco enpresen kasuan, ETNen jarduerak herri indigenak bizirautea mehatxatzen dute, isolamendu boluntarioarekin (...). Antzeko urraketak egiaztatu dira Txilen Endesa/Enel enpresari dagokionez, Argentinan Repsoli dagokionez, Peun Pluspetroli dagokionez eta Brasilen Agrenco eta Louis Dreyfus enpresei dagokienez, energiaren eta petrolio-ustiapenaren sektoreetan eta nekazaritza-erregaietarako monolaborantzaren hedapenean”.*

Epai horretako II. eranskinean aurkeztutako kasu guztien salaketak zerrendatu dira, eta, bertan, honakoa ikus daiteke: “Repsol YPF enpresa transnazional espainiarrari leporatu diote herriak eta inguruak errespetatu gabe diharduela petrolio eta gasa ustiatzean, argentinarrei energia-subiranotasunerako eskubidea ukatzen diela eta bere emakida-kontratuak, legeria nazionala eta nazioartekoa hausten dituela.

*Konpainiak ingurumenaren gainean eta biztanleen bizitzan eta kulturaren eragin garrantzitsuak izan ditu etengabe, lan egiten duen lurraldeetako komunitate indigenetan, batik bat. Cerro Banderako meategian, Repsol YPF enpresak sistematikoki urratzen ditu Logko Purrán komunitate maputxearen eskubideak, Meuquén probintzian, indigenen eskubideak Konstituzio Nazional eta Probintzialen eta NBEren eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen Nazioarteko Akordioen babespean dauden arren. Repsolek ez ditu errespetatzen “aldez aurretik zeuden etniak eta kulturak”, estatuek beren komunitateak aintzatesteko dituzten eskubideak, “tradizionalki okupatzen dituzten lurren” jabari eta jabetza eskubidea, ezta “baliabide naturalekin eta dagozkion gainerako interesekin lotutako kudeaketan parte hartzeko” eskubidea ere. Multinazionalak nahi izan duen bezala jardun du Komunitateko lurraldean, eta zuzenean izan du eragina komunitateen bizitzan, haien zuzendariak jazarri ditu, beren izen ona galarazi du, komunitatea ez du ezagutu, ezta bere eskaerak ere”.*

## 2. INVERLUR

### > **Almenarako Mendilerroan, Murtzian, babes-tutako eremuak urbanizatzeko saioa**<sup>71</sup>

Inverlur taldeak 4.000 etxebizitza, luxuzko hotel bat eta golf zelai bat eraiki nahi ditu Almenarako Mendilerroan (Murtzian), baina eremu hori babestuta dago Garrantzi Komunitarioko Lekua (GKL) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Gune (HBBG) bat delako. Hainbat espeziaren habitata da, adibidez, bonelli arranoa, beltaz handia, hontz handia eta dortoka greziarrarena. Birkalifikaziorako lehenengo urratsa lursailaren 40 ha ingururen erroturazioa eta legez kontrako ureztaketa izan zen, eta, horrela, lursaila eremu babestutik atera zen, “balio ekologiko faltagatik”. Nekazaritza eta Uren Sailak La Almenara, Moreras eta Cabo Copeko HBBGren Kudeaketa eta Kontserbazio Plana onetsi zuen, eta, ondorioz, Zerricherako hirigintza-plana baliogabetu egin zuen. Hala ere, Inverlur-ek Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa jarri du ebazpen horren kontra. Bitartean, Murtziako 3. Instrukzio Epaitegian irekirik jarraitzen dute ustezko prebarikazio, agiri ofizialen faltsutasun, funtzionario publikoekin negoziazio de-

bekatu, eragimen-trafiko eta funtzionario-eroskeria delituengatik Murtziako Fiskaltzak jarritako Salaketaren Eginbideak, ANSEk eta Ekologistak Martxanek Autonomia Erkidegoko bost goi-karguren, Águilasko alkatearen eta zinegotzi ohi baten kontra Zerricherako (GKL eta HBBG, La Almenarako Mendilerroa, Águilas, Murtzia) lurzoruen birkalifikazioan esku hartu izanagatik jarritako salaketen ostean. JAGren fiskalburuak Águilasko alkatea, zinegotzi ohi bat eta Eskualdeko Gobernuko bost goi-kargu auzitaratu zituen ustezko prebarikazioa, eragimen-trafiko, funtzionario-eroskeria eta funtzionarioekin negoziazio debekatuak egitea delituengatik.

### > **Hirigintza-arloko ustelkeria Esteponako Haran Erromatarreko eremuan, Malagan**<sup>72</sup>

Valle Romano urbanizazioak 150 ha ditu, baita bost izarreko hotela eta golf zelaia ere, eta Guadalobóneko behe-haranean dago. Osoki kontrolatzen du Kutzak. Urbanizazioa hirigintza-ustelkeria kasuetan sartuta egon da. Inverlur Kutzaren menpe dago %100ean.

71. Salatu Almenarako Mendilerroa berriz dago arriskuan. Ekologistak Martxan. <http://www.ecologistasenaccion.org/article20829.html>

72. Estepona: Hirigintza-egoera eta ekintza ekologista. <http://www.ecologistasenaccion.org/article11685.html>



### 3. NATRA

#### > Filialak lan egiten du Ekuatore Ginean diktadura-erregimen batean

NATRA, S.A. Valentziako enpresa bat da, 1950ean eratu. Bere web orrian adierazten dutenaren arabera, Natra elikadura-talde lider bat da kakaotik eta txokolatetik eratorritako produktuen ekoizpenean, eta, gainera, inbertsioak dauzka sektoreko beste esparru batzuetan: elikadura funtzionala, ardoak eta cavak.<sup>73</sup> Hortaz, NATRA CACAO (Quart de Poblet-en, Valentzian) kakaotik eratorritako elikagaiak lortzera dago bideratuta. EXTRACTOS NATRA (Valentziakoa ere) enpresak kafeina ekoizten du kolazko edarietarako eta edari energetikoetarako; baita kakao-gurina ere erabilera dermo-farmazeutikoetarako; eta landare-estraktuak hainbat industrietarako. APRA (egoitza Ekuatore Ginean dauka) enpresaren helburua kakaoa eta aipatutako enpresek behar dituzten landareak jatorrian erostea da. CAVAS Y VINOS TORRE ORIA (Utiel-en, Valentzian) enpresak krintzak eta erreserbak lantzen ditu, baita cavak ere, kalitate handikoak. Bestalde, NATRA US (egoitza Miamin dauka) enpresak Estatu Batuetako merkatuan aurreko enpresek landutako produktuak saltzen ditu.<sup>74</sup>

Natra, S.A. enpresak APRA S.L. enpresaren akzioen %100 dauzka. Filial horrek Ekuatore Ginean lan egiten du.<sup>75</sup> Ekuatore Ginea diktadura batean bizi da. Teodoro Obiang Nguema da estatuburua 1979tik. Ekuatore Ginean boterea modu errepresibo, ustel eta nepotistan gauzatzen da. Debekatuta dago adierazpen-askatasuna, baita elkartzeko eta batzartzeko askatasuna ere. Atxiloketa arbitrarioak gauzatzen dira, baita epaiketarik gabeko espetxeratzeak, torturak, zigorrak eta judizioz kanpoko hilketak ere. 2009an Ekuatore Ginea zen per capita BPGaren eta

bere Giza Garapenaren Indizearen (GGI 117. postua) arteko diferentziarik handiena zuen hirugarren herrialdea. Hori hala da, espainiarra baino per capita errenta altuagoa daukan arren herritarren %35 baino gehiago 40 urte bete baino lehen hiltzen delako. Bost urtetik beherako umeen %19k desnutrizioa pairatzen du, arina eta larria artekoa. Herritarren %43k soilik lortzen du edateko ura, eta landako biztanle gehienek ez daukate elektrizitaterik. Biztanleen %77, Nazio Batuen datuen arabera, txirotasunaren mugatik behera dago eta herrialde horretako muturreko xtirotasun mailak Haitikoen antzekoak dira.<sup>76</sup>

Teodor Obiang Nguema diktadoreak eta bere familiak herrialdea menperatzen dute eta baliabide ekonomiko guztiak kontzentratzen dituzte. Enpresa atzerritarren eta Nguema familiaren arteko harremani esker, familiak aberastea eta kontrola lortzeko mekanismoak indartzea lortu du, eta herritarrak gizartetik baztertu ditu, ez baitago haren menpe. Ekuatore Ginean lan egiteko, enpresa atzerritar gehienek tokiko sozietate baten bidez lan egin behar dute, eta Ekuatore Gineako bazkide batek haren %35en jabe izan behar du gutxienez.

Ondorioz, argi dago herrialde horretan ezartzen den edo harekin harremanak dauzkan edozein enpresa diktadura mantentzen laguntzen ari dela, eta, ondorioz, herritarren eskubideen urraketen konplizea (edo zati batean erantzulea ere) dela esan daiteke. Kasu honetan, Kutzak akzioen bidez parte-hartze garrantzitsua du Natra, S.A. enpresaren akzioetan (%9,14, hain zuzen). Enpresa hori da APRA, S.L. filialaren jabea, haren akzio gehienak baitauzka, eta, esan bezala, Ekuatore Ginean lan egiten du, kakaoa eta taldeko enpresek behar dituzten landareak erosteko jardueran.

### ↗ Vital Kutzak hirugarren enpresen bidez dituen eraginak

Ez da aurkitu Vital Kutzaren zuzeneko parte-hartzea daukan eta giza eskubideak urratzen dituen edo Euskadiko edo lurralde txirotetako ingurumenean eragin negatiboak dauzkan enpresarik. Datu positibo hori, agian, lotuta dago konpainiaren EGE politikarekin,

eta bere 2010eko EGE Memorian honakoa adierazten zuen: *“Gure parte-hartzea duten enpresa guztiak daukate herrialde garatuetan, Munduko Bankuaren sailkapenaren arabera”*.

73. [www.natra.es](http://www.natra.es) 2011ko uztailaren 11n bisitatu

74. <http://www.guiadeprensa.net/alimentacion/natra.html> uztailaren 11n bisitatu

75. SABI datu-basea, 2011ko uztailaren 11n bisitatu

76. Sebastián M., Saavedra V., Zumalde U. Las relaciones del Estado español con regimenes dictatoriales: Guinea Ecuatorial, Libia, Marruecos vs. Sáhara Occidental. Bartzelonako Unibertsitatea. 2011ko uztaila.



# Beren jardueren kanpoko politikak eta proiektzioa

## 04.2 Armamentuaren industriarekiko harremanak



Aurrezki kutxen zati handi batek harremanak dauka armamentuaren industriarekin, akzioen bidezko parte-hartzearen bidez edo finantzaketa emanez. Harreman horien ondorioz, gerrak erraztearen eta sustatzearen konplize dira, baita horrekin lotutako giza eskubideen urraketen konplize ere. *Negocios Sucios*<sup>77</sup> Txostenean definitzen den bezala, industria militarren parte dira beren negozioaren zati bat, txiki-txikia bada ere, material militarra ekoiztera bideratzen duten enpresa guztiak. Industria militarrek giza eskubiak urratzen ditu<sup>78</sup>, arriskuan jartzen ditu komunitateen eta pertsonen bizitza eta ongizatea, eta gatazka armatuetatik etekinak ateratzen ditu. Euskal industria militarra asko aldatu da azken hamarkadan. 85 enpresa nolabait erlazionatuta daude armamentuaren industriarekin, industria horrek 600 milioi euro bane hartzen ditu eta 3.000 pertsonari ematen die lana<sup>79</sup>. Euskal agintaritzek milioika euroko diru-laguntzen

eta laguntza ofizialen bidez sustatzen dute industria hau, birmoldaketa bilatu beharrenean, eta suntsitzen dituen bizitzetara baino garrantzi handiagoa ematen diote etekin ekonomikoari. Atal honetan analizatuko dugu BBK, Kutxa eta Vital Kutxa aurrezki kutxek industria horrekin duten harremana.



BBKk Nazio Batuen Munduko Ituna<sup>80</sup> sinatu zuen arren, eta Etika Batzorde<sup>81</sup> bat eta analisi finantziarioaren eta sozialaren arteko interes-gatazkek ekiditeko sistema bat dauzkan arren, ez du industria militarra bideratutako inolako eragiketa finantzatorik baztertu<sup>82</sup>. BBKk lau enpresa militar espai-

77. 'Negocios Sucios. Los bancos españoles financian a productores de armas' Txostena. (<http://www.bancalimpia.com/pdf/bancos-sucios-informe.pdf>). 11. orrialdea.

78. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 3. artikulua. <http://www.un.org/es/documents/udhr/>

79. Las instituciones vascas siguen apoyando a la industria militar. Gara egunkaria. 2009ko urtarrilaren 22a. <http://www.gara.net/paperezkoa/20090122/117658/es/Las-instituciones-vascas-siguen-apoyando-industria-militar.2011ko-uztailaren-4an-bisitatua>.

80. BBKren EGE kodea. Gizartearekiko jarrera. <https://portal.bbk.es/servlet/Satellite?blobcol=urldata&blobheader=application/pdf&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1296586326111&ssbinary=true&idDocumento=1170272034265>

81. BBKk "Espainiar estatuko aurrezki kutxak eta Hegoaldeko gizarte garapenarekiko duten harremana" Galdetegiari emandako erantzuna. Setemek bidalia. 4. orrialdea.

82. BBKren EGE kodea. Gizartearekiko jarrera. <https://portal.bbk.es/servlet/Satellite?blobcol=urldata&blobheader=application/pdf&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1296586326111&ssbinary=true&idDocumento=1170272034265>



niarretan parte hartu du. Zuzenean, 2009an, CAFen (%5,8 BBKrena da), eta zeharka Amper-en, Ibérica del Espacion eta RYMSAn, Iberdrolaren bitartez (%7,2 BBKrena), 2009an eta 2010ean. 2010ean Iberdrolak Amper-en parte hartzeari utzi zion arren, Delàs Zentroaren kalkuluaren arabera (salmenten bolumena kontuan hartzen du) kutzak armamentuaren industrian izan duen parte-hartzea %7,50 areagotu da, hau da, 3,13 milioi eurokoa izatetik 3,91 milioi eurokoa izatera igaro da<sup>83</sup> (Rankinga ikusi). Bestalde, 2010ean, BBKk erakundeak berak eta bere filialek kudeatutako inbertsio-funtsen bidez arma polemikoak ekoizten dituen Thales enpresaren milioi bat euroko bonuetan parte hartu zuen<sup>84</sup>. Thales enpresa frantziar bat da, eta informazio sistemak ekoizten ditu defentsaren eta segurtasunaren merkatuetarako, baita merkatu aeroespazialerako eta garraioaren sektorerako ere<sup>85</sup>. Enpresa horrek EADS eta Safran-ekin, besteak beste, M51 misil nuklear berriaren eraikuntzan parte hartzen du, eta arma hori polemikotzat jotzen da<sup>86</sup>. Bestalde, BBKk SETEMi adierazi zion 2010eko abenduaren 14an, gizartearekiko arduratsuak diren inbertsio-irizpideekin jarraituz, bonu-paketea saltzea erabaki zutela. Zentzu horretan, esan dezakegu BBKk 2008a eta 2010a bitartean maileguetan eta kredituetan ez duela aplikatu arrisku sozialak kudeatzeko inolako politikarik<sup>87</sup> eta inbertsio-funtsak kudeatzeko irizpide sozialak dauzkan arren, praktikan ez du baztertzen armagintzaren industriako inbertsioa<sup>88</sup>, bere Enpresaren Gizarte Erantzukizuneko Kodeak indarrean dagoen legeria betetzen ez duten bezeroak soilik baztertzen baititu<sup>89</sup>. Ondorioz, dirudienez, BBKk giza eskubi-deak errespetatzeko dituen sistemak ez dira nahikoa, eta kontrola beharrean nolabaiteko deskontrol etikoa dagoela ematen du, finantza-produktu desberdinen bitartez posizioak sakabanatu egiten direlako.

## ➔ KUTXA

Kutzak dio balore etikoen eta giza eskubideen arabera diharduela<sup>90</sup>, eta beste kutzak bezala, armamentua ekoizten duten enpresetan inbertitzen du. Izatez, Kutxa iraunkortasunarekin eta giza eskubideekin konprometituta dago, Kudeaketa Etiko eta Sozialki Arduratsuaren SGE 21 Ziurtagiria baitauka eta Nazio Batuen Munduko Itunera atxiki baitzen<sup>91</sup>; baina, hala ere, CAFen %20ko partaidetza dauka, eta enpresa horren jarduerak ekoizpen militarra barne hartzen du. Enpresan daukan partaidetza 2009an %17,8koa izatetik 2010ean %20,06koa izatera igaro da, eta, aldi berean, armamentuaren sektorean daukan partaidetza areagotu egin du salmentei dagokienez, eta 8,53 milioi eurotik 10,08 milioi eurora igaro da<sup>92</sup> (Rankinga ikusi).

Kutzak 2009ko EGE Memorian atal bat du Nazio Batuen munduko Itunari buruz, eta giza eskubideekin lotutako gehiegikerien konplize ez izateko konpromisoa hartzen du<sup>93</sup>. Bere enpresa aliatuekin arrisku sozialak murrizteko jarduerak gauzatu eta beren jardunbideak aztertzeke konpromisoa hartzen du, alderdi sozialean garapen iraunkorra errespetatu dezaten<sup>94</sup>. Hala ere, ez du inolako irizpiderik ezartzen bere jokabide-kodea errespetatzen ez duten enpresak baztertzeke; izatez, Kutzak industria militarrean parte hartzeak irizpide etiko horiek zalantzan jartzen dituela ematen du.

&gt;&gt;

83. Delàs Zentroak, kopuru hori kalkulatzeko, erakundeak daukan akzio-ehunekoa bider kapital mailan bere parte-hartzea duen enpresa bakoitzak lortu duen armen salmenta bolumena egiten du (izan ere, enpresa batzuen jarduera ez da %100 armen negozioa).

84. 'Negocios Sucios. Los bancos españoles financian a productores de armas' Txostena. (<http://www.bancalimpia.com/pdf/bancos-sucios-informe.pdf>). 25. orrialdea.

85. 'Negocios Sucios. Los bancos españoles financian a productores de armas' Txostena. (<http://www.bancalimpia.com/pdf/bancos-sucios-informe.pdf>). 8. orrialdea.

86. Honako hauek arma polemikotzat jotzen dira: pertsonen kontrako minak (lurreko minak), luku-bonbak, uranio pobretuzko armak, arma nuklearrak, arma biologikoak eta arma kimikoak.

87. BBKk "Espainiar estatuko aurrezki kutxak eta Hegoaldeko gizarte garapenarekiko duten harremana" Galdetegiarri emandako erantzuna. Setemek bidalia. 3. orrialdea.

88. BBKk "Espainiar estatuko aurrezki kutxak eta Hegoaldeko gizarte garapenarekiko duten harremana" Galdetegiarri emandako erantzuna. Setemek bidalia. 4. orrialdea.

89. Enpresaren Gizarte Erantzukizuneko 2010eko Kodea. Bezeroekiko Jarrera. Kapitalak zuritzea prebenitzea. 5. orrialdea

<https://portal.bbk.es/servlet/Satellite?blobcol=urldata&blobheader=application/pdf&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1296586326111&ssbinary=true>

90. Kutxa Korporatiboa. Ezagutu Kutxa. Eginkizuna, Ikuspegia eta Balloak. [https://www.kutxa.net/cs/Satellite/KU\\_Portal/Layout\\_corp/1215166732454/es](https://www.kutxa.net/cs/Satellite/KU_Portal/Layout_corp/1215166732454/es)

91. Enpresaren Gizarte Erantzukizuna. Konpromisoak. [https://www.kutxa.net/cs/ContentServer/KU\\_Portal/Layout\\_corp/1215166732621/es](https://www.kutxa.net/cs/ContentServer/KU_Portal/Layout_corp/1215166732621/es)

92. Delàs Zentroak, kopuru hori kalkulatzeko, erakundeak daukan akzio-ehunekoa bider kapital mailan bere parte-hartzea duen enpresa bakoitzak lortu duen armen salmenta bolumena egiten du (izan ere, enpresa batzuen jarduera ez da %100 armen negozioa).

93. [https://www.kutxa.net/wkn\\_corporativo/2010/memoria\\_RSE/es/pacto\\_mundial.htm](https://www.kutxa.net/wkn_corporativo/2010/memoria_RSE/es/pacto_mundial.htm)

94. Enpresaren Gizarte Erantzukizuneko Kodea. Enpresa Aliatuak. 5-6. orrialdea.



## BBKren, Kutxaren eta Vital Kutxaren parte-hartzea enpresa militarretan

Aurrezki-kutxak	Enpresa militarrek	Ekoizpena	Akzio bidezko parte-hartzea	Xehetasunak
BBK	Amper, S.A.	Defentsa-elektronika, proiektu militar handietan parte hartzen du. %20/30 ekoizpen militarra	%0,18 zeharkakoa, Iberdrolaren bitartez	2010ean Iberdrolak parte hartzeari utzi zion. %2,6 Iberdrolarena zen, eta BBK-k bere akzioen %7 dauka
	Construcciones y Auxiliar de Ferrocarril (CAF)	Borroka-ibilgailuen eta blindatuen modernizazioa. %5 ekoizpen militarra	%5,8 zuzeneko parte-hartzea	
	Ibérica del Espacio, S.A.	Ingeniaritza aeroespazial militarra. %10 ekoizpen militarra	%0,41 zeharkakoa, Iberdrolaren bitartez	%5,7 Iberdrolarena da, eta BBK-k bere akzioen %7,2 dauka
	RYMSA (Radiación y Microondas, S.A.)	Komunikazioak espazioa eta defentsa. %21 ekoizpen militarra	%3,6 zeharkakoa, Iberdrolaren eta IBV Korporazioaren bidez	%100 IBV Korporazioarena da, horren %50 Iberdrolarena da, eta BBK-k bere akzioen %7,2 dauka
Caja Vital	Construcciones y Auxiliar de Ferrocarril (CAF)	Borroka-ibilgailuen eta blindatuen modernizazioa. %5 ekoizpen militarra	%1,65 zuzeneko parte-hartzea	
Kutxa	Construcciones y Auxiliar de Ferrocarril (CAF)	Borroka-ibilgailuen eta blindatuen modernizazioa. %5 ekoizpen militarra	%20,06 zuzeneko parte-hartzea	

Iturria: Ranking de la Banca Armada del Centro de Estudios por la Paz J.M. Delàs delakoan oinarrituz landua, SABI datu-basea 2011ko ekainaren 29an kontsultatua



### CAJA VITAL KUTXA

Vital Kutxak, beste kutxek bezala, Nazio Batuen Munduko Ituna sinatu zuen, baina industria militarrekin batera lan egiten du, CAFen parte hartuz. aipatzekoa da bere parte-hartzea hiru kutxetatik txikiena dela, hau da, 2009an %1,7koa izan zen, eta 2010ean %1,65ekoa.

Vital Kutxak EGEa bere partaidetza duten enpresetara hedatzen du, horretarako, Munduko Itunera<sup>95</sup> atxikitzearen ondoriozko konpromisoaren berri ematen die, baina ez du betetzen dutela ziurtatzeko inolako irizpide-esparrurik edo mekanismorik ezartzen<sup>96</sup>, barne-ikuskapen batez gain. Gainera, ustezko jakin batzuetan soilik bermatzen du bere interes taldeek oinarritzko eskubideen arloan indarrean dagoen lege-

ria betetzen dutela, baina kanpoan geratzen dira bere parte-hartzea duten enpresak<sup>97</sup>.

Vital Kutxak onartu egiten du bere izen onerako arriskutsua dela eragin negatiboak dituzten edo Nazio Batuen Itunean jasotako printzipioak errespetatzen ez dituzten bezeroen proiektuetan parte hartzea, baina ez du zehazten zer egingo duen horri dagokionez, eta ez du bere parte-hartzea duen enpresa bat ere baztertzeko irizpiderik ezartzen<sup>98</sup>. Ondorioz, bere partaidetza duten enpresen gaineko kontrol etikoa falta dela dirudi, eta horrek Nazio Batuen Munduko Ituneko 2. Oinarria zalantzan jartzen du<sup>99</sup>, hau da, enpresek giza eskubideekin lotutako gehiegikerien konplize ez izateaz ziurtatu behar dutela dioen oinarria. Gainera, Vital Kutxak CAFen daukan partaidetza bere etika printzipioaren kontra doala dirudi.

95. 2010eko EGE Memoria. Vital Kutxaren profila. Enpresa taldea: sektore estrategikoetako presentzia. 9. orrialdea

96. 2010eko EGE Memoria. 10. Konpromisoa: Kutxak garapen iraunkorarekin daukan konpromisoa hedatzea. Vital Kutxa eta enpresa edo pertsona hornitzaileak. 60. orrialdea.

97. Munduko Itunaren Garapenaren Txostena Munduko Itunaren Sare Espainiarra. 1. Oinarria. Diagnostikoa. <http://www.pactomundial.org/index.asp?MP=3&MS=8&MN=2&id=764&principio=1&idinforme=1235&categoria=1>

98. 2010eko EGE Memoria. Eragin, Arrisku eta Aukera nagusiak, eta GEK Kudeaketaren Ikuspegia. 20. orrialdea.

99. Nazio Batuen Munduko Ituna. 2. Oinarria. [http://www.unglobalcompact.org/Languages/spanish/Los\\_Diez\\_Principios.html](http://www.unglobalcompact.org/Languages/spanish/Los_Diez_Principios.html)



# Beren jardueren kanpoko politikak eta proiektzioa

## 04.3 Beste arduragabetasun eta kontraesan batzuk



### 1. Paradisu fiskalekiko harremanak<sup>100</sup>

Egungo testuinguruan, Espainiako jarduera ekonomikoa hazi egin da krisiaren ondorioz; baina, aldi berean, enpresa espainiarrak hazkuntza ekonomikoak eragin bera izan ez duen herrialdeetan lan egiten eta etekinak lortzen ari dira (adibidez, Latinoamerikan). Krisiak zuzenean du eragina espainiar estatuak dirua biltzeko duen gaitasunean, baita espainiar enpresen transnatzionalizazioan ere. Ildo horretan, deigarria da ikustea sozietateen gaineko zergaren bidezko diru-bilketak beherakada ikaragarria izan duela (%55 2007a eta 2009a bitartean), baina IBEX 35ean kotizatzen duten enpresa handien etekinek ez dute beherakada bera izan, %14 egin baitute behera 2007a eta 2009a bitartean. Ondorioz, beherakada fiskal hori ez dator bat enpresen emaitzekin, behera egin duten arren ez baitira diru-bilketa beste jaitsi.

Enpresen emaitzen beherakadaren eta diru-bilketa-  
ren beherakadaren arteko desoreka, funtsean, Espainiako estrategia fiskalaren eta kanpoko dibidenduen gaineko salbuespen fiskalaren bidez enpresen nazioartekotzea sustatzeko 1995ean egindako eta 2006an

gauzatutako arau-aldaketaren ondoriozkoa izan zen. Aldi hartan, diru-bilketa, funtsean, Espainian gauzatzen ziren jarduerak oinarri gisa hartuta egiten zen, bereziki hirigintzaren boom-arekin lotutakoak, eta salbuespen fiskalak nazioartekotzea sustatzearen alde egin zuen apustu, eta marjinal gisa utzi dituzte filialak dauzkaten eta atzerrian diharduten enpresek Espainiako baliabide publikoei egindako ekarpenak.

Politika horiek, alde biko hitzarmen bihurturik, zerga-ezarpen bikoitza ekiditea zuten helburu. Horretarako, paradisu fiskalei buruzko Errege-dekretuan zerga-ezarpen bikoitzari buruzko hitzarmenak edo informazioa trukatzeko akordioak sinatzen dituzten herrialdeak paradisu fiskaltzat ez jotzea ahalbidetzen duen artikulua bat jaso zen, eta, horrela, enpresa handiei erraztu egin zitzaizen beren zerga-zama arintzea, baita ihes fiskala ere.

Azken finean, zerga-ezarpen bikoitzari buruzko hitzarmenak edo zergen arloko informazioa trukatzeko akordioak sinatuz, paradisu fiskal “erreal” edo “puru”etan dauden enpresek ofizialki paradisu fiskal-  
letan egoteari utziko diote, eta, ondorioz, ez zaizkie >>

100. Atal hau osoki garatu da GEKren Behatokiak “La responsabilidad Social Corporativa en las memorias anuales de las empresas del IBEX 35. Análisis del Ejercicio 2009” agirian emandako datuetan oinarrituz.



## ZER DA PARADISU FISKAL BAT?

Lurralde edo estatu bat da eta bere ezaugarri nagusia da zerga-erregimen berezi bat duela eta mesedegarria dela bertan bizi ez diren eta ondorio legetarako bertan helbideratzen diren herritar eta enpresentzat. Abantaila horiek, normalean, zergak ordaintzetik guztiz salbuetsita geratzea edo zerga nagusien ordainketan oso murrizketa handia izatea eragiten du.

### Nola kaltetzen dute gizartea paradisu fiskalek?

Paradisu fiskalak mundu-mailako arazo bat dira eta herrialde pobreen interesak kaltetzen dituzte lau modutara, nagusiki.

1. Paradisu fisikaletako banku-kontu sekretuek eta offshore fideikomisoek elite aberatsei eta enpresei zerga-arloan dituzten betebeharrak ekiditeko aukera ematen diete, eta, ondorioz, politika publikoen finantzaketaren zama laneko errenten, pentsiodunen eta ETEen esku geratzen da.
2. Multinazionalak bere zerga-zama nabarmen murrizten dute —kapitalak paradisu fisikaletako postontzi-enpre- sen bidez igorri—, eta, ondorioz, garapen bidean dauden herrialdeetan dituzten lehiakideen aurrean (norma- lean txikiagoak izaten dira) abantailak dituzte.
3. Paradisu fisikaletako finantza-erakundeek eskaintzen dituzten banku-sekretu eta offshore fideikomisoek ustelkeria po- litikoarekin, armen legez kanpoko salmentarekin eta beste delitu batzuekin lotutako dirua zuritzea ahalbidetzen dute.
4. Paradisu fiskalek finantza-krisiaren gero eta eragin handiagoa sustatu dute, eta horrek herrialde txiroetako biztanleen oinarriak suntsi ditzake.

aplikatuko gure legerian paradisuena kontra ezar- tzen diren neurriak. Horrek berehalako ondorio bat dauka, alegia, gaur egun paradisu fisikaletan dauden enpresa espainiar guztiek Sozietateen gaineko Zerga- ri buruzko legean jasotzen diren salbuespenen onura jaso dezakete. Ondorioz, ordura arte legez kanpoko- tzat edo elusio fiskaltzat jotzen zena, Ekonomia eta Hazienda Ministerio espainiarrak sinatutako eraba- kiaren ostean ez da horrela ikusiko; aitzitik, benetako paradisu fiskal batean dagoen edozein enpresak sozie- tateen gaineko zergari buruzko lege espainiarraren arabera dagozkion onura fisikaletara jo ahalko du, sistema fiskal erreal eta arduratsu bat duen Europako herrialde bateko filial bat balitz bezala. Argi dago egoera hori hutsegitez jotzeaz gain sakonki oker dagoela eta elusio fiskalaren kontra borrokatzen den edozein zerga-logikaren aurkakoa dela.

Ondorioz, nazioartekotutako enpresa handiak dira, dirudienez, sozietateen gaineko zergaren diru-bi- lketaren beherakada eragiten dutenak, beren etekin handienak atzerrian dauzkatelako, eta salbuespenen bidez elusioa sustatzen duten estrategia fiskalak era- biltzen dituzte, baita taldearen barruko eragiketa instrumentalak ere, eta paradisu fiskalez baliatzen dira. Enpresarik handienak dira —normalean tal- de kontsolidatuen erregimenean ordaintzen dituzte

zergak— abantailarik handienak lortzen dituztenak sozietateen gaineko zergan ezarritako salbuespenen bidez, eta gaitasun handiagoa lortzen dute beren le- ge-aholkulariek elusio fiskala sustatzen duen estra- tegia fiskal bat definitzeko.

Egungo Sozietateen gaineko Zergaren araudiak salbuespen-baldintzak ezartzen ditu, eta, ondorioz, atzerrian inbertsioak dauzkaten enpresek zergak ez dituzte Espainian ordaintzen gure lurraldetik kan- po jasotzen dituzten dibidendu eta plusbalioengatik, modu batean edo bestean benetan salbuetsita daude- lako. Aitzitik, atzerrian beren parte-hartzea duten enpresetan galerak baldin badituzte eta galerak ba- natuta badituzte, kendu egin ditzakete.

IBEX35aren enpresen %82k paradisu fisikaletan en- presa filialak edo parte hartuak dauzkate. Gainerako %18ak bere parte-hartze garrantzitsuak dauzkaten akziodunen artean paradisu fisikaletan helbideratu edo parte hartutako enpresak dauzka. Eta, gainera, garrantzitsua da espainiar estatuaren politika fis- kalari buruzko ohar bat egitea. Espainiar estatuko gobernuek —bai PSOEk bai PPK— azken urteotan gauzatutako estrategia fiskalaren arabera, kapital irabazien eta sozietateen irabazien gainean sal- buespenak ezarri ziren, eta horrek kontsumo- eta



merkataritza-jardueretan (zeharkakoak) eta lanean (zuzenekoak) presio fiskal handiagoa ezartzea eragin zuen. 2010eko Espainiako ekarpen fiskalen maparen datuak analizatuz gero (irailera bitartean) ikusiko dugu pertsonen errentaren gaineko zergen eta BEZetik eratorritakoen diru-bilketa, azkenean azken kontsumitzaileek ordaintzen dituzten prezioetan dute eragina, zergen bidezko diru-bilketa osoaren %87ko zama dute. Baina enpresek sozietateen gaineko zergaren bidez ordaintzen dutena analizatzen badugu, 2010eko irailaren 9rako pilatutako datuak adierazten du zergen bidezko diru-sarrera publikoen kopuru osoaren %9,7ko ekarpena soilik egiten dutela. Eta nazioartekotutako enpresek atzerrian dituzten filialek lortu dituzten eta taldearen emaitza finkatzen duten etekinengatik ordaintzen dituzten zergen datua analizatzen badugu, diru-sarrera fiskalen %1,7 ingurukoa baino ez da.

Jakina, datu horiekin ondoriozta daiteke azken ha-

markadako estrategia fiskal espainiarraren ondoriozko eskeman, zama fiskalaren zatirik handiena errenta baxuen gainean eta kontsumoan eta erosketetan ezartzen dela, bi jardueren protagonistak pertsonak dira. Horren aurrean, kapitalaren errentek eta enpresen etekinek baliabide publikoetarako egiten duten ekarpen fiskala askoz txikiagoa da, eta, kapital espainiarra atzerrian duten enpresen kasuan, filialen eta aberriratutako enpresa parte hartuen etekinengatik baliabide publiko espainiarrei egiten dieten ekarpena oso marjinala da. Ideia hori ez dator bat sarritan enpresa transnazional espainiarrei babesa ematerakoan argudiatzen diren zama fiskalen banaketari buruzko topiko batzuekin.

Euskal Kutxen kasuan, ondoren zerrenda batean jaso dira finantza-erakunde horien parte-hartzea duten eta paradisu fiskaletan filialak dituzten enpresak.

**Paradisu fiskaletan dauzkan sozietateak (2009): 38**

## Enpresa: REPSOL

2009an Repsolek paradisu fiskaltzat jotzen diren herrialde edo lurraldeetan filialak dauzka filialen bidez edota parte hartutako enpresen bidez, eta bere jarduerarekin lotuta ez dauden jarduerak gauzatu zituzte. Ez du enpresa horien bidez gauzatu dituen eragiketei buruzko informazio xehea ematen, eta ez du jakinarazten paradisu fiskaletan duen presentziari buruzko politikarik daukan. Baliteke presentzia hori elusio fiskalerako estrategia baten ondoriozkoa izatea, eta estrategia legez kanpokoa ez den arren, argi dago gizartearekiko arduragabea dela, ez dagoela konprometituta etekinak ematen dizkion herrialdearen garapenarekin eta etikoki gaitzesga-

rria dela. Gutxienez honako paradisu fiskal haue-tan diharduela adierazten duen informazioa dago: Andorra, Filipinak, Holanda, Bermudak, Kaiman Uharteak, Luxenburgo, Oman, Panama, Puerto Rico, Hegoafrika, Suitza eta Trinidad Tobago<sup>101</sup>.

Lotutako kutzak: **BBK**: Mario Fernández Pelaz, Kutzaren presidentea, Repsol YPFren Kanpo Kontseilaria da. Kutzak eta Repsol YPF Petronor-en akziodun bakarrak dira. **Kutzak**: Repsol YPFren akziodun izan zen 1997a eta 2004a bitartean La Caixa eta Caixa Catalunyaekin batera Repinves sozietatearen bitartez. Kutzak Repinves-en akzioen %27,3 zeukan.

>>

101. "OBRSCren paradisu fiskalen zerrenda"ren arabera. Zerrenda hori Metodologiaren atalean jaso da, "La responsabilidad Social Corporativa en las memorias anuales de las empresas del IBEX 35. Análisis del Ejercicio 2009" txostenean.



### Paradisu fiskaletan dauzkan sozietateak (2009): 5

IBERDROLAk Informe de Sostenibilidad 2009 txostenean onartzen du paradisu fiskaltzat jotzen diren herrialdeetan dauden hiru enpresarekin lan egiten duela, 1080/91 Errege-dekretuan xedatutakoaren arabera: Kaiman Uharteak, Txipreko Errepublikak eta Man Uharteak. Ez da inolako oharrik egiten toki horietan gauzaturako jardueri buruz, baina honakoa adierazten da: “enpresa horietan gauzaturako jarduerak aplikatzen den araudiaren arabera egiten dira, eta ez dute inola ere ihes fiskaleko jarduerarik egiten, ezta kapitalak zuritzen edo legez kontrako jarduerarik egiten ere”. Informazioa ematen duten arren, mugatua da, ez baitute adierazten zer jardueratan diharduten enpresa horietan, eta ez dute bal-

dintza fiskalen ondorioz praktikan paradisu fiskaltzat jo daitezkeen baina zerrendan agertzen ez diren beste herrialde batzuetan beren parte-hartzea duten enpresen berri ematen. Zerrenda horretan ez dira jaso (2009ko Kontu Bateratuak dokumentuko enpresa parte hartuen txostenean bai) praktikan paradisu fiskaltzat jo daitezkeen herrialdeetan dauden beste filial batzuk, adibidez, Holandan eta Birjina Uharte Britainiarretan finantza-sozietate instrumentalak dauzka; Luxenburgon aseguru-sozietate bat dauka; Irlandan finantza-sozietate bat dauka eta Dubain ingeniari bat.

Erlazionatutako kutxa: **BBK** Iberdrolaren erreferentziakoa bigarren akzioduna da, eta bere parte-hartzea %6,84koa da.

## 2. Higiezinaren betearazpenak<sup>102</sup>

Txosten honen xede diren hiru erakundeei helarazitako inkestan informazio zehatza eskatzen zitzaie kontratatutako hipoteken kopuruari eta bolumen ekonomikoari buruz, errenta baxuko familiei emandako hipotekei, berriz negoziatutako hipotekei, gauzaturako hipotekei eta kaleratzeen kopuruari buruz, eta arazo hori arintzeko gizarte-politikaren bat zuten adierazteko ere eskatzen zitzaie. Lehen adierazi dugun bezala, BBKk soilik erantzun dio galdetegiari, eta, eskatutako informazioaren artean, atal hori zuriz jaso dugu. Finantza-erakundeei hipoteken arazoari ematen dioten erantzuna ez da oso arduratsua gizarte-arloari dagokionez. Krisia hasi zenetik, eta langabezia areagotu egin denez, milaka familiak ezin diote aurre egin beren hipoteka-kuoten ordaintzari, eta beren etxea galtzeko arriskuan daude.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren (CGPJ) arabera, 2008an 58.686 hipoteka-betearazpen egin ziren,

2009an 93.319<sup>103</sup> eta 2010ean betearazpena %0,32 areagotu ziren, 93.622 betearazpen egin ziren guztira. 2009a eta 2010a bitartean betearazpena nabarmen areagotu da, baina esan beharra dago krisia baino lehenagoko betearazpenen kopurua laukoiztu egin dela<sup>104</sup>. Hau da, finantza-erakundeei arazo horri ematen dioten erantzuna (eta horien artean azterlan honetan analizatu diren hiru kutzak daude) hiru urtean 245.000 hipoteka-betearazpen eta bahiketa egitea izan da.

Euskadiren kasu berezian, 2009an, betiere CGPJren datuen arabera, 1.255 hipoteka-betearazpen izapidetu ziren<sup>105</sup>. 2010ean, 2009ko datuekin alderatuta, hipoteka-betearazpenek %7,5<sup>106</sup> egin zuten behera. Beherakada garrantzitsua izan zen, baina ez zen esanguratsua izan azken hiru urteetan izapidetu diren betearazpenen mailaren ondorioz. Beherakada hori izan zuen arren, 2010eko kopurua 2007koaren bikoitza izan zen, krisia hasi baino lehenagokoaren bikoitza, alegia, orduan 584 gauzatu baitziren. Kopuru garrantzitsua da, azken hiru urteotan 3.400 familia etxerik gabe geratu direla esan

102. Artikulu honetan jasotako informazioa eta iritzi batzuk Setemek 2011n argitaratu zuen Hegoaldeko Garapenaren eta Aurrezki Kutxen txostenean familia espainiarren etxebizitzekin lotutako Negozio atalean argitaratutako informazioan oinarrituta dago [http://www.odg.cat/documents/publicacions/2011\\_Caixa\\_Estalvis\\_cast.pdf](http://www.odg.cat/documents/publicacions/2011_Caixa_Estalvis_cast.pdf)

103. EFE Agentzia. “Las ejecuciones hipotecarias marcan un nuevo récord al acercarse a 100.000 en 2009”. Cinco días egunkarian argitaratutako artikuluak. Madrid, 2010eko apirilaren 7a. [http://www.cinco dias.com/articulo/economia/ejecuciones-hipotecarias-marcan-nuevo-record-acercarse-100000-2009/20100407cdscdseco\\_21/cdseco/](http://www.cinco dias.com/articulo/economia/ejecuciones-hipotecarias-marcan-nuevo-record-acercarse-100000-2009/20100407cdscdseco_21/cdseco/) Orrialdea 2011ko uztailaren 13an bisitatu da.

104. Agentziak. “Nuevo récord histórico de ejecuciones en 2010: cerca de 100.000”. El Mundo argitaratutako artikuluak. Madrid, 2011ko martxoaren 28a. <http://www.elmundo.es/elmundo/2011/03/25/suivienda/1301068630.html> Orrialdea 2011ko uztailaren 13a bisitatu zen.

105. Muñoz, J. “Los embargos se duplican en Euskadi”. El Correo argitaratutako artikuluak. Bilbo, 2010eko apirilaren 12an. <http://www.elcorreo.com/alava/v/20100412/pvasco-espana/embargos-duplican-euskadi-20100412.html> Orrialdea 2011ko uztailaren 13an bisitatu zen.

106. Agentziak. “Nuevo récord histórico de ejecuciones en 2010: cerca de 100.000”. El Mundo argitaratutako artikuluak. Madrid, 2011ko martxoaren 28a. <http://www.elmundo.es/elmundo/2011/03/25/suivienda/1301068630.html> Orrialdea 2011ko uztailaren 13a bisitatu zen.



## Hipoteka-betearazpenak

	2008	2009	2010	3 urteak guztira	Etxe Kopurua
Espainiako estatua	58.686	93.319	93.622	245.627	14.100.000
	%0,416	%0,662	%0,664	%1,742	betearazpenen % vs hipotekak
Euskal Autonomia Erkidegoa	985	1255	1161	3401	658.235
	%0,150	%0,191	%0,176	%0,517	betearazpenen % vs hipotekak

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin prestatua.

nahi baitu. Halere, taulan ikus daitekeen bezala, Espainiako eta Euskadiko zifrak kontuan hartuz gero, emaitzek erakusten dute Espainiako 14,1 milioi etxeen<sup>107</sup> %1,74k azken hiru urteetan hipoteka-betearazpenak pairatu dituztela. Hortaz, 100 familiako 2k, ia, hipoteka-betearazpen bat pairatu dute aztertutako aldian. Zifra hori Euskadikoaren hirukoitza da, %0,52koa<sup>108</sup> baita, baina termino sozialetan oso larria da, arazoak 200 familiako 1en gainean baitu eragina.

Zifra horiek ikusirik, CGPJk, epaileen gobernuaren organo gorenak, behin baino gehiagotan ohartarazi du estatistikek ez dutela ematen epaitegietan betearazten ari diren higiezin guztien “benetako ideia”. Eskaera egite hutsak hainbat ondasunen enkantea egitea eragin dezake, eta, ondorioz, “baliteke igoera antzemandakoa baino handiagoa izatea”.<sup>109</sup>

CGPJk adierazten duen bezala, euskal gizartea pairatzen ari den arazo sozial larrirenetako baten aurrean gaude, klase politikoak eta komunikabideek ia guztiz ikusezina izatea lortu dute, eta krisi finantzario eta ekonomikoaren icebergaren oinarrietako bat da. Gaur egun, hipoteka ordaindu ezin duten familiek prozesu judizial bati aurre egin behar diote, eta, bertan, Auzitegiek higiezina enkantean jar dadila xedatu ohi dute, hipoteka-zorraren berme gisa jaso baita. PZL65eko 671. artikulua arabera, enkantea hutsik geratzen bada, eskaintzailerik gabe, maileguaren hartzekodunak (kutzak edo bankuak) ondarena bere tasazio-balioaren %50ean eskura dezake,

eta erakundeak familiei zorraren gainerako zatiaren eta dagozkion interes eta kostu judizialen ordainketa eskatzen jarrai dezake. Ondorioa argi dago: familia etxebizitarik gabe eta finantza-arlotik betirako kanporatuta geratzen da.

Hori hala da Bankuek eta Kutxek gaur arte legeria beren alde izan dutelako hipoteken arloan. Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan ez bezala (adibidez, Erresuma Batuan, Frantzia, Alemanian eta Portugalen edo Estatu Batuetan), espainiar estatuko eta, ondorioz, Euskadiko lege-esparruaren ondorioz, familiek ezin diote aurre egin hipotekaren ordainketari, ezin dute ordainean emateko aukerara jo, hau da, etxebizitza eman eta zorra kitzatzea, familiak ezin baitio hipotekaren ordainketari aurre egin eta gero berriro zerotik hasi. Prozesu hori guztiz bidegabea da hipoteka-betearazpenak egungoa bezalako aldietan kudeatzen dituztenean, higiezin jasan duten balio-galera kontuan hartuz eta langabezia inoiz ez bezala areagotu dela ikusita. Beraz, hipotekaren ordainketari aurre egin ezin dioten familiek, beren etxebizitza maileguaren kopuruari erantzun ahal izateko moduko erosle bat aurkitzen ez dutenean, are egoera gogorragoan aurkitzen dira lana eta etxea galtzen dituztenean: dauzkaten eta izango dituzten ondasun guztiekin kitatu beharko duten zor batekin geratzen dira. Soldatak betiko bahitzearen ondorioz, familiek finantza- eta ekonomia-klandestinitatera jo behar dute gizartetik bazterturik geratu aurreko urrats gisa.

107. <http://www.lukor.com/hogarysalud/04121506.htm> 2011ko uztailaren 13an bisitatutako orrialdea

108. [http://www.ine.es/prodyser/pubweb/myh/myh10\\_poblacion\\_familia.pdf](http://www.ine.es/prodyser/pubweb/myh/myh10_poblacion_familia.pdf) 2011ko uztailaren 14an bisitatutako orrialdea

109. EFE Agentzia. “Las ejecuciones hipotecarias marcan un nuevo récord al acercarse a 100.000 en 2009”. Cinco días egunkarian argitaratutako artikulua. Madrid, 2010eko apirilaren 7a. ([http://www.cincodias.com/articulo/economia/ejecuciones-hipotecarias-marcan-nuevo-record-acercarse-100000-2009/20100407cdscdseco\\_21/cdseco/](http://www.cincodias.com/articulo/economia/ejecuciones-hipotecarias-marcan-nuevo-record-acercarse-100000-2009/20100407cdscdseco_21/cdseco/)) Orrialdea 2011ko uztailaren 13an bisitatu da.



Kaudimen-ratio desberdinak ikusten baditugu ikusiko dugu bankuak eta kaxak egiten ari diren probisio azeleratuak aurreikusten diren ez ordaintzeen arabera egiten direla; baina, normalean, hornikuntza horietan ez da kontuan hartzen etxebizitzaren balioa galtzen bada (hori pentsaezina zen higiezin burbuilaren garaian) hipoteken bolumenaren atzean ez dagoela balio bera berme errealetan. Bankuei eta kutxei etxebizitzaren egungo balio errealtaren arabera hornitzea eskatuko balitzaie, finantza-erakunde batek baino gehiagok porrot egingo luke.

Nola iritsi gara hona? Azken urteotako hazkuntza ekonomikoa estuki egon da lotuta etxebizitzaren eraikuntzarekin eta jabetza pribatua joeraren erregimen nagusi gisa sustatu da. Helburu hori erdiesteko, aurrezki kutxek, beste finantza-erakunde batzuek bezala, kontrol publikorik ezak bultzatuta, hipoteka-kredituak ia bereizketarik egin gabe ematea sustatu zuten. Alokairu eskuragarria eta egonkorra bermatzeko politikarik ezak eta administrazio publikoek jabetza pribatuaren erregimena sustatzeak herritarren zati handi bat behar baino gehiago zorpetzera bultzatu zuten etxebizitza duin bat lortzeko modu bakar gisa.

Testuinguru horretan, etxebizitza berrien balioaren %120raino finantzatzera iritsi ziren, eta hipoteken kuotak 40 eta 50 urtetan ere ordaintzera iristen ziren. Baldintzetako asko iruzurrezko publizitatearen bitartez hitzartu ziren, hau da, interesak igotzea, atzeraldi ekonomikoa eta antzeko egoerak kontuan hartu gabe, eta, batzuetan, barne hartutako klausula batzuk ulertzea oso zaila zen hartzaileentzat, eta horietako batzuk gehiegizkoak ziren, zalantzarik gabe. Agintaritza publikoek jokabide horiek bultzatu edo, behintzat, ahalbidetu zituzten, eta, horren ondorioz, notario, tasatzaile, finantza-erakunde, eraikuntza-entresa eta higiezin agentzien harreman sinbiotiko baten emaitza izan zen, eta ustelkeria eta iruzur zantzu argiak dituzte. Egoera horretan, era berean, eta horrekin lotuta zegoen presio sozial guztia izanik, beharrezkoa da azaltzea hemen islatutako baldintzetan etxebizitza bat eskuratzearekin lotuta bakoitzari dagokion erantzukizuna.

Bada, prozesu honen azken emaitza da kreditu-erakundeak bi aldean artean hasieran adostutakoa baino askoz etekin handiagoa lortzen zela: etxebizitza bat eskuratzen du merkatukoa baino prezio baxuagoan, eta, gainera, kreditu-eskubidea mantentzen du, paradoxikoki, etxebizitza hori eskuratzerakoan onartu zen zorraren gainerako kopuruagatik. Egungo krisi-testuinguruan hipoteka betearazteko prozesuak, alderik ahulenaren kalterako, desoreka bat eragiten duela ikusirik, Hipotekaren Eraginpekoen Plataformak<sup>110</sup> eta antzeko erakunde sozialek planteatzen dute premiazkoa dela legeak aldatzea prozeduraren arauketari arrazoizkotasuna eta berdintasuna emateko.

Azkenik, bereziki negargarria da aurrezki kutxen kasua; izan ere, erakunde sozialak direla suposatzen da, baina hori erakunde horiek ahalik eta etekin handiena lortzen dutela bermatzeko soilik erabiltzen da. Horren eragina zuzenean jasaten duten ehunka pertsonak azaltzen dute kutxek bankuek bezain zorrotz jokatzen dutela hipotekaren kuoten ordainketa aldarrikatzerakoan, testuingurua eta egoera pertsonalak kontuan hartu gabe: berdina dio mundu-mailako krisi luze batean langabezia geratu diren familiak diren, berdina dio ume txikiak dituzten, edo abal gisa guraso erretiratuen etxebizitza bakarrik jaso den. Zorrak kitatu egin behar dira, eta, gehiengotan, langileei esaten diete familiak estutzeko, beren errenta txikia maileguaren kuota ordaintzeko erabil dezaten diru-sarrerak bukatu arte, eta, orduan, hipoteka-betearazpena egiten da balioaren %50ean. Baina negozioa ez da hor bukatzen: bahitutako etxebizitzak berriro salgai jartzen dira, sarritan, %30 edo %40ko deskontuarekin, baina etxebizitzok eskuratze baldintza bat da bezero potentzialak hipoteka mailegua kutxa berarekin eskuratu behar duela. Eta, horrela, zirkulua berriro ixten da: etxebizitza berarekin, kutxak negozio bat baino gehiago egiten du. Negozio biribila.

Azterketa honen xede izan den erakunde batek ere ez du informaziorik eman hipotekak betearaztearekin, kaleratzeekin eta ordainean emateekin lotutako politika sozial zehatzei buruz.

110. <http://www.afectadosporlahipoteka.com> 2011ko uztailaren 13an bisitatutako orrialdea



# Beren jardueren kanpoko politikak eta proiektzioa

## 04.4 Alderdi politikoaren finantzaketa irregularra



Partiduen finantzaketan ikusten diren irregulartasunak Espainian azaro ezkutu bat dira. Finantzaketa-iturri horien kontrol faltaren ondorioz, baliteke kasu askotan mesede politikoak lortzea alderdiei ekarpenak eginez. Horren harira, orain indarrean dagoen 8/2007 Lege Organikoan adierazten denaren arabera:

*“Alderdi politikoek beren eskuduntzak gauzatzean duten askatasuna kalteturik geratuko litzateke liberalizazio osoko eredu bat finantzatzeko formula gisa; izan ere, hala balitz, beti izango litzateke zalantzarria erabaki politiko jakin bat hartzerakoan finantzaketa-iturri jakin baten ekarpenek izan duen eragina, eta alderdi politikoek herriaren borondatea gauzatzen duten erakunde gisa duten funtzioa etengo litzateke”.*

Lege horrek dioena argi eta garbi dagoen arren, emaitzak ez dira behar bezalakoak izan. Alderdi politikoaren eta aurrezki kutxen arteko lotura handiaren gaiari heltzeko, esan beharra dago legeak bien artean negoziatzen diren baldintzetan alderdiei finantza-zerbitzuak ematea ahalbidetzen duela, baldin eta *“merkataritza-trafikoaren erabilera eta ohituren arabera baimenduak”* badira<sup>111</sup>. Ustelkeriaren kontrako Estatuen Taldeak (UKET)<sup>112</sup> “Evaluation report on Spain. Transparency of Party Funding” txostenean adierazten duen bezala, espainiar estatuan alderdi politikoei kredituak emateko baldintzak ez daude legean definituta. Ez dira xehetasun garrantzitsuak zehaztu, adibidez, kredituen gehienezko balioa, bidezko mailegu-hartzaileak edo kopurua itzultzeko epeak; aitzitik, azalpen orokorrak ematen ditu *“merkataritza-trafikoaren ohituren arabera onartutakoak”* baino ez baititu aipatzen. Horrela, kutxek interesak barka ditzakete, eta, ondorioz, legearen arabera ekarpen pribatutzat jo liteke. Legearen arabera, alderdiei egin ahal zaizkien ekarpenen muga 100.000 eurokoa da, eta 150.000 eurokoa da organikoki alderdiekin erlazionatuta dauden fundazioetarako ekarpenen kasurako.

111. Bigarren Xedapen Iragankorra. 8/2007 Lege Organikoa

112. “Evaluation report on Spain. Transparency of Party Funding” Third Evaluation Round. Ustelkeriaren kontrako Estatuen Taldea, UKET. Estrasburgo, 2009ko maiatzaren 15a.



Espainiar estatuan gai horren kontrolaz arduratzen den erakundeari dagokionez (Kontuen Auzitegia), muga batzuk ditu, eta kontrol hori ezin du modu eraginkorrean egin. Auzitegiak bere txostenak Gorteetara bidaltzen ditu, eta haiek ematen diete behin betiko onespina. Ondorioz, kontuak onetsi behar dituztenak ikerketen xede diren alderdi politiko berak dira. Emaileek, bankuek edo kontratatutako enpresek, gaur arte, ez dute Auzitegiaren aurrean agertze-ko betebeharririk, eta horrek beren ikerketa gaitasuna mugatzen du. Ondorioz, Alderdi Politikoek Finantzaketari buruzko legearen aplikazioa kontrolatzeaz eta zaintzeaz arduratzen den erakundeak ez daukanez behar besteko ikerketa-gaitasuna, eta Alderdi Politikoek ez daukatenez informazio xehea eta egiazkoa emateko barneko pizgarririk, ezinezkoa da Bigarren Xedapen Gehigarria aplikaraztea. Alderdien betebeharrak ez dira bete, ez diete Auzitegiaren eskaerei erantzun eta balizko zigorrak gomendio huts bihurtu dira<sup>113</sup>.

Auzitegiaren 2010eko Memoriako paragrafo honetan adierazten den bezala, berak adierazten du ezin dela adierazpenik egin Eusko Eusko Alkartasuna eta Partido Socialista Obrero Español alderdien zorren negoziazio-baldintzei buruz:

*“(...) kasu guztietan, ordaindutako zenbatekoek zorren kopuru nagusia kitatu zuten, baina ez dago argi zein diren ordaindutako interesen kalkulua eragin zuten negoziazio-baldintzak, eta, ondorioz, ezinezkoa izan zen inolako oharrik egitea interesen zorra barkatu izanari edo ez izanari buruz, ezta, egokia balitz, erregularizatu-tako interesen arrazoizkotasunari buruz ere, ez baitakigu zein izan zen eragindako finantzaketa-kostua”<sup>114</sup>.*

Legearekin eta instituzioekin lotutako testuinguruaren ezaugarri nagusiak berrikusi ondoren, alderdien egoera finantzarioan kontzentratuko gara. 2004ko Gardentasun Legea onartu arte, kutxarik garrantzitsuenetako batzuek ez zuten informaziorik argita-

ratzen alderdiei emandako maileguei buruz. 2004az geroztik, ordea, derrigortuta daude, eta espainiar estatuko kutxek onartu zuten maileguen eta abalen edo bermeen kopuru bizia honakoa zela:

Urtea	Zorra guztira (milioi eurotan)
2004	80
2005	70'2
2006	98'8
2007	122'8

Kontuen Auzitegiak 2006ko kontabilitateko egoerari buruz egindako fiskalizazio-txostenak<sup>115</sup>, alderdi politikoei buruzkoak, honako datuak jaso zituen:

Alderdia	Zorra guztira (milioi eurotan)
PSOE	58'7
PP	55'7
IU	15'1
PNV	14'7
CIU	11'9

Kreditu horien gehiengoa eman zuten kutxak La Caixa, Cajasol eta BBK izan ziren. Gainera, alderdiek beren lurraldeetan ezarritako kutxen finantzaketa lortzen zuten. Bada, EAJk jasotako finantzaketa guzti-guztia BBKtik (12,02 milioi euro) eta Vital Kutxatik (2,78 milioi euro) lortu zuen, baita Eusko Alkartasunak ere: BBK (968.000 euro) eta Vital Kutxa (190.000 euro)<sup>116</sup>.

113. “La financiación de los partidos políticos” Gaspar Ariño Ortiz. Gizarte Zibilaren Foroaren dokumentuak 1. zkia. 2009ko urria.


114. Kontuen Auzitegiaren jardueren 2010eko Memoria. 891. zkia. 84. orrialdea.

115. “Informe de fiscalización de los estados contables del ejercicio 2006 de los partidos políticos con representación parlamentaria en las Cortes Generales o en las Asambleas Legislativas de las Comunidades Autónomas” 856. zkia. Kontuen Auzitegia.


116. Ibid.



### Alderdi politikoek bat egiteko prozesuan dauden kutxeekin dituzten zorrak



### Alderdi politikoek bat egiteko prozesuan dauden kutxeekin dituzten zorrak



## ITURRIA: INFORMAZIOAN<sup>117</sup>

Horren harira, aipatzekoa da gai horrekin lotutako hainbat eskandalu egon direla. 2009an behin baino gehiagotan argitaratu zen PSOEk Banco Santander eta BBKrekin ordaintzeke zeukan zorraren negoziazioa, baina negoziazioaren baldintzak ez ziren sekula publikoki azaldu<sup>118</sup>. Eragiketa opakoa izan zen arren, iturri batzuek adierazten dute akordioak intere-

sengatik pilotutako 33 milioi euro barkatzea eragin zuela. Bestalde, beharrezkoa da azaltzea ez dagoela bankuei buruzko informaziorik eskuragarri, ez baitaude legez behartuta informazioa azaltzera, kutxak ez bezala, pribatizatuak izan baino lehen.

<sup>117</sup>. "Deudas de los partidos políticos con las cajas" artikulua. 2001eko martxoaren 8an hemen argitaratua: [www.lainformacion.com](http://www.lainformacion.com) [http://graficos.lainformacion.com/economia-negocios-y-finanzas/servicios-bancarios/deudas-de-los-partidos-politicos-con-las-cajas\\_16jx38Z05WLoY8ykQavRv1/2011ko-uztailaren-11n-bisitatutako-orrrialdea](http://graficos.lainformacion.com/economia-negocios-y-finanzas/servicios-bancarios/deudas-de-los-partidos-politicos-con-las-cajas_16jx38Z05WLoY8ykQavRv1/2011ko-uztailaren-11n-bisitatutako-orrrialdea).

<sup>118</sup>. Artikuluak: "Renegociación o condonación?". 2010eko urtarrilaren 22an El Mundo argitaratua; "La deuda de los partidos políticos con la banca", 2011ko maiatzaren 23an Solidaridad.net-en argitaratua <http://www.solidaridad.net/noticias.php?not=6687> 2011ko uztailaren 11n bisitatutako orrialdea.



# Beren jardueren kanpoko politikak eta proiektzioa

## 04.5 Publizitatea



BBK, Kutxa eta Vital Kutxa Publizitateari buruzko azaroaren 11ko 34/1988 Lege Orokorraren menpe daude<sup>119</sup>, Lege horrek Espainiako edozein merkataritza, industria edo artisautza jarduera edo jarduera profesional arautzen du, eta, horrez gain, finantza-erakundeek ikuskapenari eta kontrolari buruzko araudiaren menpe dago<sup>120</sup>. Publizitateari buruzko Lege Orokorreko 3. artikuluan legez kanpoko publizitate-motak identifikatzen dira. Legez kanpoko publizitatea da pertsonen duintasunaren kontrakoa dena edo Konstituzioan jasotako balioak eta eskubiak urratzen dituen, adingabeei zuzenduta dagoen publizitatea erostera bultzatzen baditu edo egoera arriskutsuetan agertzen badira, publizitate subliminala, iruzurrezko publizitatea, publizitate desleiala eta publizitate agresiboa.

### BBK

BBK nahita atxiki zen 2006an publizitatea erregulatzeko Autokontrolerako koderak<sup>121</sup>. Kodeak publizitateak Publizitatearen Lege Orokorrak errespetatu behar dituen printzipioak ezartzen ditu. 2010ean bi erreklamazio jaso zituen kodearekin lotuta. Bata Autokontrolaren Publizitatearen Epaimahaiak baztertu zuen, eta bestea Epaimahaiari helarazi baino lehen ebatzi zen<sup>122</sup>. Erakunde hori deontologia-publizitate arloan espezializatutako organo bat da, eta publizitatearen edo merkataritzako komunikazioaren arloan izen ona duten pertsonen osatzen dute, bere zeregina publizitatearekin lotuta ebatzi behar dituzten gaietan arbitro gisa jokatzeko da eta bazkidetuekin eta hiru-garren batzuekin lotuta Elkartek onetsitako kodeak

<sup>119</sup>. Publizitateari buruzko azaroaren 11ko 34/1988 Lege Orokorrak. 2. artikulua. [http://noticias.juridicas.com/base\\_datos/Admin/l34-1988.t1.html](http://noticias.juridicas.com/base_datos/Admin/l34-1988.t1.html). 2011ko ekainaren 27an bisitatu.

<sup>120</sup>. 6/2010 Zirkularra, irailaren 28koa, Espainiako Bankuak kreditu- eta ordaintza-erakundeek bidalia, bankuko zerbitzu eta produktuen publizitateari buruzkoa. [http://noticias.juridicas.com/base\\_datos/Privado/c6-2010-be.html](http://noticias.juridicas.com/base_datos/Privado/c6-2010-be.html). 2011ko ekainaren 30ean bisitatu.

<sup>121</sup>. BBKren Enpresaren Gizarte Erantzukizuneko 2010eko Memoria. Iraunkortasuna. Kudeatzeko ikuspegia eta jardueraren adierazleak. Produktuen erantzukizuna. Marketin komunikazioak. <https://portal.bbk.es/bbkportal/memoriabbk2010/es/sostenibilidad/enfo8c.html>.

<sup>122</sup>. BBKren Enpresaren Gizarte Erantzukizuneko 2010eko Memoria. Iraunkortasuna. Kudeatzeko ikuspegia eta jardueraren adierazleak. Produktuen erantzukizuna. Marketin komunikazioak. <https://portal.bbk.es/bbkportal/memoriabbk2010/es/sostenibilidad/enfo8c.html>.



eta arauak hautsi omen direlako irekitako espedienteak ebazten ditu<sup>123</sup>.

BBKn, 2006tik behintzat<sup>124</sup>, ez da inolako gertakizunik egon Marketinaren komunikazioekin lotutako arauketekin lotuta, Publizitatearen Lege Orokorren eta Autokontrolerako publizitate-kodearen zehazpenak urratu ditu<sup>125</sup>. 2009an, 'Itziar' publizitate-iragarkiak kritika zorrotzak jaso zituen Finantza eta Administrazio Zerbitzuen Lan Batzordeen atarian<sup>126</sup>. Bildutako informazioaren arabera, iragarkia sexista zen, eta protagonisten duintasunaren kontrakoa<sup>127</sup>.



## CAJA VITAL KUTXA

Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren 2010eko Memoriaren arabera, Vital Kutxak publizitatearen arloan konpromiso bakarra dauka, hau da, bere komunikazioetan hizkuntzaren eta emakumearen irudiaren erabilera berrikustea<sup>130</sup>. 2006tik 2010era ez da inolako gertakizunik edo ebazpen judizialik egon marketinari eta publizitateari buruzko araudiekin lotuta<sup>131</sup>.



## KUTXA

Kutxa ere publizitatea erregulatzeko Autokontrolerako kodera atxikita dago<sup>128</sup>. 2010eko EGE Memoriaren arabera, 2008an, 2009an eta 2010ean Bezeroentzako Arreta Zerbitzuak 101, 90 eta 81 erreklamazio jaso zituen, hurrenez hurren, produktuekin batera doan sustapen-informazioarekin lotuta, eta 0, 6 eta 4 erreklamazio jaso zituen publizitatearen arloko arau-hausteengatik. Hala ere, organismo ofizial batek ere ez zion Kutxari inolako publizitate-kanpainarik kendu. Ez da zigorrik, salaketarik, isunik edo arau-hausterik egon marketinarekin eta publizitatearekin lotuta 2006tik, Eskuduntzaren Defentsaren Auzitegiak gain<sup>129</sup>.

123. Publizitateari buruzko Autokontrolerako jokabide-kodea. 4.-Epimahaia: osaketa, interes gatazkak eta atribuzioak. 2. orrialdea. [http://www.autocontrol.es/pdfs/Cod\\_conducta\\_publicitaria.pdf](http://www.autocontrol.es/pdfs/Cod_conducta_publicitaria.pdf)

124. BBKren Enpresaren Gizarte Erantzukizuneko 2010eko, 2009ko, 2008ko, 2007ko eta 2006ko Memoriak. Iraunkortasuna. Kudeatzeko ikuspegia eta jardueraren adierazleak. Produktuen erantzukizuna. Marketineko komunikazioa.

125. 3. artikulua. Publizitateari buruzko azaroaren 11ko 34/1988 Lege Orokorra. [http://noticias.juridicas.com/base\\_datos/Admin/I34-1988.t2.html](http://noticias.juridicas.com/base_datos/Admin/I34-1988.t2.html). 2011ko ekainaren 28an kontsultatua.

126. BBKn ez zaizkigu iragarki sexistak gustatzen. Comfia CCOO. <http://www.comfia.net/html/14861.html%20%20%28Campa%C3%B1as%20Comfia%20CCOO%29>. 2011ko ekainaren 28an kontsultatua.

127. Itziarri buruzko BBKren iragarkia. [www.youtube.com/watch?v=lsWA-mPDQKw](http://www.youtube.com/watch?v=lsWA-mPDQKw).

128. Erantzukizun Korporatiboa. Enpresaren Gizarte Erantzukizuna. Konpromisoak, Jasangarritasuna. [https://www.kutxa.net/cs/ContentServer/KU\\_Portal/Layout\\_corp/Generico/1215167603490/1215166732621/es:numParrafo=3](https://www.kutxa.net/cs/ContentServer/KU_Portal/Layout_corp/Generico/1215167603490/1215166732621/es:numParrafo=3)

129. 2010eko EGE Memoria. 4. Kutxaren bezeroak. 28-29. orrialdea.

130. Gizarte Erantzukizun Korporatiboko 2010eko Memoria. Berdintasuna sustatzeko programak. 49. orrialdea. [http://www3.cajavital.es/pdf/inversores/mem\\_rs\\_10\\_c\\_8.pdf](http://www3.cajavital.es/pdf/inversores/mem_rs_10_c_8.pdf)

131. 2008-2010 EGE Memoriak. Vital Kutxaren bezeroak. Produktuarekin lotutako erantzukizuna. 2006-2007 EGE Memoriak. Eranskinak. GRI edukien aurkibidea. Dimentsio soziala. Produktuarekin lotutako erantzukizuna.



# Beren jardueren kanpoko politikak eta proiektzioa

## 04.6 Monopolizazio praktikak



El Correo Digital egunkariaren arabera, BBKk, Kutxak eta Vital Kutxak isunak jasan zituzten monopolizazio-praktikak gauzatzeagatik eta lehia askearen kontra jarduteagatik. 2005ean Lehiaren Defentsaren Zerbitzuaren ikerketa-prozesua hasi zen hiru euskal aurrezki-kutxek (BBK, Vital eta Kutxa) eta Caja Navarrak euskal merkaturia partekatzen zuten argitzeko. Aurrezki kutxek alegazioak egin zituzten, baina ikerketa egin ondoren ez ziren onartuak izan; izan ere, zailtzarrik gabe egiaztatu zen beren lurraldeetan elkarri kalterik ez egiteko itun bat zegoela, eta, ondorioz, merkaturia banatu zutela esan zitekeen, eta araudiak hori erabat debekatu du. Ondorioz, Lehiakortasunaren Defentsarako Zerbitzuak kasua Lehiaren Defentsarako Auzitegira igorri zuen, eta har zigor-espediente bat ireki zuen aurrezki kutxen kontra 2006an. Gaia 2005eko abuztuan hasi zen. Hilabete hartan, Lehiak ofizioz espediente bat hasi zuen BBK, Vital eta Kutxaren presidenteen adierazpenen ondorioz; izan ere, bat-egite prozesuak huts egin zuen arren bulegoak ez zirela inola ere gainjarriko ziurtatu zuten. Haietako batek ere ez zeukan sukurtsalik beste bien lurraldeetan. Horrek Caja Navarra ere barne hartzen zuen, eta lau erakundeek Hego Euskal Herriko Aurrezki Ku-

txen Federazioa osatzen zuten, eta hura ere ez zegoen presente komertzialki Euskadin. Lehiak Caja Navarra prozesutik salbuetsi zuen. Kutxek beti esan zuten ez zutela inolako akordiorik eta aldameneko merkaturia ez sartzeko erabakia estrategia independenteekin lotuta zegoela.

Horrez gain, esan zutenaren arabera, Euskadi eta Nafarroako lehiaren maila «hain da handia, ezinezkoa baita ustezko akordio baten bidez mugatzea»<sup>132</sup>.

2007ko urriaren 19an Lehiakortasunaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak Euskadiko eta Nafarroako kutxei irekitako espedientearen ebazpena eman zuen. Ebazpen horren arabera, BBKri<sup>133</sup> eta Kutxari<sup>134</sup> 7 milioi euroko zigorra ezarri zitzaien eta Vital Kutxari<sup>135</sup> 4 milioi eurokoa. Kutxek ebazpenaren aurrea errekurtsioa aurkeztu zuten, eta 2009ko azaroaren 6an epaia eman zen. Leporatu zitzaizkien lehiakortasunaren kontrako jokabide jakin batzuk egin izana frogatu ez zela iritziz, BBKri eta Kutxari ezarritako zigorrak 7 milioi eurotik 3,5 milioira murriztu zen, eta Vital Kutxari ezarritako zigorra 4 milioi eurotik 2 milioira. Hiru kutxek errekurtsioak aurkeztu dituzte Auzitegi Gorenaren aurrean. ■

<sup>132</sup>. Competencia abre expediente a las cajas vascas y navarra por reparto de mercado. Elcorreedigital. [http://www.elcorreo.com/vizcaya/prensa/20061029/portada\\_viz/competencia-abre-expediente-cajas\\_20061029.html](http://www.elcorreo.com/vizcaya/prensa/20061029/portada_viz/competencia-abre-expediente-cajas_20061029.html). 2006ko urriaren 29a.

<sup>133</sup>. BBKren 2009ko EGE Memoria. Iraunkortasuna. Kudeatzeko ikuspegia eta jardueraren adierazleak. Gizartea. Lehia desleialeko jokabidea. <https://portal.bbk.es/bbkportal/memoriabbk2009/es/sostenibilidad/enfo7d.html>


<sup>134</sup>. Kutxaren 2010eko EGE Memoria. 4. Kutxaren bezeroak. 5. Akzio proportzionalak eta beste zerbitzu batzuk. 31-32. orrialdea.

<sup>135</sup>. Vital Kutxaren 2010eko EGE Memoria. Produktuarekin lotutako erantzukizuna. 6. orrialdea. [http://www3.cajavital.es/pdf/inversores/mem\\_rs\\_10\\_c\\_7.pdf](http://www3.cajavital.es/pdf/inversores/mem_rs_10_c_7.pdf)



# 05

Ondorioak





# Ondorioak



Euskal finantza erakundeek urte luzez Euskadin eginkizun erabakigarria gauzatu dute. Batetik, banku-artekaritzan jardun dute eta maila ertain eta baxuen aurrezkiak mobilizatzea lortu dute, eta herrialdeko esparru gehienetara finantza-zerbitzuak helarazi dituzte. Eta, aldi berean, lukurreriaren kontra borrokatu dira, eratu zirenean zuten xedeari jarraiki.

Baina urteak joan ahala, liberalizazio-prozesu bat jasan dute legeen aldaketek eraginda, eta, horren ondorioz, finantza-merkatuetan lehia bizian hasi dira, eta eratu zirenean zituzten helburuetatik urrundu dira. Gaur egun, kutzak eta bankuek eskaintzen dituzten produktuen eta zerbitzuen arteko desberdintasunak oso txikiak dira, nahiz eta akziodunei eman beharrean etekinak erreserbak zuzkitzera bideratzen dituzten eta zati garrantzitsu bat horretarako erabiltzen duten arren, hau da, Vital Kutzak %27,5 eta BBK eta Kutzak %28,9. Baina argi dago merkatuentzat hori ez dela nahikoa, eta orain bat egin nahi dute gero espainiar estatuko gainerako kutzak bezala pribatizatzeke, hiru erakundeek kaudimen-ratioak ongien baloratuetaoak diren arren. Zergatik? Ezinezkoa delako Euskadiko banku-negozioaren %50 baino gehiagok kapital pribatuari interesik ez ematea. Pribatizazioa egiten denetik, horren emaitza den

kutzak etengabe jasango du jabeei eta akziodunei ordaintzeko besteko etekinak sortzeko presioa, eta ez du inolako irizpide etikorik kontuan hartuko, eta gizarte ekintza oroitzapen huts bihurtuko da.

Euskal Aurrezki Kutxen bat-egitea pribatizazio gisa ikuste hori ez dator bat eragiketaren arduradun nagusien iritziekin. Kutzaren Gizarte Ekintzaren Arloko zuzendari Carlos Ruizek zioenez “agian bankutzea pribatizazioarekin identifikatzen da”, baina bere hitzetan, bankuak “mota askotakoak izan daitezke, eta hau ez da izango burtsan kotizatzen duen banku pribatu tipiko bat, ez da izango akziodun ezezaguneko banku bat eta nork agintzen duen eta eragina nork duen argi ez dagoen banku bat”. Kutzabank hiru kutxen jabetza eskusiboa izango dela adierazi du, etorkizunera begira jabetza hori mantenduko dutela, eta banku horrek “kutzaren funtsezko hiru elementuak mantentzea ahalbidetuko digula, hau da: jabetza, lurraldetasuna eta lurraldeari zerbitzua eskaintzeko bokazioa mantentzea eta gizarte ekintza garatzea, funtsean”<sup>136</sup>.

Ildo beretik, BBK Taldeko presidente Mario Fernándezek banku-lizentzia bat hiru erakundeak barne hartzeko “instrumentu” gisa erabiltzea defendatuz honakoa esan zuen:



*“Izaera soziala duen banku-eredu bat zehazten du, kuxxen funtsa mantentzen du, eta finantza-arlotik baztertzea ekidinez, lurraldearekiko eta Gizarte Ekintzarekiko konpromisoa mantentzen ditu”.*<sup>137</sup>

BBKk berak emandako informazioaren arabera, hiru erakundeen banku-negozia banku berrira bideratuko da, gizarte-ekintzarekin lotutako aktiboak eta pasiboak izan ezik. Ondorioz, kuxkek beren izaera juridikoa mantenduko dute eta finantza-jarduera zeharka gauzatuko dute bankuaren bitartez; baina, aldi berean, gizarte ekintzaren kudeaketa mantenduko dute. Hiru egoitza egongo dira: jarduera ekonomikoa eta finantzarioa Bilbon gauzatuko dira; baliabideekin lotutakoa Donostian egingo da, eta Gizarte Ekintzaren eta Instituzio Harremanen jardueren koordinazioa, berriz, Gasteizen egingo da. Denboraren poderioz ikusiko dugu bat-egite prozesuak benetan pribatizazioa ekarriko duen<sup>138</sup>.

Hala ere, Italian, Erresuma Batuan eta beste herrialde batzuetan aurrezki kuxkek presentzia garrantzitsua zuten eta banku bihurtu ziren, eta dagoeneko ikus daiteke garai batean erakunde horiek sortzea justifikatu zuten arazo batzuk berriro agertu direla: bazterketa finantzarioa haztea, sustapen ekonomikorik ez izatea lurralde jakin batzuetan eta lehiakortasuna galtzea finantza-erakundeen artean. Izatez, gure herrialdean gaur egun jada ikus dezakegu kuxkek gero eta jarduera gehiago barne hartzen dituztela gure aurrezkien kudeaketan, bulegoak ixten dituzte beren egiturak errentagarriago bihurtzeko, proiektu sozialak bertan behera uzten dituzte eta bat egiten dute, eta, horren ondorioz, bezeroek eskura-

garri dituzten aukerak eta merkatuko lehia murrizten dituzte. Egiten ari garen oharrak ikusirik esan daiteke gure ikuspegi kritikoa ez dagoela lotuta aurrezki kuxkek izan duten paper positiboa eta haien eraketaren helburua aintzatesteko gai ez izatearekin. Baina arazoa da eragin negatiboak izaten hasi direla beren zereginetik aldentzen hasi direnean, eta beren eredu propioa arriskuan jarri dutela. Zentzu horretan, ezinbestekoa da Aurrezki Kuxxen jardueren kontrol publikoa/soziala, euskal gizartea Aurrezki Kuxkak nahi dugun bezalakoak izatea lortzeko erantzukizuna duela konturarazteko. Baina, horretarako, ezinbestekoa da erakunde horiek guztiz gardenak izatea gauzatzen dituzten negozioekin lotuta, eta beharrezkoa da, era berean, benetako kontrola bermatzea ezinezkoa den jarduerak bertan behera uztea.

BBKk Iberdrolan parte hartzen du, eta parte-hartze horren bidez eragin negatiboak ditu erakunde horrek Brasilen proiektuak gauzatzen dituelako eta, adibidez, litekeena delako proiektu horien ondorioz 50.000 pertsonak Belo Monteko presaren eraikuntzaren eragina pairatzea. Bestalde, Kuxkak, REPSOL YPFn parte hartu zuen bitartean, REPSOLi YPF Argentina eskuratzen lagundu zion, eta horrek eragin larria dauka Neuquén-go eskualdean komunitate maputxeengan. Parte hartutako bi enpresa horiek, gainera, hainbat filial dauzkate paradisu fiskaletan. Garrantzitsua da azpimarratzea finantza-erakundeen neurria garrantzitsua dela, eta, kasu honetan bezala, erakunderik txikienaren kasuan ez da partaidetza garrantzitsurik aurkitu herrialde txiroetako gizartean edo ingurumenean eragina duen konpainiaren batekin lotuta. Baliteke hori horrela izatea Vital Kuxxaren politikaren ondorioz, izan ere, bere Enpresako Gizarte Erantzukizunaren txostenean honakoa zehazten du: Euskaditik kanpo enpresetan ez parte hartzea horrekin lotutako arrisku sozialen ondorioz.

Gai horren harira, hiru kuxkek, akzioen bidez CAFen parte hartzen dutenez, armamentuaren industriari parte hartzen dutela ikusten dugu. Horrekin argi geratzen da hiru kuxkek inbertsioak egiten dituztenean salbuespenak egin ditzaketela irizpide etikoei >>

136. <http://www.elmundo.es/elmundo/2011/07/30/paisvasco/1312047273.html> 2011ko abuztuaren 4an bisitatutako orrialdea

137. <http://deia.com/2011/07/28/economia/-mario-fernandez-desmiente-que-la-fusion-fria-de-las-tres-cajas-vascas-suponga-la-privatizacion-de-las-entidades> 2011ko abuztuaren 4an bisitatutako orrialdea

138. <http://www.elcorreo.com/vizcaya/20110630/economia/entidad-resultante-fusion-cajas-201106301928.html> 2011ko abuztuaren 4an bisitatutako orrialdea



dagokienez. Kasu honetan, badirudi beren memorietan aipatzen dituzten balioak baztertu egin direla enpresa batean parte hartu ahal izateko, nagusiki trenen ekoizpenean diharduen arren armamentu-ekoizpenean ere lan egiten duen enpresa batean, hain zuzen. Zehazki, blindatuen ekoizpenean Santa Bárbara General Dynamics-ekin, bere fakturazioa %5 baita.

Bereziki aipatu behar da ondorio hauetan generoarekin lotutako politiken tratamendua. Azpimarratzekoa da hiru erakundeen proposamena dela langileriako eta zuzendaritza-karguetako emakumeen kopurua berdintzea, baina ez dute kontuan hartzen politika horiek, beren kabuz, ez dituztela desberdintasunak automatikoki murrizten. Erakundeek eta inguru sozialak ez dituzte emakumeak emakume izateagatik “bakarrrik” baztertzeko, goi-karguak lortzeko eta erabaki-organoetara iristeko oztopoak jartzen dizkiote laneko eta familiako bizitza benetan bateratu nahi duen nornahiri. Era berean, beren partaidetza duten enpresek presak eraikitzeagatik edo gerrak sustatzeagatik eragin negatiboak dituztenean, gizartean nahiz ingurumenean, emakumezkoak dira beti eragina gehien nabaritzen dutenak, rol bikoitza dutelako, hau da, ekoizpenean eta ugalketan lan egiten dutelako. Era berean, azterlan honetan egiaztatu da hiru erakundeek beste arduragabekeria batzuk ere egiten dituztela. Bat azpimarratzearen, Kontuen Auzitegiak eta UKETak adierazi duten bezala, BBKk eta Vital Kutxak diru-kopuru garrantzitsuak mailegatu dizkiete euskal alderdi politikoei, eta, zehazki, aipatzekoa da BBKk EAJri 12 milioi euro eta Vital Kutxak 2,8 milioi euro utzi zizkietela. Datu horiek kezkarriak dira, alderdi politikoen menpekotasun finantzario horrek Euskadin demokrazia honda dezaketelako, Eusko Jaurlaritzak eta Herri-administrazioek finantza-erakundeen gainean gauzatu behar duten kontrol-lana baldintza bailezake.

Gaur egun, kutxek ez dizkigute bankuek baino berme gehiago ematen gure aurrezkiak irizpide etikoekin eta Euskadiko nahiz herrialde txiroetako gizartean eta ingurumenean eragin larririk gabe kudeatzea nahi badugu. Are gehiago, hiru erakundeak bakarrean batuko balira, banku armatuen rankineko bosgarren tokian geratuko lirатеke, hau da, BBVAren beraren nahiz La Caixaren aurretik. Paradoxikoa da integrazio hori aktiboen bolumenagatik sektoreko bosgarren erakunde bihurtzea 78.299 milioi euroekin guztira<sup>139</sup>. Noiz arte onartuko dugu oso irizpide ekonomiko zalantzarriek gure bizitza zuzentzea?

Aipatutako eragin negatiboak ikusita, zertarako balio dute enpresako gizarte erantzukizuneko memoriek eta gizarte ekintzaren publizitatea egiteko ahaleginek? Berez, oso gutxirako balio dutela ematen du, edo, hobe esanda, justu kontrakoa lortzeko, euskal gizartearen aurrean errealitatea eta hiru kutxen finantza-jardura arduragabeen eraginak ezkutatzeke, alegia. Halere, eragin negatiboen inguruan eskain daitekeen ikuspegi kritikoaz haraindi, gure ustez aurrezki kutxek oraindik gure finantza-merkatuetan lehiakortasun-maila onargarria sortzen laguntzen dute, eta aldatu egin behar direla uste dugu, beren gobernu-organoek ez ditzaten beren eraketako helburuak ahaztu eta zorrotz betetzea exiji dezaten, merkatu espekulatiboetatik urrunduta, beren eragin negatiboko jarduerak murriztuz, eta behar bezala kapitalizatuz, zentzua ematen dien izaera galdu gabe. Beren hasierara itzultzea ez da ezinezkoa. Gure gizartean, pixkanaka, finantza etikoak hedatzen hasi dira, eta gaur egun kutxen baldintza funtzionaltatik hurbilago dago eta zein bidetatik jo behar dugun erakusten dute. Ondorengo atalean horiei buruz hitz egingo dugu finantza etikoak kuxen ereduaren ondorengoak diren ikusteko. ■

139. <http://www.elmundo.es/elmundo/2011/05/24/paisvasco/1306247560.html>



# 06

Finantza  
etikoak:  
alternatiba bat







# Finantza etikoak: alternatiba bat



Finantza etikoak hirurogei eta hirurogeita hamarreko hamarkadetako mugimendu handietatik jaio ziren. Zehazki, bakezaleek edo ekologistek gizartea eraldatzeko egiten dituzten proposamenen eta finantza-erakundeek dirua erabiltzen duten moduaren arteko kontraesanengatik. Hau da, erakunde bakezaleak ohartu dira beraiekin lan egiten duten finantza-erakundeak armamentuaren industriako enpresa nagusien akziodunak direla, edo erakunde ekologistak gure ingurumenean kalte konponezinak eragiten dituzten proiektuen finantzatzaileak beren baliabiak kudeatzen dituzten erakunde berberak direla ikusten hasi dira. Nolabait, finantza etikoen jatorria antzeko pentsaera duten eta kontraesan hori ekiditeko moduko borondatea duten pertsonen taldeen nahian datza: Gure diruak inoiz parte hartuko ez genukeen proiektuekin lotuta jarraitzen du, eta finantza etikoak finantza-erakundeek beren diruarekin egiten dutenaz arduratu nahi duten aurreztaile guztientzako erantzuna ematen eta sortzen saiatzen dira.

Finantza etikoen erakundeen artean nolabaiteko dibertsitatea dago bere jarduera gidatzen duten oinarri

etikoen definizioan. Kasu honetan, FETSek planteatzen dituen bost oinarri etiko erabiliko dira<sup>140</sup>:

- **Etika aplikatua:** etika hausnarketa jarraituko prozesu bat bezala, inbertsio irizpideen eta kredituen emakidaren aplikazioan.
- **Partaidetza:** erabakiak modu demokratikoan hartzen dira. Kontua ez da soilik bazkideek botoa ematea, erakundearen oinarritzko politiken definizioan parte hartu behar dute.
- **Koherentzia:** dirua gure baloreekiko modu koherentean erabiltzea erakundearen esparru guztietan.
- **Gardentasuna:** finantza-jarduera guztien eta horien ondorioen informazio erregularra eta publikoa eman behar da.
- **Inplikazioa:** finantzaketa etikoko erakundeek irizpide negatiboez haraindi joan behar dute, eta beren inbertsio-politika definitu behar dute, gizartea modu aktiboan eraldatzeko irizpide positiboak jarraituz.

140. Financement Étic | Solidari FETS [www.fets.org](http://www.fets.org) 2011ko uztailaren 11n bisitatutako orrialdea



## ➤ DAUDEN BI EREDUAK

Finantza etikoak gure herrialdera XXI. mendea hasi ondoren iritsi ziren, hau da, Europako herrialde aitzindarietara baino 15 edo 20 urte geroago. Azken 15 urteotan tokiko ekimenak azaldu dira, adibidez, Coop 57 eta Fiare Proiektua, eta nazioarteko ekimen batzuk iritsi zaizkigu, adibidez, Oikocredit edo Triodos Bank. Ekimen horiek asko hazi dira azken bost urteotan, eta krisiak finantza-sistema tradizionalaren inguruan piztu duen espiritu kritikoaren zati on bat jaso du. Bilakaera horretan, erraza da bi joera bereiztea proposamenen artean. Batetik, batzuek banku tradizionalaren merkataritza-egitura zalantzan jartzen dute eta gizartea eraldatzeko alternatibak sortzeko kooperazio- eta partaidetza-ereduak aukeratzeko dituzte, adibidez, Fiare eredu edo Coop57, eta, bestetik, beren ahaleginak politika etiko baten aplikazioan kontzentratzen dituzte partaidetza-ereduetara jo gabe, hala nola, Triodos.

## ➤ ZER DA BANKU ETIKO BAT ETA ZER EZ?

Sarritan, banku etikoari buruz hitz egiten digutenean oso errealitate desberdin bat espero dugu, arauketa zehatz batekin, beharbada, lege-formulazio propioa izatea, ekarpenak egiten dituzten erakundeak, bermerik eskatu gabe dirua mailegatzeari... Erreali-



tatea sinpleagoa da, banku etikoak gure gainerako finantza-sistemaren arauketa berarekin lan egiten baitu, berme berak eskaintzen eta eskatzen ditu, eta, nahi bada, gainerako finantza-erakundeen zerbitzu berak eskaintzen ditu. Desberdintasun bakarrak jarduera guztia gidatzen duen politika etikoa eta bere jardueraren gardentasuna dira; sarritan, proiektu guztien berri ematen dute, aurreztaileek babestu nahi duten ekonomia mota den ala ez erabaki dezaten. Argi dago ikuspegi sozial argia duen proposamen horrek tratu eta profil desberdin bateko erakundeak sortzen dituela, baina banku etikoaren oinarria politika etikoan eta gardentasunean datza.

## ➤ FIARE PROIEKTUA:

Fiare proiektua parte-hartze bidezkoa da, banku-zerbitzuak eskaintzen ditu Etica Banca Popolareren agente gisa, eta gero eta pertsona eta erakunde gehiago barne hartzen ditu herritarrena, etikoa eta kooperatiboa den banku baten proiektuan. Bereganatzen dituen baliabideak gizartea positiboki eraldatzen duten proiektuetara bideratzen ditu, bereziki laneratzea, bidezko merkataritza eta lan-kidetzarekin lotutakoetara. Informazio gehiago: [www.fiare.org](http://www.fiare.org)

## ➤ OIKOCRÈDIT EUSKADI:

Elkarte izaera dauka, eta nazioarteko Oikocredit kooperatibarekin bazkide tutako pertsona guztiak barne hartzen ditu. Baliabideak kooperatiba horren kapitalerako ekarpen gisa barne hartzen ditu eta, nagusiki, Hegoaldeko herrialdeetako gizarteak eraldatzeko proiektuak finantzatzera bideratzen ditu. Informazio gehiago: [www.oikocrediteuskadi.org](http://www.oikocrediteuskadi.org)

## ➤ COOP 57:

Fundazio baten kontrolpean dagoen merkataritza-erakunde bat da, banku-zerbitzu katalogo zabal bat eskaintzen du eta bereganatzen dituen baliabideak hiru norabidetara bideratzen ditu: kulturara, gizartera eta ingurumenera, eta presentzia handia du energia berriztagarrien sustapenean. Informazio gehiago: [www.coop57.coop](http://www.coop57.coop)



### › TRIODOS BANK:

Fundazio baten kontrolpean dagoen merkataritza-erakunde bat da, banku-zerbitzu katalogo zabal bat eskaintzen du eta bereganatzen dituen baliabideak hiru norabidetara bideratzen ditu: kulturara, gizartera eta ingurumenera, eta presentzia handia du energia berriztagarrien sustapenean. Informazio gehiago: [www.triodos.es](http://www.triodos.es)

### › KOMUNITATE AUTOFINANZATUAK - CAF:

Ez dira, berez, finantza-erakundeak, eta konfiantza-erlazio batekin batutako pertsonak baizik, gero eta arazo handiago bat konpondu ahal izateko: finantza-bazterketa, hain zuzen. Ziurrenik, tontine afrikarrekin lotuta daude, eta beren espiritu mutualista eta lankidetzakoa, pertsonak izan ditzaketen eta finantza-sektore tradizionalan laguntza nekez aurkituko luketen finantzaketa-behar txikiei aurre egiten saiatzeko. Informazio gehiago: [www.comunidadescaf.org](http://www.comunidadescaf.org)

### › ACCIÓ SOLIDÀRIA CONTRA L'ATUR / LANGABEZIAREN KONTRAKO EKINTZA SOLIDARIOA:

Fundazio bat da eta finantzaketa-funtzioak gauzatzen ditu soilik, ASCA aitzindaria da Katalunian mikrokredituen arloan, eta finantzaketa-aukera malgua da gure inguruan hainbeste jendek pairatzen duen egoerari aurre egin nahi dioten ekimen askorentzat. Informazio gehiago: [www.acciosolidaria.cat](http://www.acciosolidaria.cat) ■







# 07

Finantza-munduko  
eragileentzako  
eskaerak



# Finantza-munduko eragileentzako eskaerak



## › HERRITARRENTZAT:

- Finantza-erakundeek gure aurrezkiekin zer egiten duten jakitea.
- Gure aurrezkien kudeaketaren erantzukizuna berreskuratzea.
- Pentsatzen dugunaren eta gure diruarekin egiten dutenaren arteko kontraesanak ekiditea.
- Finantza etikoak aukeratzea eta horien eraketan parte hartzea.

## › ARLO PUBLIKOARENTZAT:

- Finantza etikoekin lan egitea gizarteak egiten duen proportzio berean, gutxienez.
- Gizartea eraldatzetik hurbilen dauden esparru publikoek finantza etikoekin lan egitea erraztea, eta kontraesanak ekiditea.
- Beren paper eredugarria onartzea eta finantza-esparruan politika etikoak barne hartzea babestea<sup>141</sup>.
- Erosketa publiko etikoaren prozesuak finkatzen jarraitzea, kasu batzuetan banku etikoan erreferentziak barne hartzen ditu.
- Kontuan izatea zein zentzugabea den diru publikoa

eraginkortasun ekonomikoko irizpideekin soilik kudeatzea, irizpide etikoak eta eraginkortasun sozialekoak barne har ditzatela eta diru-zaintzaren kudeaketa zentralizatuak eta antzeko ekimenek eragiten dituzten mugak birplanteatzea, oso erakunde gutxiren eskuetan jartzea eta diru publikoa banku etikoaren bitartez kudeatu nahiko luketenen jardura mugatzea.

- Giza eskubideak babesteko betebeharra betetzea eta euskal finantza-erakundeei hemen nahiz kanpoan betearaztea, hurrengo kanpokotasun printzipioaren aplikazioan oinarrituz, beste herrialde batzuetan lan egiten duten enpresa transnazionalen akzioetan parte hartzen dutenean edo giza eskubideak eta ingurumena urra ditzaketan proiektuak finantzatzen dituztenean.

- Hipoteken kasuan ordaineen emateko prozesua arau dezatela, kutzak hipoteka betearazten badu eta etxebizitza bereganatzen badu, zorra kitaturik gera dadin, EBko beste herrialde batzuetan edo AEBn gertatzen den bezala.

## › FINANTZA-ERAKUNDEENTZAT:

- Beren jatorrirra itzultzen diren kutxei, beranduegi ez baldin bada, oraindik beharrezkoak direla uste du-





gulako, eta ziurrenik beren bereizketa-estrategiarik onena delako. Pribatizazioaren kontra gaude ez baitago horren aldeko baliozko argudiorik, eta, pribatizazioarekin, zeukaten alderdi soziala galduko dutelako, eta, gainera, eratu zirenean zuten helburuaren kontra joango lireratekeelako.

- Guztiei, gardentasunaren alde lan egin dezatela eta inbertsio- edo finantzaketa-irizpide negatiboak barne har ditzatela. Ez dezatela ezjakintasunaz baliatuz jokatu guk finantzatzeko ez genukeena finantzatzeko.
- Enpresa transnazonaletan edo jarduera zalan-tzagarriak gauzatzen dituztenetan parte hartzen jarraitzen badute, giza eskubideekin eta ingurumena-rekin lotutako arriskuei buruzko sailak era ditzatela kontrol- eta jarraipen-lanak egin ditzaten, eta beren diruarekin ez direla giza eskubideak urratzen dituzten eta ingurumenean eragina duten jarduerak eta konpainiak babesten bermatzeko. ■

141. Norvegiako gobernuak, adibidez, bere kapitala inbertsio-funts propio baten bidez inbertitzen du, eta irizpide etikoak dauzka. Besteak beste, Walmart konpainia baztertu dute. Enpresa estatubatuar hori liderra da mundu osoan azalera handien negozioan, eta ezaguna da bere jokabide anti-sindikala eta lan-arloko eskubideak sistematikoki hausten dituela. <http://www.rel-uita.org/internacional/ddhh/noruega-walmart.htm> 2011ko uztailaren 11n bisitatutako orrialdea.



# Bibliografia

## ► BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK

- > Ariño, G. (2009) “La financiación de los partidos políticos” Documentos del Foro de la Sociedad Civil N°1
- > Carrión, J; Pi, J; Mari, J; Maeso, V (2010) Cajas de Ahorros y Desarrollo en el Sur. SETEM Catalunya
- > Chicaiza, G. (2010) El enclave minero en la cordillera del Cóndor. Acción Ecológica. Quito
- > De Schutter, O. (2010eko abuztua) NBren Biltzar Orokorrerako Txostena  
[http://www.srfood.org/images/stories/pdf/officialreports/20101021\\_access-to-land-report\\_es.pdf](http://www.srfood.org/images/stories/pdf/officialreports/20101021_access-to-land-report_es.pdf)
- > Ekologistak Martxan (2011) 2010ean Biodibertsitatearen suntsitzearen 15 errudun nagusiak.  
[http://www.ecologistasenaccion.org/IMG/pdf/informe\\_15\\_culpables.pdf](http://www.ecologistasenaccion.org/IMG/pdf/informe_15_culpables.pdf)
- > Etxezarreta, Miren (2011) “El ataque a las cajas” Diario Público. Madril, 2011ko otsailaren 28a.  
<http://blogs.publico.es/dominiopublico/3086/el-ataque-a-las-cajas/>
- > GRECO (2010) Evaluation report on Spain. Transparency of Party Funding Third Evaluation Round. Ustelkeriaren kontrako Estatuen Taldea (Grupo de Estados contra la corrupción).
- > Grover, A. (2009ko martxoa) NBren Biltzar Orokorrerako Txostena  
[http://www2.ohchr.org/english/bodies/hrcouncil/docs/11session/A.HRC.11.12\\_en.pdf](http://www2.ohchr.org/english/bodies/hrcouncil/docs/11session/A.HRC.11.12_en.pdf)
- > Harvey, D. (2003) “The ‘new’ imperialism: accumulation by dispossession” The Socialist Register, 63–8
- > Ibañez, Sara (2010) “Daños colaterales de convivir con Petronor” Con\_Margen, nº 23.
- > Ibeanu, O. (2010eko iraila) NBren Biltzar Orokorrerako Txostena  
[http://www2.ohchr.org/english/bodies/hrcouncil/docs/15session/A.HRC.15.22.Add.1\\_EFS.pdf](http://www2.ohchr.org/english/bodies/hrcouncil/docs/15session/A.HRC.15.22.Add.1_EFS.pdf)
- > Newsome, Kirsty (2003), “The Women Can Be Moved to Fill in the Gaps’: New Production Concepts, Gender and Suppliers’, Gender, Work and Organization 10, 320-341.
- > Ruggie, John G., SRS (Nazio Batuek, Geneva, 2009ko urria). “Enpresetarako eta giza eskubideetarako esparrua operazionalizatzeko Kotsultaren hasierako Konferentzia”  
<http://www2.ohchr.org/english/issues/globalization/business/docs/OpeningSpeechJohnRuggie.pdf>
- > Sales, Albert (2009) “Global Compact 2.0: multinationals to the rescue!”, Global Compact Critics, 2009ko otsailaren 5a.  
<http://globalcompactcritics.blogspot.com/2009/02/global-compact-20-multinationals-to.html>
- > Scheinin, M. (2009ko otsaila) Research project on a world human rights court [http://www.udhr60.ch/report/hrCourt\\_scheinin.pdf](http://www.udhr60.ch/report/hrCourt_scheinin.pdf)
- > Sebastián M., Saavedra V., Zumalde U. Las relaciones del Estado español con regímenes dictatoriales: Guinea Ecuatorial, Libia, Marruecos vs. Sáhara Occidental. Bartzelonako Unibertsitatea. 2011ko uztaia.
- > Kontuen Auzitegia (2006) Kontabilitate-egoeren fiskalizazio-txostena, 2006ko ekitaldikoa, Legebiltzarrean, Gorte Nagusietan edo Autonomia Erkidegoen Asanblada legegileetan ordezkaritza duten alderdi politikoena. 856. zkia.
- > Kontuen Auzitegia (2010) Kontuen Auzitegiaren jardueren 2010eko Memoria 891. zkia.
- > Van Gelder, J.W.; Spaargaren, P.; Bouwers, R. (2010). Negocios Sucios. Bancos españoles que financian armas. SETEM-Finanza Etikoak. <http://www.bancalimpia.com/pdf/bancos-sucios-informe.pdf>



## ➤ WEBGUNEAK

---

- > Centre d'Estudis per la Pau JM Delàs - <http://www.centredelas.org>
- > Centro de Derechos Humanos y Ambiente - <http://www.cedha.org.ar>
- > Diario Cinco Días - <http://www.cincodias.com>
- > Diario El Mundo - <http://www.elmundo.es>
- > Diario Gara - <http://www.gara.net>
- > Diario Público - <http://www.publico.es>
- > Ekologistak Martxan - <http://www.ecologistasenaccion.org>
- > El Correo - <http://www.elcorreo.com>
- > El Economista - <http://www.economista.es>
- > Equator Principles - <http://www.equator-principles.com/>
- > Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea - <http://www.emakunde.euskadi.net/>
- > Enlazando Alternativas - <http://www.enlazandoalternativas.org>
- > Euskomedia - <http://www.euskomedia.org/>
- > Vital Kutxa Fundazioa - <http://www2.cajavital.es/fundaciones.asp>
- > Greenpeace - <http://www.greenpeace.org>
- > Ibertrola - <http://www.ibertrola.blogspot.com>
- > InfoAnalistas - <http://www.afi.es>
- > Instituto Nacional de Estadística - <http://www.ine.es>
- > La voz de Galicia - <http://www.lavozdegalicia.es>
- > Noticiasdeguipuzcoa.com - <http://www.noticiasdeguipuzcoa.com>
- > Ekonomia eta Ogasun Ministerioa - <http://www.meh.es/>
- > Notícias de Guipúzcoa - <http://www.noticiasdegipuzkoa.com>
- > Objetivo 15 - <http://www.objetivo15.net/>
- > Lanaren Nazioarteko Erakundea - <http://www.ilo.org/>
- > Globalizazioko Zorraren Behatokia - <http://www.odg.cat>
- > Munduko Ituna - <http://www.pactomundial.org>
- > Eusko Legebiltzarra - <http://www.parlamento.euskadi.com>
- > Hipoteken Ondorioak Pairatzen dituztenen Plataforma - <http://afectadosporlahipoteca.wordpress.com/>
- > BBKren webgune korporatiboa - <http://portal.BBK.es>
- > Itinere taldearen webgune korporatiboa - <http://gruopoitinere.com>
- > Iberdrolaren webgune korporatiboa - <http://www.iberdrola.es>
- > Kutxaren webgune korporatiboa - <https://www.Kutxa.net>
- > NATRAren webgune korporatiboa - <http://www.natra.es/>
- > Salva la selva - <http://www.salvalaselva.org>
- > Solidaridad.net - <http://www.solidaridad.net/>
- > Sur y Sur - <http://www.surysur.net>

## ➤ DOKUMENTU KORPORATIBOAK

---

- > BBK (2010) Enpresaren Gizarte Erantzukizuneko 2010eko Memoria. <https://portal.BBK.es/BBKportal/memoriaBBK2010/es/financiero/pre.html>
- > Vital Kutxa (2010) EGE Memoria. <http://www3.cajavital.es/pdf/inversores/memrs10c.pdf>
- > Vital Kutxa (2009) Urteko Kontuen Txostena. [http://www3.cajavital.es/pdf/inversores/cuentas\\_09.pdf](http://www3.cajavital.es/pdf/inversores/cuentas_09.pdf)
- > Kutxa (2008) EGE Memoria. [https://www.Kutxa.net/wkn\\_corporativo/2009/memoria\\_RSE/es/carta\\_presidente.htm](https://www.Kutxa.net/wkn_corporativo/2009/memoria_RSE/es/carta_presidente.htm)
- > Kutxa (2009) EGE Memoria. [https://www.Kutxa.net/wkn\\_corporativo/2010/memoria\\_RSE/es/equipo\\_humano.htm](https://www.Kutxa.net/wkn_corporativo/2010/memoria_RSE/es/equipo_humano.htm)
- > Natra (2010). Gobernu Korporatiboaren 2010eko urteko txostena <http://www.natra.es/archivos/gobcorporativo.pdf>





Setem

[www.setem.org/euskadi](http://www.setem.org/euskadi)

[www.facebook.com/SetemHegoHaizea](https://www.facebook.com/SetemHegoHaizea)

@SetemHegoHaizea